

Serem



INDARKERIA

kontsumitzen dugu?

Indarkeria matxisten eta kontsumoen inguruan
ezagutza sortzeko eta ikasteko prozesu kolektiboa



Sistematizazioa eta Idazte-lana:

Oreka Sarea (Marixe Noya, Laura Modonato eta Cristina Santillán).

Landako azterketa:

ADIMEN Investigación

Argitalpen-kontseilua:

MUGARIK GABE (María Viadero, Saioa Polo), Altekio, Iniciativas hacia la Sostenibilidad en empresa social (Conchi Piñeiro), SETEM Hego Haizea (Iratxe Arteagoitia, Lorena Fernández, Laura Castresana, Edurne Pujana).

Edizioa:

SETEM Hego Haizea – www.setem.org/euskadi

Diseinua eta maketazioa:

LaBox Marketing y Comunicación

Ikerketa hau formatu digitalean aurki dezakezu hemen: www.setem.org/euskadi

Lan hau Creative Commons En Errekonozimendua-Ez Komertziala-Berdin Partekatu 3.0 Espainia lizentziarekin dago.



Argitalpen hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren, Donostiako Udalaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzarekin egin da. Dokumentu honen edukia SETEMen erantzukizuneko da bakarrik.

Erakunde hauen babesarekin:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua
Departamento de Deportes y Acción Exterior



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA ETA GIZARTE
GAETAKO SAILA
Gizarte Gaietako Sailburuordetza
Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Cooperación al Desarrollo



GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

ESKER-EMATEA

Kontsumoen eta indarkeria matxisten korapiloa askatzeko prozesu honetan, hainbat ikuspegitatik egin da lan, elkar aintzatetsiz eta hausnartzeko eta ikas-teko esparru kolektiboak sortuz. Askotariko ahotsak entzuten eta jasotzen saiatu gara, guztietara iritsi ezin garela jakinda, mugak mahaigainean jarritz eta zailtasunei helduz. Baina, ororen gainetik, ilusio handiarekin egin dugu lan, prozesu honekin gizarte-eredu zuzenago eta berdintasunezkoago baterantz pausotxo bat ematen dugula jakinda, norbanakoaren konpromisoak esparru kolektiboan aldaketak eragiten dituen eredu baterantz.

Zentzu honetan, eskerrak eman nahi dizkiegu bide honetan lagundu digutenei, hauek eskertu beharreko guztiak ez direla baina hauei guztiei eskerrak eman behar dizkiegula jakinda:

Iratxe Arteagoitia, Laura Castresana, Lorena Fernández eta Edurne Puja-na Deba (SETEM Hego Haizea GGKEa), Conchi Piñeiro (Altekio, Iniciativas hacia la Sostenibilidad enpresa soziala), María Viadero Acha eta Saioa Polo Llano (Mugarik Gabe GGKEa), Marixe Noya eta Dominique Saillard (Oreka Sarea), Laura Modonato eta Cristina Santillán (Oreka Sarearen kolaboratzaileak), Salomé Saguillo, Rosa Gómez, Patxi Alija eta Zuriñe Zuazo (ADIMEN, ikerketa), Silvia María Ángel (Corporación para la Vida Mujeres que Crean), Amalia Cuervo Tafur (Penca de Sábila Erakunde Ekologiko eta Kulturala), Ane Martínez Recio (Mujeres en la Diversidad Elkarte), Garbiñe Angulo (Sagar-rak Ekologista Taldea), Itziar González Bilbao eta Conchi Carazo (Mujeres de Aquí y de Allá Elkarte), Mabel Cañada Zorrilla, Aurora Iturrioz, Maitena Monroy, Monika Plazaola Sojo, Nieves Salobral eta Cecilia Alldridge.

AURKIBIDEA

> ESKER-EMATEA	3
> TAULEN AURKIBIDEA	6
> GRAFIKOEN AURKIBIDEA	8
> SARRERA	10
1 PROZESUAREN SISTEMATIZAZIOA	12
1. Aurrekariak eta proiektuaren diseinua	13
2. Erakunde parte-hartzaileak	15
3. Metodologia	16
4. Proiektuaren justifikazioa eta helburuak	17
5. Aztergaiaren definizioa	19
6. Proiektuaren garapena	25
7. Prozesuaren balorazioa	31
8. Hurrengo urratsak	33
2 ESPARRU TEORIKOA	34
1. Gure begirada zehaztuz	35
2. Indarkeria matxistak: ondorio larriak dituen fenomeno sistemiko eta konplexua	39
3. Sistema kapitalistaren eta sistema patriarkalaren arteko aliantza: bizitza indarkeriaz bustitzen	48
4. Indarkeria matxistak kontsumo kapitalistatik	55

3 LANDA-LANAREN EMAITZAK	67
1. Sarrera	68
2. Emaitzen aurkezpena	75
> Etxea (elikadura eta etxeko produktuak)	76
> Esparru pertsonala: estetika	96
> Esparru publikoa: mugikortasuna herrietan	122
4 ONDORIOAK	138
1. Ondorioak esparruka	139
> Etxea (elikadura eta etxeko produktuak)	139
> Esparru pertsonala (estetika)	140
> Esparru publikoa (mugikortasuna)	142
2. Ondorio orokorrak	143
5 ERREFERENTZIAZKO BALIABIDE BATZUK	151

TAULEN AURKIBIDEA

1. TAULA ZarenSare-EnRedando sarearen jatorria eta osaketa	14
2. TAULA Proiektua bultzatzeko sortutako egiturak	25
3. TAULA Kontsumoan ikuspegi kritiko batetik sakontzeko baliabideak	152
4. TAULA Indarkeriaren irismena EAEn, Espainiar Estatuan, Kolonbian eta mundu mailan	41
5. TAULA Indarkeria matxisten forma eta adierazpen desberdinak	46
6. TAULA Ekonomia Kapitalistaren eta Ekonomia Solidarioaren arteko desberdintasunak	49
7. TAULA ZarenSare-EnRedando sareak eredu kapitalistaren aurrean duen jarrera	53
8. TAULA Kontsumoa generoaren ikuspuntutik analizatzean kontuan hartu behar diren alderdiak	57
9. TAULA Indarkeria matxistak 4 esparru aztertuetan	59
10. TAULA Gorputzaren garrantzia begirada feminista batetik	66
11. TAULA Indarkeria sinbolikoa etxeko eginbeharren erantzukizuna duten pertsonen artean	92
12. TAULA Presioa sentitzen dute honegatik	113
13. TAULA Indarkeria sinboliko mailak	115

14. TAULA Indarkeria sinbolikoa produktu estetikoaren erabilera-mailaren arabera	115
15. TAULA Indarkeria psikologiko mailak	117
16. TAULA Indarkeria psikologikoa produktu estetikoaren erabilera-mailaren arabera	118
17. TAULA Produktu estetikoaren erabilera-mailak indarkeria sinbolikoaren arabera	118
18. TAULA Indarkeria fisiko motak	120
19. TAULA Etxetik kanpo lan egiten duten pertsonen erabiltzen duten garraiobidea	131
20. TAULA Autoa edukitzea	132
21. TAULA Jasandako indarkeria fisikoak (fisikoak-psikologikoak)	136

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. GRAFIKOA Indarkeriaren triangelu zorua	44
2. GRAFIKOA Garbitzeko eta elikatzeko lanak	85
3. GRAFIKOA Garbitzeko eta elikatzeko produktuen erosketak	87
4. GRAFIKOA Etxeko ekonomiaren eta eginbeharren administrazioa	88
5. GRAFIKOA Indarkeria sinbolikoaren adierazpenak jasaten dituzte (Asko + Nahiko)	90
6. GRAFIKOA Indarkeria sinbolikoaren adierazpen hauek jasaten dituzte. Etxeko eginbeharren arduradun nagusiek	91
7. GRAFIKOA Zuzeneko indarkeriaren edo indarkeria psikologikoaren adierazpen hauek jasaten dituzte (Asko + Nahiko)	94
8. GRAFIKOA Etxea garbitzearen arduradunek (emakumezkoek eta gizonezkoek) jasandako indarkeria fisikoak	95
9. GRAFIKOA Zure fisikoa/irudi pertsonala zertxobait hobetu nahi izan duzu noizbait	104
10. GRAFIKOA Produktu eta tratamendu estetikoaren erabilera-tasa orokorra	105
11. GRAFIKOA Zure irudi pertsonala hobetu nahi izan duzu noizbait	107
12. GRAFIKOA Produktu estetikoaren kontsumoa	108

13. GRAFIKOA Estetikaren eta tratamendu estetikoek kontsumoa (Asko + maiztasun handia)	109
14. GRAFIKOA Produktu estetikoek berentzat esan nahi dutena (Asko + Nahiko)	111
15. GRAFIKOA Presioa sentitzen dute (Handia + Nahiko handia)	112
16. GRAFIKOA Indarkeria sinboliko mailak	114
17. GRAFIKOA Indarkeria psikologiko mailak	116
18. GRAFIKOA Kosmetikoak erabiltzearen eta tratamendu estetikoek ondoriozko indarkeria fisikoak	119
19. GRAFIKOA Garraiobide nagusia	129
20. GRAFIKOA Gidabaimena izatea	133
21. GRAFIKOA Jasandako zuzeneko indarkeriak (fisikoak-psikologikoak)	135
22. GRAFIKOA Mugikortasuneko indarkeria fisikoak (Asko + Nahiko)	137

SARRERA

Eskuetan duzun dokumentu hau SETEM Hego Haizeak sustatu duen lan-prozesu baten emaitza da; bertan, hainbat pertsonaren parte-hartzearekin, kontsumo-eredu kapitalista indarkeria matxistak baliatzeko tresna bihurtzen duten elementu erabakigarrietan sakondu nahi izan dugu, eredu kapitalistak eta indarkeria matxistek elkar elikatzeaz gain emakumeei bereziki gogor eragiten dien baztertze- eta menpekotasun-sistema bat indartzen dutelako.

Hausnartzeko eremu kolektiboak sortuz, indarkeria argienetan kontzentratu nahi izan dugu (emakumeak gauza moduan aurkezten dira, emakumeak kontsumoa sustatzeko objektu huts bihurtuz), baina baita garden bilakatu ahal direnetan eta ikusezin bihurtu arte normalizatzen direnetan ere, genero-rolak eta -estereotipoak indartzen dituztelako eta kontsumitzailearen osasuna arriskuan jartzen dutelako (kasu honetan emakumeena).

Nolanahi ere, prozesu honen helburua indarkeria matxisten eta kontsumoaren arteko lotura horiek identifikatzeaz haraindi doa; izan ere, lotura horiek zalan-tzan jartzen eta hausten dituzten eta alternatibak planteatzen dituzten ereduak identifikatzea da, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak sustatu beharrean benetako berdintasunerantz pausoak emateko.

Horrexegatik, erakunde partaideen arteko hausnarketa-prozesu kolektibotik eratorrita, erakunde parte-hartzaileek **esparru teoriko bat** zehaztu dute indarkeria matxistak eta sistema kapitalistarekin duten lotura analizatzeko, kontsumoa bien elementu bideratzailea eta bateratzailea izanik. Esparru teoriko hori **landa-lanerako** oinarria izan da, eta lan horretan, gai honetan adituak diren hainbat emakumeri sakoneko elkarrizketak eginez, herritarrei inkestak eginez eta eztabaida-taldeak antolatuz, sakoneko analisi bat egin da ikerlana gaiaren inguruko datu kuantitatiboak eta kualitatiboak eskainiz aberasteko. Esparru teorikoak eta landa-lanak kontsumoaren lau esparru zehatzetan jarri dute begirada (elikadura, etxeko produktuak, estetika eta mugikortasuna), esparru horietan dauden egiturazko indarkeriak, zuzenekoak eta sinbolikoak identifikatzeko. Emaitzetan azterketan parte hartu duten lantaldeek¹ egin dituzten analisiak jaso dira, talde horiek izan baitira hausnarketa jarraituaren bitartez esparru teorikoa emaitzetara egokitu dutenak, modu kolektiboan, eta horrela prozesu osoari koherentzia eman diotenak.

¹. Bideratze-taldea, aholkularitza-taldea eta jarraipen-batzordea dira. Horien osaketa eta eginkizunak "1. Prozesuaren sistematizazioa" atalean zehaztu dira, geroago.

Azpimarratzekoa da prozesuak berak eta martxan jarri diren dinamikek eman diotela balio erantsia azterlanari. Gure ustez, hausnarketa kolektiboetako gorabeherak, ikuspuntu desberdinak gehitzeko beharrak (ikuspuntuak homogeneizatzen saiatu gabe) eta oraindik gauza asko analizatu gabe dituen gai bati heltzeko zailtasunak argi utzi dute oraindik asko dugula ikasteke. Horregatik guztiagatik, agiri honetan **prozesuaren sistematizazioa** jaso dugu, sortu den ikaskuntzaren zati garrantzitsu gisa.

Egin dugun lana bigarren agiri batean jaso da, ***Indarkeria kontsumitzen dugu? Indarkeria matxistarik gabeko kontsumoa lortzeko gida*** izenburukoan. Gida horretan, galdera-erantzun batzuen bitartez, berdintasuna sortzen duten eta egungo antolamendu sozioekonomikoa sakonean aldatzea xede duten kontsumo-aukerak sortzeko klabe batzuk eskaintzen ditugu. Azterlan honek horizonte horretarantz hurbildu nahi gaitu, berdintasunean eta justizian oinarritutako gizarte-eredu baterantz, indarkeria matxistarik gabeko eredu baterantz, eta kontsumoa, bi oinarri horietan bermatutako elementu bat izanik biztanleriaren beharrei (emakumeen eta identitate normatiboetatik kanpoko pertsonen beharrei ere) erantzutera bideratuz, pertsonak manipulatzeko eta erabiltzen dituen eta eraso egiten dien tirano bihurtu gabe.

Azterlan honetan, hainbat erakundek parte hartu dute, beren eguneroko lanean azterlan honetan jorratu diren bi eremuetan aritzen diren hainbat erakundek, alegia, eta alternatibak sortzeko borrokan parte hartzeak eman dien ezagutza sakon horretatik, prozesu osoa argitu duten klabeak eman dituzte. *SETEM Hego Haizea GGKE*ari buruz ari gara, azterlana sustatu duelako eta prozesua martxan jarri duelako, baita *Mugarik Gabe GGKE*ari eta *Altekio, Iniciativas hacia la Sostenibilidad* enpresa sozialari buruz ere, beren denbora eta ezagutza eskaini dituztelako, eta *ZarenSare-EnRedando* sareko erakundeei buruz ere bai, azterlanaren emaitzak alderatzeko eta aberasteko aukera eman digutelako, eta, azkenik, *Oreka Sarearen* enpresari eta haren lankide-sareari buruz ari gara, prozesua dinamizatu dutelako.

Horrenbestez, prozesu honek bi gairen inguruko ezagutza sortzeko aukera eman du, eta gai horien inguruko loturak aldaketa sustatzeko klabeak eskaintzen ditu. Lortu diren emaitzetan askotariko begiradak jaso dira, eta sakontzen jarraitzeko oinarriak ezarri dira.



1

Prozesuaren sistematizazioa

1 | AURREKARIAK ETA PROIEKTUAREN DISEINUA

Ekimenaren jatorria

SETEM Hego Haizeak hamarkada bat baino gehiago darama genero-berdintasunaren alde lan egiten. Hala ere, 2010etik finkatu eta zehaztu da gehiago genero-berdintasunarekiko konpromisoa erakundearen barruan eta kanpoan (eta 2011ko ekainetik are gehiago). Bada, 2011n erakundean genero-berdintasunaren aldeko diagnostiko bat egiteko prozesua hasi zen, eta prozesu horren azken urratsa da Genero-berdintasunaren Aldeko 2013-2016 Ekintza-plan Estrategikoa.

Bestalde, aipatzekoa da SETEMen oinarrizko lan-lerro bat dela kontsumo kontzientea, arduratsua eta eraldatzailea. Gainera, Genero-berdintasunaren Aldeko 2013-2016 Ekintza-planaren helburu estrategikoak honakoa jasotzen du: *“Harreman-sarea finkatu eta hedatzea, SETEM Hego Haizeak beharrezkoak diren aliantzak sor ditzan hausnarketa feminista sustatzeko, baita erakundeak desberdinkerien kontra borrokatzearen eta generoaren harira dituen eginkizunak bultzatzeko ere”*.

Zentzu horretan, SETEMek kontsumoaren inguruko edozein ekintzari edo/eta hausnarketari heltzerakoan alderdi horrek emakumeengan naiz gizonengan duen eragina aintzat hartzeko konpromisoa hartu du, gizartearen errealitatea ikuspuntu barne-hartzaile eta feminista batetik aldatzeko aurrerapausoak emateko.

SETEMek erakundearen barnean berdintasunaren aldeko aldaketa egiteko martxan jarri zuen prozesuarekiko paraleloki, ZarenSare-EnRedando sareak aurrerapausoak eman ditu bere planteamendu politikoak eta ekintza-lerroak zehazteko. Aurrerapen-prozesu horretan, indarkeria matxisten eta kontsumoaren gaineko hausnarketan eta ezagutzan sakontzeko beharra identifikatu zen. Are gehiago, sarean parte hartzen duten erakunde gehienek proiektu honetarako bereziki garrantzitsuak diren esparruetan esku hartzen dute, horietako batzuk elkarte feministak direlako eta beste batzuek kontsumo ardurasuaren arloan lan egiten dutelako.

Indarkeria matxistei eta kontsumoari buruzko hausnarketan sakontzeko beharra identifikatu ondoren, SETEMek egokitzen jo zuen ideia hori ZarenSa-

re-EnRedando sareko erakundeekin sozializatzea, eta horretarako, bi helburu zituen galdetegi bat bidali zitzaien: batetik, ekimenaren interesa baloratzea, eta bestetik, prozesu hau parte-hartzaileago egiteko aukera aintzat hartzea, hau da, Sarean parte hartzen dutenen edo aliatuen begirada, iritzia eta esperientzia jasotzea.

Erakunde gehienek ekimena oso positibotzat jo zuten, eta bat egitea erabaki zuten. Horregatik, SETEM ekimena aurrera eramateko funts ekonomikoak bi-latzen hasi zen. Beharrezko finantzaketa lortu ondoren², ZarenSare-EnRedan-do sarearen hirugarren topaketan (Donostian egin zen, 2015eko urtarrilaren 31n), indarkeria matxistei eta kontsumoari buruzko proiektua Sare gisa gau-zatzea erabaki zen eta, horrenbestez, ekimena positibotzat jo zuten erakun-deen eta ekimenera atxikitzea erabaki zuten erakundeen parte-hartzea izango zuela.

2. Prozesu hau honakoek finantzatu dute: Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundia, Arabako Foru Aldundia eta Donostiako Udala.



1. TAULA ZARENSARE-ENREDANDO SAREAREN JATORRIA ETA OSAKETA

ZARENSARE-ENREDANDO SAREA: hasieran “Udalerri etikoen sarea” gisa eratu zen, eta 2009tik jarri ditu komunean esperientziak eta ezagutzak. 2014ko urtarrilean ZarenSare-EnRedando sarearen lehenengo topaketa egin zen, eta gero bigarren topaketa bat egin zen Medellín (2014ko abuztua-iraila), eta hirugarren bat 2015ean. Azken topaketa horretan, sarearen helburu politikoak, funtzionamendua eta ekintzak argitu ziren.

Erakunde hauek osatzen dute: Kolonbiako Corporación para la Vida Mujeres que Crean eta Penca de Sábila Erakunde Ekologiko eta Kulturala; Salvadorreko REDES Fundazioa; Pozokoetxeko auzokide-elkartea, Margotu elkarte, Equipare kooperatiba, Mujeres Aquí y Allí, Mujeres en la Diversidad eta Bizkaiko Sagarrak elkarte ekologista; Donostiako Banda-bat kultura-elkartea; eta SETEM Hego Haizea euskal GGKEa.

2 | ERAKUNDE PARTE-HARTZAILEAK

Lehenago ere esan dugun bezala, indarkeria matxisten eta kontsumoen arteko harremana gutxi aztertu da, eta horregatik, proiektu honen irizpide nagusietako bat zen parte-hartzailea izan zedila. Horrela, hausnartzeko eta ezagutza kolektiboa sortzeko prozesu hau askoz aberatsagoa izango zela erabaki zen, eta horretarako hainbat erakunderen begirada, esperientzia eta iritzia jaso nahi izan genituen. Horregatik, proposamen hau diseinatzeko fasean, hainbat erakunderekin jarri ginen harremanetan, eta ekimen honetan izango zituzten ardurak eta parte-hartzea proiektuak ukitzen dituen gaien inguruan dituzten ezagutzak eta ibilbidea aintzat hartuz zehaztu ziren.

Lehenengo eta behin, eta ekimena Sare gisa gauzatzea erabaki ondoren (hau da, ZarenSare-EnRedando sareko erakunde parte-hartzaileen eta atxikitzea erabaki zuten aliatuen esku-hartzea izango zuela), erakunde horien inplikazio-maila zehaztu zen. Zehazki, batetik, prozesuan zehar lortutako emaitzak egiaztatuko zituzten, eta bestetik, azterlanak ukitzen dituen gaien inguruan duten esperientzia, ikuspuntua eta iritzia komunean jarriko zituzten.

Bestalde, indarkerien eta kontsumoen arloko erakunde adituen babesa izatea beharrezkoa ote zen eztabaidatu zen, prozesu honetan aholkularitza eman zezaten, aztergaia zehazterakoan beren ezagutzak azalduz eta proiekturako esparru interesgarrietara hurbiltzeko jarraibide teorikoak eskainiz. Horretarako, diseinu-fase hartan, SETEMek lau erakunde aliatu eta kiderekin harremanetan jartzea erabaki zuen: Mugarik Gabe, Altekio Iniciativas hacia la Sostenibilidad (Euskadikoa eta Madrilekoa, hurrenez hurren) eta Corporación para la Vida Mujeres que Crean eta Penca de Sábila Erakunde Ekologiko eta Kulturala (Kolonbia)³.

Era berean, ekimen honetan proiektua dinamiza zezakeen eta parte-hartze prozesuak martxan jartzeko eskarmentua zuen erakunde bat sartzeko aukera ere aintzat hartu zen. Hainbat erakunderekin harremanetan jarri ginen arren, azkenean Oreka Sarea Berdintasun, Parte-hartze eta Lankidetzaren enpresarekin lan egitea erabaki genuen, batetik, prozesu hau behar bezala gauzatzeko baldintza teknikoak betetzen zituelako, eta bestetik, SETEMek berdintasunaren alde egin zuen erakunde-aldaketa dinamizatu zuelako, eta horrela, lehenagotik sortu genuen lotura eta lan-esperientzia aprobetxatu genituen.

³. Corporación para la Vida Mujeres que Crean eta Penca de Sábila Erakunde Ekologiko eta Kulturala ZarenSare-EnRedando sarearen kide diren arren, diseinu-fase hartan, egokitzen joan zen prozesuan erakunde aholkulari gisa parte har zezatela, dauzkaten ezagutzengatik eta azterlanak ukitzen dituen gaietan esperientzia handia dutelako.

3 | METODOLOGIA

Orain arte aipatu ditugun erakundeen parte-hartzearen oinarria da proiektuaren diseinu-fase hartan ikerketa-metodologia jakin bat martxan jartzea erabaki zela —ikerketa ekintza parte-hartzailea (IEP)—, baina geroago azalduko dugun bezala, azkenean lan kolektiboa eta erakundeen parte-hartzea sustatzea helburu zuen metodologia bat aukeratu genuen, analizatutako fenomenoaren inguruan neurriak hartzeko eta ekiteko.

Zentzu horretan, azpimarratzekoa da prozesu hau estuki erlazionatuta dagoela ekintzarekin, hau da, prozesuaren emaitzek indarkeria matxistei benetan aurre egiten dien kontsumo-eredu bat eraikitzeko proposamen eta gomendio zehatzak prestatzeko balio beharko dute, SETEMen lana berbideratzeko, baita ZarenSare-EnRedando sareko erakundeena eta aliatuena ere (Iparraldekoak nahiz Hegoaldekoak), eta horregatik, nahitaez hartu behar ziren aintzat gero esku-hartze horiek martxan jarriko zituztenen eskarmentua eta beharrak.

4 | PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA ETA HELBURUAK

JUSTIFIKAZIOA

Indarkeria matxisten eta kontsumoen inguruko literatura aztertzean, argi ikusten da hutsune bat dagoela indarkeria matxisten eta kontsumoen arteko harremanaren gaineko hausnarketan eta ezagutzan bi mailatan:

1. Batetik, kontsumo arduratsuaren esparruarekin erlazionatuta gauden erakundeok ez diegu beti dagokien arreta eskaini generoari eta begirada feministari, eta kasu batzuetan, analisi eta hausnarketa batzuetatik baztertuta geratu dira.
2. Bestetik, erakunde feministek, emakumeenek eta esparru akademikoko feministek indarkeria matxisten esparru teoriko-politikoko proposamenetan eta hausnarketan aurrerapenak egin dituzten arren, ez dira kontzentratu ohiko kontsumo-eredu kapitalistarekin duten loturan, eta are gutxiago kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzailearekin (KKAE) duten loturan. Feminismoetatik eredu ekonomiko kapitalistari egin zaizkion analisiak azpimarratu behar dira, baita generoaren ikuspegitik rol eta estereotipoen inguruan egin diren analisiak ere, sistemako elementu erabakigarriek indartu eta errepikatu egiten dituztelako, hala nola publizitateak. Hala ere, esan dugun bezala, hutsune argia dago indarkeria matxisten eta kontsumoen arteko harremanaren gaineko esparru teoriko eta analitikoetan, baita beren ezaugarri eta ondorioen inguruko ezagutzan eta analisisan ere.

Hausnarketa- eta ezagutza-hutsune hori, prozesuan parte hartu duten erakunde batzuek (Mugarik Gabek eta Corporación Mujeres que Crean erakundeak) adierazi dutenez, emakumeen kontrako indarkeria-mota sofistikatuak eta muturreko bortizkeria ezaugarri dituen testuinguru batean dago. Gaur egun, hainbat mailatan diharduten indarkeria matxistak agerikoak dira eta aski dugu. Zehazki, ZarenSare-EnRedando sareak eta prozesu honetan parte hartu duten erakundeek ikusten dutenez, ohiko kontsumo-moduetan ere islatzen dira.

Horregatik, prozesu hau berritzailea eta garrantzitsua dela uste dugu, eta indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalista arruntaren arteko loturaren ezagutza sakontzeko baliabide edo aukera bat izan zedila pentsatu genuen, baita KKAetik lan egiten duten erakundeek zereginei buruz hausnartzea ere. Azken batean, prozesuak indarkeria matxistarik gabeko KKAE alternatiba berriak sustatu nahi ditu. Esan beharra dago (ez da ahaztu behar) ALDAKETA bultzatzeko baliabide bat bezala ikusten dugula.

HELBURUAK

Dagoeneko esan dugun bezala, prozesu hau SETEMek sustatu du, ZarenSare-EnRedando sareko erakundeetatik eta erakunde aliatuetatik ikuspuntu feminista batean oinarritutako hausnarketa eta eraketa kolektiboa errazte aldera, ekoizpen eta kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzaitetik kontsumoaren gizarte patriarkal eta kapitalistak eratutako egiturazko indarkeria matxistei aurre egiteko.

Prozesuaren **azken helburua**, lehenago esan dugun bezala, ezagutza kolektiboa sortzea da, kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzailearen arloan lan egiten duten erakundeek eta erakunde feministen lana bideratzeko, indarkeria matxistei kontsumo eraldatzaitetik abiatuz helderakoa ikuspuntu feminista behar bezala sartzeko.

Hauek dira prozesuaren **helburu zehatzak**:

- ➔ Ikuspuntu feministatik esparru teoriko bat eskaintzea indarkeria matxisten eta kontsumoaren arteko lotura ulertzeko.
- ➔ Euskal herritarrek indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalista arruntaren arteko harremanari buruz duten pertzepzioa ezagutzea.
- ➔ Euskadin indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalista arruntaren artean dagoen loturaren/harremanaren ezaugarriak zehaztea.
- ➔ Kontsumo tradizionaletik indarkeria matxistak sustatzen eta betikotzen dituzten mailak eta mekanismoak identifikatu eta analizatzea.
- ➔ KKAetik indarkeria matxistak errepikatzea sustatzen duten elementuak identifikatzea.
- ➔ ZarenSare-EnRedando sareko erakundeek arteko baterako hausnarketa bultzatzea, indarkeria matxisten eta kontsumoen harira jarrera bat, norabide bat edo/eta ekintza-sustapen bat zehaztea ahalbidetuz.

5 | AZTERGAIAREN DEFINIZIOA

ZER ANALIZATU NAHI DUGUN ETA NOLA EGIN NAHI DUGUN ZEHAZTERAKOAN AZALDU DIREN MUGAK ETA ZALANTZAK

Esan dugun bezala, honakoa prozesu berritzaile bat da, ibilbide luzea izateko aukera handiak ditu, lehenago ez delako lan handirik egin arlo honetan (guk dakigula, behintzat) eta hausnarketa- eta analisi-eremu zabala delako. Hala ere, prozesu honetan zehar, metodologiaren inguruan nahiz arlo teorikoan azaldu diren hainbat zalantzari eta dilemari aurre egin behar izan diegu, aztergaia definitzen lagundu badigute ere. Zalantza horiek honakoak dira:

→ **NOLA EGINGO DIOGU ERREFERENTZIA ANALIZATU NAHI DUGUNARI?:** prozesuaren hasierako faseetan, gaiari nondik heltzen diogun eta gauza bakoitza nola ulertzen dugun azaltzeko kontzepturik/definiziorik onenak aukeratu genituen. Eta hasieratik ikusi genuen gauza batzuk ez genituela berdin ulertzen, hau da, kontzeptu eta termino batzuek gure pentsamendu zabala hertsatzen dutela eta beste batzuek “gainditu” egiten gaituztela. Zehazkiago, prozesu honetan parte hartzen dugun erakunde guztientzat ikuspuntu komun bat bilatze aldera indarkeria matxisten, kontsumo kapitalistaren eta KKAEaren inguruko definizioak bilatu eta adosterakoan lehenengo zalantza bat azaldu zen:

- ✓ Gure azterlanaren esparruan indarkeriatzat zer jotzen dugun definitzerakoan, **indarkeria matxistak** kontzeptua ala beste kontzeptu posible batzuk (genero-indarkeria, emakumeen kontrako indarkeria edo indarkeria patriarkala) erabiltzeko aukera eztabaidatu genuen. Kontzeptu hori honako arrazoi hauengatik aukeratu genuen: (i) Euskadin sustraituta dagoen kontzeptu bat da (zehazki, Euskal Herriko azken topaketa feministak ere aukeratu zuen, baina singularrean) eta prozesuan esku hartzen duten hainbat erakundek erabiltzen dute; (ii) beste erakunde batzuek erabiltzen dituzten indarkeria patriarkala, genero-indarkeria eta emakumeen kon-

trako indarkeria barne hartzen ditu; (iii) heteronormatiboak ez diren pertsona guztien kontrako indarkeria barne hartu eta analizatzea ahalbidetzen du, ez bakarrik emakumeen kontrakoa, fokua emakumeengan badago ere, emakumeen kontrako indarkeriaren fenomenoaren garrantzia ikusita; (iv) eta, funtsean, indarkeriaren begirada zabala eta egiturazkoa planteatzen duelako, bere kausarik egiturazkoenetan kontzentratuz. Azkenik, aipatzekoa da indarkeria matxistak pluralean aipatzen ditugula forma desberdinei erreferentzia egiteko, indarkeria fisikoaz edo bikotekidearekin edo bikotekide ohiarekin gertatzen denaz haraindi.

- ✓ **Kontsumoari** dagokionez, egokitzen joan zena ZarenSare-EnRedando sarearen esparru teorikoa/kontzeptuala erreferentzia moduan hartzea, adostua baita. Ikuspuntu honetatik, kontsumoak (pluralean) aipatzen ditugunean, batetik, (1) kontsumo kapitalistari egiten diogu erreferentzia, eta, bestetik, (2) kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzaileari (KKAE). Prozesu kolektibo honek bi kontsumo-motak hartu ditu aintzat, baina indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalisten arteko loturaren gaineko ezagutza eta analisi sakonduz; hartara, analisi horren bidez, KKAEtik lan egiten duten erakundeek hausnarketa eta ekintza bideratzeko.

→ **NOLA PLANTEATZEN DUGU INDARKERIA MATXISTEN ETA KONTSUMOEN ARTEKO LOTURA?:** prozesuko kontzeptu erabakigarrienak adostu ondoren, indarkeria matxisten eta kontsumoen inguruko beste zalantza batzuk azaldu ziren, eta zehazkiago, gai hau aztertzerakoan zertan kontzentratu erabakitzearen inguruan. Aztergai zabala denez eta ez duenez ekarpen teoriko garrantzitsurik, hainbat aukera hartu genituen aintzat, hala nola produktu jakin baten ekoizpena eta kontsumo etapetan nolako indarkeria matxistak dauden identifikatzea. Azkenean, planteatu genituen aukera gehienak baztertu egin genituen nahasgarriak eta zabalegiak zirelako, eta guztion artean erabaki genuen indarkeria matxisten eta kontsumoen arteko lotura analizatzea ZarenSare-EnRedando sareko erakundeek lanerako garrantzitsuak diren lau esparrutatik abiatuz. Honako hauek dira:

- ✓ *Elikadura*, oinarritzeko behar bat izanik.
- ✓ *Eстетika (arropa eta kosmetika)*, emakumeen gorputza nola tratatzen den gauza bat bezala eta nolako indarkeria ezartzen zaion behatzeko.
- ✓ *Etxea*, lanaren banaketa sexuala aintzat hartuz.
- ✓ *Mugikortasuna*, kontsumo iraunkorrarekin erlazionatutako esparru bat delako eta egiturazkoagoak diren gai batzuk analizatzeko aukera eman digutelako, hala nola hirien antolamendu-politikak.

- ➔ **ZER METODOLOGIA JARRI NAHI DUGU MARTXAN?:** azkenik, proiektuaren planteamendu metodologikoekin erlazionatutako zalantzak mahaigaineratu ziren. Ikuspuntu honetatik, esan dugun bezala, proiektua diseinatzeko fasean, ikuspegi metodologiko jakin batetik lan egitea erabaki genuen: Ikerketa-ekintza Parte-hartzailetik (IEP). Hasierako faseetan konturatu ginen prozesuaren planteamendua ez zetorrela bat IEP baten berezko zorrotasun epistemologiko, politiko eta metodologikoarekin, eta horregatik, ikasteko eta ezagutza sortzeko prozesu kolektibo bat bezala definitzeko, eta Sareko erakunde guztien parte-hartze informatua sustatu dela kontuan hartuz, Iparraldeko eta Hegoaldeko ikuspegiak eta generoaren ikuspuntua sartzea erabaki genuen.

Bestalde, azpimarratzekoa da hainbat mugarekin egin dugula topo, eta muga horiek aipatu nahi ditugu, apal, zintzo eta arduraz jokatzeko. Hauek dira:

- ➔ Testuingurua ulertzea errealitate bat ulertzeko funtsezkoa dela hartu genuen abiapuntu gisa. Bada, gai honen analisi xehea Euskadiko errealitatera mugatu dugu, baliabide mugatuak dauzkagulako. Horregatik, gero azalduko dugun landa-lana Euskadin egin da bakar-bakarrik. Hau aipatu nahi izan dugu prozesu honetan Kolonbiako hainbat erakundek parte hartu dutelako eta Euskadiz bestelako testuinguru batetik pentsatzen eta ekiten dutelako, baina indarkeria matxisten eta kontsumoen arteko harremanen inguruko “begirada kokatuak” eskainiko dituzte. Zentzu horretan, prozesuaren emaitzak Euskadiko errealitatean izango dira aplikagarriagoak, baina ziur gaude beste toki batzuetan hausnartzen eta gauzak birplanteatzen lagunduko dutela.
- ➔ Gaiaren inguruko hasierako esplorazio bat da, eta ez du, inola ere, bikaintasun akademikoko irizpiderik bete nahi. Hori bai, prozesu osoa eta emaitzak gai hauetan lan egiten ari diren erakundeentzat eskuragarriak eta erabilgarriak izan daitezela ziurtatuz prestatu dira. Helburua da gaia jorratzea, lan egiten jarraitzeko esparru bat ematea eta etorkizunerako hausnarketa- eta ekintza-lerroak identifikatzea.

IKUSPEGI TEORIKOA

ZarenSare-EnRedando sarearen manifestuan adierazi den bezala, sistema kapitalista kontsumoaren gizartean oinarrituta dago eta bere aliaturik handiena sistema patriarkalak ezartzen duen ordena soziala da. Ordena horren ezaugarri nagusiak honakoak dira: lana sexuen arabera banatzen du eta estereotipo matxistak errepikatzen ditu (bere eredu ekonomikorako eraginkorrena dela

ulertzen baitu), emakumeak diskriminatu egiten ditu eta botere-harremanetan gizonak emakumeen eta naturaren gainean jartzen ditu.

Bada, sistema kapitalista eta sistema patriarkala uztartuta daudela esan daiteke, eta beren baliabiderik oinarritzkoenak dira naturaren eta pertsonen (zehazkiago emakumeen) ustiapena eta indarkeria.

Errealitate hori ikusita, ondoren azalduko dugu zein izan diren prozesu osoaren elementu teorikoak:

- ➔ **Iraunkortasuna ardatz** gisa hartzen duen ikuspuntu feminista batek abiatu gara. Horrek esan nahi du kapitala pilatzearen logikaren eta familiaz arduratzearen logikaren artean dagoen gatazka soziala azaldu behar dela. Ikuspuntu hau alternatiba bat da egiturazko aldaketa bat lortzeko, ekoizpena, zirkulazioa, banaketa eta kontsumoa zuzen, berdintasunez eta iraunkortasunez eta pertsonen zerbitzura antolatzeko.
- ➔ Johan Galtung-ek aipatu zuen **indarkeriaren triangelu zoroak** (feminista batzuek dagoeneko aztertu eta erabili dute) indarkeria matxistek zer mailatan diharduten nabarmendu eta analizatzeko aukera eman digu, baita mailen arteko harreman konplexua aztertzeko ere (nolanahi ere, indarkeria matxistak ez dira bestelako indarkeria batzuekin nahastu behar). Ikuspegi honetatik patriarkatuak indarkeria zuzena, egiturazkoa eta kulturala triangelu zoro batean nahasten dituela ulertzen da. Batak besteak indartzen ditu, triangeluaren edozein angelutan hasten diren ziklotan. Zuzeneko indarkeriak, hala nola norbait bortxatzeak, beldurtu eta zapaldu egiten du; egiturazko indarkeriak, berriz, instituzionalizatu egiten du; eta indarkeria kulturalak harreman hori barneratzen du.
- ➔ **Kontsumoari** dagokionez, kontsumo-eredu kapitalistaren aurrean, kontsumo kritikoa, arduratsua eta eraldatzailea (KKAE) hartu da erreferentzia moduan. Setemek sortu zuen kontzeptu bat da, eta Setemen definizioaren arabera, kontsumoa kontzientea, arduratsua eta eraldatzailea dela esan daiteke zerbait erosteko edo ez erosteko erabakiak gizartearen aldaketa bat sustatzen badu eta produktuak eta zerbitzuak aukatzerakoan beren kalitatea eta prezioa kontuan hartzeaz gain, irizpide etikoak, kulturalak, sozialak eta ingurumenarekin lotutakoak ere aintzat hartzen baditu eta azkenean produktu eta zerbitzurik bidezkoenak eta iraunkorrenak erostea bultzatzen badu⁴.
- ➔ Azkenik, hausnartzeko eta ikasteko prozesua erraztu duen beste ikuspuntu teoriko bat zehaztu nahi dugu: **sekzio-artekotasuna**. Honela definitu da: “zapaltzeko egitura asko eta aldiberekoak dituen sistema konplexu bat” da, eta bertan, sexuaren, arrazaren/etniaren, adinaren, joera sexualaren eta beste faktore batzuen (hala nola pobrezia) ondoriozko diskriminazioek elkarrekintzan dihardute, eta horrek askotariko indarkeria-mailak eta -adierazpenak barne hartzen dituen kontinuum bat sortzen du⁵.

4. KKAEaren definizioa oraindik eztabaidatzen ari da ZarenSare-EnRedando sarean, hau da, ez da kontzeptu itxi eta bukatua.

5. Patricia Muñoz Cabrera (2011). *Violencias Interseccionales Debates Feministas y Marcos Teóricos en el tema de Pobreza y Violencia contra las Mujeres en Latinoamérica*. Central America Women's Network (CAWN).

GAI INTERESGARRIAK, GEURE BURUARI EGIN DIZKIOGUN GALDERAK ETA DITUGUN HIPOTESIAK

Prozesuan parte hartu duten erakundeekin trukeak eginez, **intereseko hainbat gai** identifikatu genituen, hots:

1. Sexua-generoa-sexualitatea eskemak kontsumoa bultzatzen duen publizitatean duen eragina. Publizitateak familia-eredu tradizionalak eta balio patriarkalak sustatzen ditu, dibertsitatea ezkutatzeko du eta emakumeen gorputza kontsumitzeko eta botatzeko gauza bat bezala tratatzen du.
2. Indarkeria ekonomikoak, eta logika kapitalistatik emakumeak nola baztertzen diren (emakumeen erosahalten txikiagoak zailago egiten du saltzen den eta kontsumoaren bidez lortu nahi duen estatusa lortzea).
3. Jauzi digitala eta informazioaren eskuragarritasuna eta kontrola kontsumora begira.
4. Emakumeen gehiegizko medikalizazioa kontsumoaren bitartez.
5. Produktu “kutsatu”en kontsumoa, eta horrek emakumeen eta gizonen gorputzean duen eragina, ingurumena kaltetzen duen kontsumo-eredu batean (horrek, batzuetan, eragin desberdinak ditu emakumeentzat eta gizonentzat).

Azkenik, guztiak gai interesgarri eta garrantzitsutzat jotzen ditugunez, bat ere ez lehenestea erabaki genuen, hau da, prozesua hausnarketa orokorrago batera bideratzea, jorratu nahi genuen gaia neurri handi batean delako ezezaguna eta fenomenoaren errealitate zabala nabarmentzen duen eta esparrua eta ikuspegia zehazten dituen hausnarketa batekin hasi behar genuelako, gero alderdi zehatzetan sakondu ahal izateko.

Bada, gai hauek hausnarketa-galdera batzuk bidera zitzaketela erabaki genuen, eta prozesuaren une eta esparru desberdinetan mahaigaineratu ahalko zirela.

Azalduz joan diren **galdera** zehatzei dagokienez, hemen jaso nahi izan ditugu, baina ezin izan diegu guztiei erantzun, baliabide eta denbora mugatuak izan ditugulako. Honakoak izan dira:

- ➔ Euskal gizarteak zer uste du dela indarkeria matxista?
- ➔ Euskal gizarteak ba al daki kontsumo-eredu kapitalista arruntean indarkeria matxista badagoela?
- ➔ Zer mekanismorekin baliatzen edo betikotzen da indarkeria matxista kontsumo kapitalistatik?
- ➔ Kontsumoaren bitartez zer gizon- eta emakume-eredu eta haien arteko zer harreman-eredu transmititzen dira?
- ➔ Eguneroko zer kontsumo-ohiturak betikotzen dituzte indarkeria matxistak?
- ➔ Pertsonen bizitzan zer ondorio ikus ditzakegu?
- ➔ Zer estrategia sustatu beharko litzateke herritarren artean indarkeria matxistarik gabeko KKAE bat bultzatzeko?
- ➔ Sektore honetan lan egiten dugun erakundeetatik zer egin dezakegu indarkeria matxista horiek ez errepikatzeko?

6 | PROIEKTUAREN GARAPENA

PROIEKTUA BULTZATZEKO SORTUTAKO EGITURAK

Dagoeneko esan dugun bezala, prozesu honetan hainbat erakundek esku hartu dute. Beren parte-hartzea errazteko, hainbat lan-egitura sortu dira:

6. Altekio, Iniciativas hacia la Sostenibilidad enpresa sozial bat da, prestakuntza-jarduerak, ikerketa eta esku-hartze proiektuak, proiektuen diseinua eta erakunde publiko eta pribatuentzako aholkularitza eskaintzen ditu, eta erakundeentzat prozesuak errazten ere lan egiten du, iraunkortasunaren horizontea aintzat hartuz bere alderdi guztietan: ingurumena, komunitate-garapena eta gizarte-ekonomia.

7. Mugarik Gabe euskal GGKE bat da, eta denbora luzea darama indarkeria matxisten inguruko gaiei buruz hausnartzen eta gai hori jorratzen. Gainera, erreferentia da gai honetan Euskadiko eta estatuko GGKE-en artean.



2. TAULA PROIEKTUA BULTZATZEKO SORTUTAKO EGITURAK

- > **TALDE SUSTATZAILEA**, SETEMek eta Oreka Sareak osatu dute, eta prozesua sustatu eta errazteaz arduratu da.
- > **AHOLKULARITZA-TALDEA**, SETEMek, Oreka Sareak eta Altekio⁶ eta Mugarik Gabe⁷ osatu dute (azken biak SETEMen aliatuak dira). Aholkularitza-taldea aholkularitza teorikoaz arduratu da prozesuan zehar, baita metodologiaz ere.
- > **JARRAIPEN-BATZORDEA**: ZarenSare-EnRedando sareko erakundeek osatu dute, prozesu honetan esku hartzeko gonbidapena onartu dutenek, zehazki, Euskadikoek, baita Kolonbiako Penca de Sábila eta Mujeres que Crean erakundeek ere. Jarraipen-batzordea prozesuaren hainbat unetan aktiboki parte hartzeaz arduratu da, ekarpenak eginez eta aurrerapenak eta emaitzak erakundeen barruan komunean jarritz.

PROZESUAREN FASEAK ETA APLIKATUTAKO METODOLOGIA

Jarraian, proiektuaren faseak deskribatuko ditugu:

- **Prozesuaren egiturak definitzea:** proiektuaren lehenengo pausoa izan da prozesuarekin bat egin duten erakundeen parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzea ahalbidetu duten lan-egiturak eratzea, bakoitzaren konpromisoak eta erantzukizunak zehaztuz. Horretarako, hiru talde osatu dira: Talde sustatzailea, Aholkularitza-taldea eta Jarraipen-batzordea. Esparru bakoitzean parte hartu duten erakundeak eta onartu dituzten erantzukizunak 4.1 “Prozesua bultzatzeko sortutako egiturak” puntuan aipatu dira.
- **Azterketa-esparrua eta metodologia kolektiboki zehaztea:** bigarren fasean, azterketa-esparrua eta metodologia definitu dira. Bagenekienez aztergaia zabala dela (hala eduki aldetik, nola ikuspegi aldetik), gure lehenengo eginkizuna izan zen zer analizatu nahi genuen, nola egingo genuen eta zer tresna erabiliko genituen definitzea. Horretarako, hasieran, Talde sustatzaileak bibliografiarik garrantzitsuena berrikusi zuen, eta gainerako erakunde parte-hartzaileei azaldu zien. Haiek aztergaiaren lehenengo hurbilketa hori osatu zuten, beste eduki eta bibliografia-iturri batzuk azalduz. Jarraian, hainbat lan-esparru egituratu ziren aztergaia zehaztu eta mugatzeko. Hasteko, “indarkeria” eta “kontsumo” terminoen definizio adostu bat bilatu genuen, gune komun bat abiapuntu gisa izatea beharrezkoa iruditu zitzaigulako, eta horretarako, guztiok identifikatuta sentitzeko moduko terminoak adostu nahi genituen. Denbora joan ahala, indarkeria matxisten eta kontsumoen arteko harremanetan aurrerapausoak eman genituen prozesuko erakundeentzat bereziki garrantzitsuak diren lau esparru aztertuz. Esparru horiek lehenago ere aipatu ditugu: elikadura, mugikortasuna, etxeko produktuak eta publizitatea. Lau horiek indarkeria matxisten eta kontsumoen arteko harremanari heltzea ahalbidetzen duten eremu bakarrak ez diren arren, horietan kontzentratzea erabaki genuen, bereziki interesgarriak zirelako ZarenSare-EnRedando sareko erakundeentzat.
- **Feminismoa eta kontsumoa analizatzeko tailerrak (ZarenSare-EnRedando sareak):** dagoeneko adierazi dugun bezala, prozesu honek aztergaiaren inguruko ibilbide, eskarmentu eta ezagutza desberdinak dituzten erakundeen parte-hartzea izan du. ZarenSare-EnRedando sareko erakundeen kasuan, feminismoen eta kontsumoen inguruko analisi- eta prestakuntza-saioak egitea beharrezkotzat jo zen, esparru horietako eza-

gutzak “berdintzeko” eta, horrela, hausnartzeko eta ezagutza kolektiboa sortzeko baliabide teoriko eta praktiko handiagoak eskaintzeko. Bilera horiekin, era berean, erakundeek ikerketaren aurrerapenak egiaztatu ahal izan zituzten (planteamendu teorikoak, metodologia, etab.) eta uneoro sartu ahal izan ziren haien iritzia eta pertzepzioa. Tailerrak proiektuaren une erabakigarrietan gauzatu dira, hau da: aztergaia definitzean, esparru teorikoa prestatzean eta lortutako emaitzetatik abiatuz diseinatu den ekintza-plana prestatzean.

- **Kontzeptu-esparruaren garapena:** aztergaiaren arloa definitu ondoren, eta lehenago aipatu ditugun zalantzak argitu ondoren, indarkeria matxisten eta kontsumoen arteko harremana nabarmendu genuen, baita azaldu dugun esparru teorikoa prestatu ere, erakunde partaide guztien artean hautatu eta adostu ziren lau esparru zehatzak analizatuz. Hori guztia prozesu pedagogiko eta politiko argi bat izan da, eta bertan, prozesu hori oinarritzen duten kontzeptu eta proposamen teoriko-argigarriak zehaztu dira.
- **Landa-lana:** prozesuaren pieza erabakigarri bat izan da indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren azterketa/diagnostikoa. Euskadin egin zen, bi helbururekin: (i) euskal herritarrek indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalista arruntaren arteko harremana nola ikusten duten jakitea, eta (ii) indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalista arruntaren arteko loturaren/harremanaren ezaugarriak zehaztea. Horretarako, merkatuaren azterketen arloan aditua den ADIMEN enpresaren zerbitzu profesionalak kontratatu genituen. Enpresa horrek egin du landa-lana. Alegia, honakoa egin du:
 - ✓ **Elkarrizketak eta foku- edo eztabaida-taldeak:** indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko harremanaren ezaugarriak zehazteko, hasieran sakoneko elkarrizketa erdi egituratuak egin dira (hainbat informatzaile garrantzitsurekin, ikerketa-galderetan oinarrituz prestatutako galdetegi batekin). Zehazkiago, aholkularitza-taldeak proposatutako erakunde / organismoen / elkartearen ordezkariak elkarrizketak egin zaizkie kontsumo kapitalistako indarkeria matxistaren egoera zehatzak zein diren zehazten sakontzeko eta egoera horiek zehazten dituzten dimentsio kualitatiboak eta sinbolikoak analizatzeko. Bestalde, 2 eztabaida-talde egin dira emakumeekin, eta informazioa alderatzeaz gain, ikerketarako hainbat alderdi garrantzitsutan sakontzea ahalbidetu dute.
 - ✓ **CATI (Computer Assisted Telephone Interview) gisako inkesta telefonoz,** herritarrei zuzenduta, oro har. Inkestarekin, datu kuantitatiboak bildu nahi izan dira euskal herritarrek indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalista arruntaren arteko harremanari buruz duten pertzepzioari buruz. Informazioa jasotzeko tresnak

eta, zehazkiago, inkesta definitzen aurrerapenak egiteko, Aholkularitza-taldeak kontsumoko lau esparru proposatu ditu behatzeko eta herritarrei indarkeriaren inguruko beharren, ohituren eta pertzepzioen inguruko galderak planteatzeko. Gogoan izan behar da kontzeptu-esparruan aukeratu diren eta erreferentzia gisa hartu diren kontsumo-esparruak honakoak izan direla: elikadura, etxeko produktuak, estetika eta mugikortasuna.

- ➔ **Proposamenak prestatzea:** landa-lanaren emaitzak aztertu ondoren, eta prestatutako esparru teorikoarekin egiaztatu eta gero, indarkeria matxistei aurre egiten dien benetako kontsumo-eredu bat eraikitze-ko proposamenak eta gomendioak dokumentu batean jaso ziren, SETEMen, ZarenSare-EnRedando sareko erakundeek eta erakunde aliatuen lana berbideratzeko erabiltzeko. Prozesu honekin, indarkeria matxisten eta kontsumoaren esparruan egiten ari den lanerako aplikagarritasun praktikoa duten jakintza zehatzak lortu ahal izan dira.
- ➔ **Prozesuaren sistematizazioa eta jendaurrean aurkeztea:** prozesuaren azken fasean dokumentu bat prestatu zen. Bertan, esparru teorikoa, landa-laneko emaitzak, sarearen hausnarketak eta aldaketa lortzeko proposamenak jaso dira, eta aldi berean, prozesuan zehar azaldu diren eztabaidak eta uneak sistematizatzen ditu. Azkenik, prozesua jendaurrean aurkeztea aurreikusi da, lortu diren emaitzen berri emateko gai hauetatik hurbilen dauden sektoreetan eta, zehazkiago, indarkeria matxisten eta kontsumoen esparruan esku hartzen duten erakundeekin ar-
tean.

PROIEKTUA GAUZATU BITARTEAN EGIN BEHAR IZAN DIREN DOIKUNTZAK

Prozesu honen zailtasunagatik ezinbestean birplanteatu behar izan ditugu alderdi metodologiko batzuk. Batetik, esan dugun bezala, proiektua diseinatzekoan Ikerketa-ekintza parte-hartzailean oinarritutako metodologia-ikuspegi batetik abiatuz lan egitea erabaki genuen, baina azkenean, *ikasteko eta ezagutza sortzeko prozesu kolektibo bat bezala definitzea eta Iparraldeko eta Hegoaldeko ikuspegiak eta generoaren ikuspuntua sartzea erabaki genuen, ZarenSare-EnRedando sareko erakunde guztien parte-hartze informatua sustatu dela kontuan hartuz.*

Bestalde, prozesuan esku hartu duten erakunde batzuen parte-hartzea doitu behar izan dugu, proposamena diseinatzekoan adostu zen inplikazio-maila ezin izan zelako bete. Alegia:

- **Penca de Sábila eta Mujeres que Crean erakunde kolonbiarren parte-hartzearen doikuntza:** gogoan izan behar da proiektua diseinatzean egokitzen jo zela erakunde kolonbiarrek (Penca de Sábila eta Mujeres que Crean) ZarenSare-EnRedando sareko kideak izan arren Aholkularitza-taldean parte har zezatela, aztergaien inguruan ibilbide luzea eta ezagutza handia dituztelako. Azkenik, bi erakundeek Jarraipen-batzordean esku hartuz parte hartzea erabaki zuten, Aholkularitza-taldean parte hartzeko adina eskulan eta baliabide ez zutelakoan.
- **ZarenSare-EnRedando sarearen parte-hartzearen doikuntza:** proiektua diseinatzean ekimenean parte hartzea erabaki zuten erakunde guztiek azkenean esku hartu duten arren, azpimarratzekoa da formulazio-agirian erakunde horien parte-hartzea sustatzeko hainbat esparru antolatzea pentsatu zela (prestakuntza-tailerrak, alderatze-bilerak, etab.). Egia da prozesuaren hainbat unetan egin direla gaiak elkarrekin egiaztatzeko eta hausnartzeko bilerak, baina ez dira izan hasieran aurreikusi ziren beste. SETEMetik identifikatu diren eta hausnartzeko eta parte-hartze kolektiborako une gehiago izatea mugatu duten arrazoi artean, aipatzekoa da sareko erakunde gehienek langile boluntarioak dituztela, eta horregatik, beti ezin izan dira aurkitu prozesuarekin jarraitzeko sortu diren eremu fisikoetan parte hartuko zuten pertsonak. Bestalde, SETEMek uste du prozesua erakundeekin haien gaitasunak kontuan hartuz diseinatu izan balitz haien beharretarako metodologia egokiagoarekin diseinatuko ziratekeela.

Aholkularitza-taldean parte hartu duten erakundeei dagokienez, SETEMek balorazio bereziki positiboa egin du, beren inplikazioa eta parte-hartzea prozesuaren beharretara egokitu direlako, eta hasieran pentsatutakoa baino handiagoa izan da.

Azkenik, azpimarratzekoa da alderdi metodologiko batzuk doitu behar izan diren arren ez dutela prozesua oztopatu; aitzitik, ikasteko aukera gisa osatu dira, etorkizunean ekimen parte-hartzaileak martxan jartzeko.

7 | PROZESUAREN BALORAZIOA

Parte-hartzea prozesu honen ezaugarri nagusietako bat izanik, egokitzen jo da aholkularitza-taldean esku hartu duten erakundeei galdetzea ea nola baloratzen duten egin den lana.

Alderdirik positiboenei dagokienez, lan kolektiboaren aldeko apustua nabarmendu dute batik bat, erakundeen artean loturak eta hurbilketa- eta lankidetzagiroa sortzea ahalbidetu duelako. Era berean, parte-hartze bidezko metodologiaren alde apustu egin izanak ikuspegi eta begirada desberdinak eta osagarriak izatea ahalbidetu du, eta horrek, zalantzarik gabe, egin dugun analisia aberastu du eta garrantzitsutzat jotzen ditugun hainbat alderditan sakontzeko aukera eman digu. Are gehiago, prestatu dugun esparru teorikoa, gure ustez, lehenengo hurbilketa bat da (zalantzarik gabe garrantzitsua), indarkeria matxisten eta kontsumoen arteko lotura finkatu eta nabarmentzeko.

Bestalde, oso positibotzat jo dugu prozesuaren dinamizazioa, aurreikusitako lanak gauzatzea erraztu duela uste dugulako. Zehazkiago, prozesuaren malgutasuna eta parte-hartzaileen agendetara egokitzea ezinbestekoak izan dira haien parte-hartzea bultzatzeko.

Hobetu beharreko alderdiei dagokienez, garrantzitsua da esatea denbora nahiko ondo antolatu den arren egian esan azken fasean kronograma “estua” izan dugula eta une horretarako aurreikusitako eginkizunak batik bat telematikoki gauzatu behar izan direla. Gainera, hobetu beharreko alderdien artean aipatu da ZarenSare-EnRedando sareko erakundeen parte-hartzea erraztu behar dela, proiektuarekiko grina handia erakutsi duten arren beti ezin izan dutelako parte hartu hasieran aurreikusi zen adina.

Prozesua baloratzeko, erakundeei galdetu zaie ea zer alderdi aldatuko lituzketen atzera itzuli ahalko balute. Galdera honi erantzunez, erakunde batek azaldu zuen interesgarria izango zatekeela indarkeria matxisten eta kontsumoaren arloko prestakuntza zehatza duten pertsona batzuen parte-hartzea izatea, horrelako norbaitek lantaldeetan parte hartu izan balu bereziki erabilgarria izango zatekeelako aztergaia eta gero egin den landa-lana zehazteko. Gainera, prozesuaren alderdi metodologikoekin erlazionatutako aldaketa batzuk ere aipatu zituzten, informazioa jasotzeko aukeratu ditugun tekniken ingurukoak, batik bat. Landa-lana indarkeria matxisten eta kontsumoen arteko harremana analizatzeko garrantzitsutzat jotzen dugun arren, gure ustez interesgarria izango zatekeen item edo/eta galdera batzuk egokiago zehaztea,

lortu diren datu batzuek aurreikusten zailak ziren faktore jakin batzuen eragina izan dutelako. Era berean, lortu diren emaitzek aplikazio sektorial asko dituztelakoan gaude. Horregatik, interesgarria izango zatekeen beste esparru batzuekiko harremanak bideratzea (kontsumitzaile-elkarteak, publizitate sexista, etab.) gauzatu dugun analisia hobekiago zehazteko.

Azkenik, erakundeei prozesu honetan parte hartuz zer ikasi duten galdetu diegu. Berriro aipatu dute lan kolektiboaren aldeko apustua ikasi den gauzarik garrantzitsuenetako bat dela. Zalantzarik gabe, sortu diren lan-eremuak prozesuan parte hartu duten pertsona guztientzat ikasteko aukera garrantzitsuarekin eratu dira. Gainera, komunikazio-kanal irekiak eta ongi planifikatuak ezartzea ezinbestekotzat jo da sortuz joan diren informazioa eta hausnarketa erakunde parte-hartzaile guztiekin komunean jartzeko.

Horregatik guztiagatik, erakundeek prozesua positiboki baloratu dute, zalantzarik gabe. Gure ustez, parte-hartzaile guztien konpromisoa eta ibilbidea eta sortu duten giro ona erabakigarriak izan dira prozesu hau hain modu eraginkorrean gauza zedin.

8 | HURRENGO URRATSAK

Prozesuaren azken helburua, lehenago esan dugun bezala, ezagutza kolektiboa sortzea da, kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzailearen arloan lan egiten duten erakundeek lana bideratzeko eta indarkeria matxistei kontsumo eraldatzailatik abiatuz heltzerakoan ikuspuntu feminista behar bezala sartzeko. Ikuspuntu honetatik, lortu diren emaitzek ZarenSare-EnRedando sareko erakundeek lana bideratzeko balioko dute eta prestatu den gida erabilgarria izango da esparru horietan martxan jartzen diren esku-hartzeak perspektiba metodologiko eta teoriko batetik doitzeko. Gainera, sare batean sartuta daudenez, beren esperientziak komunean jarri ahalko dituzte, proiektu honek kanpoan nahiz erakunde horien barruan izan dezakeen eragina bultzatzeko.

Bestalde, emaitzak herritarren artean ezagutzera emango dira, eta zehazkiago, gai hauetan lan egiten duten sektoreen artean, indarkeria matxistarik gabeko esku-hartzeetan aurrerapausoak eman ahal izateko jarraibideak eskaintzeko.

Azkenik, gure ustez, egin dugun hausnarketa eta landu dugun ezagutza kolektiboa bereziki eredugarriak izango dira sakonki jorratu ezin izan ditugun alderdi batzuetan sakondu nahi duten erakundeentzat. Horregatik pentsatzen dugu bereziki erabilgarria den eta ibilbide-aukera ugari dituen hausnarketa-esparru bat ireki dugula.



2

Esparru teorikoa

1 | GURE BEGIRADA ZEHAZTUZ

Gure prozesu kolektiboa indarkeria matxisten eta kontsumoen arteko harremanaren inguruko hausnarketan eta analisisian kontzentratu da, esparru teoriko honetan kontsumo kapitalista ardatz gisa hartuz⁸. Indarkeria matxistak, gure ikuspuntutik, emakumeak edo eredu heteronormatiboekin bat ez datozen edozein pertsona edo harreman diskriminatzeko, baztertzeko, menperatzeko eta zapaltzeko ekintza guztiak dira, hau da, azkenean haien askatasunean, duintasunean, segurtasunean, intimitatean eta egoera moral edo/eta fisikoa eragin negatiboa dutenak (Almirón Prujel, 2009). Kontsumo kapitalistatzat jotzen dugu sistema kapitalista mantentzen duena eta kapitalismoaren irabazi-pilaketaren logikarekin bat datozen kontsumitzaileak sortzen dituen.

Indarkeria matxistak denbora luzeegian egon ziren ezkutatuta eta isilarazita, XX. mendeko 80ko eta 90eko hamarkadetara arte ez ziren hasi indarkeria horien azalpenak azaleratzen, hasieran mugimendu feministen eskutik eta gero indar publikoen aldetik. Hala ere, indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko harremana ia-ia aztertu gabe geratu da. Zentzu horretan, indarkeria matxistek gaur egun duten aintzatespena ikusita, nahitaezkoa da analisi sakonago bat egitea, oraindik aztertu ez diren alderdiak ikusteko. Bada, hausnarketa eta ikaskuntza kolektiboko prozesu honetan parte hartzen duen erakunde batek zioenez, “oso katu isil bati txintzarri bat jartzen” saiatuko gara.

Alegia, martxan jarri dugun hausnarketa- eta ikaskuntza-prozesu kolektiboak indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko harremana nabarmentzea, ulertzea eta azaltzea izan du xede, baita errealitatea aldatzeko alternatibak proposatzera ere, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen eta bideratzen duen kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzailearen (KKAE) bitartez, zehazki. Horregatik, prozesu pedagogiko eta politiko argi bat izan da, eta bertan, prozesu hori oinarritzen duten kontzeptu eta proposamen teoriko-argigarriak zehaztu behar ditu.

Horrela, kontzeptu eta planteamendu batzuk aukeratu ditugu, eta esparru akademiko eta aktibistetan eztabaidagai direla dakigun arren, ez dute eztabaidak ixtea helburu, errealitateari nondik begiratzen diogun eta nondik analizatzen dugun zehaztea baizik. Epistemologia feministak adierazten duenez, errealitateari nondik heltzen eta begiratzen diogun zehaztea nahitaezkoa da gaiari zintzotasunez eta kokatuta heltzeko: errealitatea nola aipatzen dugun erabakigarria da gauza batzuk edo beste batzuk nabarmentzeko.

⁸ Gure prozesuan kontsumoaK (pluralen) aipatzen ditugunean, bate-tik, (1) kontsumo kapitalistari egiten diogu erreferentzia, eta, bestetik, (2) kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzaileari (KKAE). Garrantzitsua da azpimarratzea kontsumo kapitalista aipatzen dugunean kontsumo amorratuari, harrapariari, bizitzaren kontrakoari eta desberdintasunak eragiten dituenari buruz ari garela. Gure egunerokotasunean ikusten dugun kontsumo ez-kritiko bat da eta guk planteatzen duguna da kontsumo hori bereiztea eta horren ordez KKAEra jotzea. Prozesu kolektibo honek bi kontsumo-motak hartu ditu aintzat, baina indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalisten arteko loturaren gaineko ezagutzen eta analisisan sakonduz, analisi horren bidez KKAEtik lan egiten duten erakundeen hausnarketa eta ekintza bideratzeko. Hain zuzen ere, Euskadin gauzatu diren esparru teorikoa eta diagnostikoa indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko harremanetan kontzentratu dira, KKAEarekin duten harremana sakonki jorratu ezinik. KKAEak bestelako eredu sozioekonomiko baten alde egiten du apustu, gizakion beharrei erantzuteko. Analisi-eta hausnarketa-eremu garrantzitsu bat dela uste dugu, eta beste erakunde eta pertsona batzuek eremu hori jorratzea eta sakontzea espero dugu.

ORDUAN, NONDIK BEGIRATZEN ETA AIPATZEN DUGU ERREALITATEA?

- a. Feminismotik, bai, baina feminismoaren (edo feminismoen, pluralean) barruko joera desberdinetako ikuspegiak eta kontzeptuak onartuz. Batzuk kontraesankorrak ere izan litezkeen arren, nahiago izan dugu prozesu honetan parte hartu dugun erakundeen artean erabiltzen ditugun ikuspegi eta kontzeptuen aniztasuna nabarmendu, joera batzuek eta beste batzuek ematen dizkiguten ñabarduren alde apustu egin eta jarra malgua izan kasu askotan joera baten edo bestearen arteko mugak errespetatu gabe.
- b. Sexua-generoa-sexualitatea eskema zalantzan jarritz, “egitura biologikotik jokabide sexualera” heteronormatibitatearekin bat ez datozen gorputz guztien kontra indarkeriaz erantzuten duen sistema dikotomiko eta hierarkiko bat (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2014).
- c. Sekzio-artekotasunetik⁹, hau da, generoa ezin dela ikuspuntu bakarretik ulertu onartuz, emakumeek jasaten dituzten zapalkuntzen aniztasuna eta aldi berekotasuna eta haien arteko desberdintasun eta desberdinkeria handiak ulertzeko beste botere-harreman batzuekin (arraza, maila soziala, etnia, adina...) uztartuta dagoela jakin behar delako. Perspektiba honek, bada, zapalkuntza-sistemen hierarkizazioarekin amaitzea ahalbidetzen digu, baita desberdinkeria-esperientzien konplexutasuna ulertzea eta kolektibo desberdinei modu desberdinean eragiten dieten faktoreak gurutzatzean (maila soziala, etnia, adina, dibertsitate funtzionala, genero-identitatea eta identitate sexuala, migrazio-estatusa, orientazio sexuala, etab.) sortzen diren desberdinkeriak nabarmentzea ere, bestela ezkutatuta geratuko lirakeelako.
- d. Indarkeria matxisten ikuspegi sozial eta zabal batetik (maila, mota eta adierazpen desberdinak identifikatzeko eta zuzena eta ikus daitekeena gainditzea ahalbidetzeko modukoa), sarritan isilarazita eta, ondorioz, naturalizatuta geratzen diren indarkeria matxista guztiak analizatzeko. Era berean, familia-, gizarte-, politika- eta kultura-eskemen barruan garatzen den fenomeno konplexu, zabal, larri eta orokor bat bezala ikusten ditugu.
- e. Emakumeak (zehazki indarkeria matxistak gehien eta zehazkiago jasan dituzten eta jasaten dituzten pertsonak direlako) “berez” beste subjektu batzuekiko desberdin gisa erakusten dituen begirada feminista batetik. Era berean, ez da ezkutatu behar prozesu honetan parte hartzen duten

9. Patricia Muñoz Cabrerak (2011) adierazten duenez, “sekzio-artekotasun” terminoa 1995ean sortu zuen Kimberlé Williams Crenshaw lege-arloko aditu afro-estatubatuarrek. Beraren definizioaren arabera, “ugari eta aldi berekoak diren zapalkuntza-egituren sistema konplexu bat” da. Crenshaw-en ustez, sekzio-arteko menpekotasuna, sarritan, dagoeneko badauden beste zapalkuntza-mekanismo batzuekin elkarrekintzan ari zanean desjabekuntza-dimentsio berri bat sortzen duen diskriminazio-faktore baten ondorioa da. Sekzio-artekotasunari buruz gehiago ikertzeko, Muñoz Cabrera, Patricia (2011) eta AWID (2004) gomendatzen ditugu.

erakundeak emakumeak (beste subjektu diskriminatu eta zabaldu batzuen gainetik) beren analisiaren erdigunean ikusteko, begiratzeko eta jartzeko begirada entrenatuarekin iritsi direla prozesu honetara.

- f.** Bizitzaren iraunkortasunetik; izan ere, irabazi ekonomiko indibidualak lortzean kontzentratuta egon beharrean gizakion eta izaki bizidun guztion beharretan kontzentratuta dagoen antolamendu sozioekonomiko berri bat ikusteko aukera ematen digu. Ikuspuntu hau alternatiba bat da egiturazko aldaketa bat lortzeko, ekoizpena, zirkulazioa, banaketa, kontsumoa eta botatzea zuzen, berdintasunez eta iraunkortasunez eta pertsonen eta naturaren zerbitzura antolatzeko.
- g.** Kontsumoen ikuspegi sozial eta zabal batetik, kontsumoa arau sozialen eta ohituren eragin handiagoa duen jokabide sozial bat bezala ulertuz, eta ez hainbeste norberak nahita eta arrazionalki hartutako erabakien eraginpekoa, ikuspegi sozial batetik aztertu behar dela kontuan hartuz.
- h.** Hausnarketa-prozesu kolektibo honetan kontsumoan kontzentratu garen arren, gaia osotasunean ulertzeko hainbat etapa dituen kate baten parte gisa hartuz analizatu behar da (ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena, banaketa, zirkulazioa, bereganatzea, kontsumoa eta botatzea), sistema kapitalista indartzen duten botere-harremanek etengabe dihardutela konatuan hartuz, eta kontsumitzeko moduak eta merkataritzako transakzioak eta trukeak legitimatzen dituzten erakunde, arau eta politika nazionalak eta mundu-mailakoak oinarri dituztela ikusita.

Alderdi garrantzitsu pare batek esparru teoriko honen prestakuntza markatu du, eta uste dugu planteatu, desbideratu eta ahaztu ditugun gauza batzuk ulertzen lagunduko digutela:

- ➔ Kontsumo kapitalistaren esparruan indarkeria matxisten eta genero-diskriminazioaren arteko bereizkuntza lausoa eta nahasia iruditu zaigu. Horren harira, lehenago esan dugun bezala, indarkeria matxisten kontzeptu zabal bat hartzea erabaki dugu, genero-diskriminazioen erarik muturrekoena dela ulertuz. Antígona Ikerketa-taldearen zuzendari Encarna Bodelón-ek azaltzen duenez (Rodríguez Luna eta Bodelón, 2011), emakumeen kontrako indarkeriak patriarkatuaren adierazpena dira, baita emakumeak baztertzten dituzten gizarte-jokabideenak ere. Esparru teoriko honetan, indarkeria matxisten gaineko begirada feminista zabal eta ireki bat berreskuratu nahi izan dugu, bata eta bestea hertsiki bereiziz analisitik kanpo geratu ahalko liratekeen alderdiak ikusi ahal izateko.

- Esparru teoriko hau kontsumo kapitalistaren barruko indarkeria matxisten analisian kontzentratzen da, baina kontsumo-mota guztiei begirada feminista kritiko zabal bat aplikatu nahi izan gabe. Badakigu hausnarketa- eta ekintza-esparru garrantzitsua dela eta oraindik azaleratzen ari dela. Gaur egungo desberdinkeria-testuingurua ikusita, begirada kritiko hori mantendu behar dugu esparru edo erakunde guztietan, baita berez eraldatzaile gisa definitzen direnetan ere. Bada, gai hau aztertzen duten pertsonentzat interesgarriak izan daitezkeen baliabideak jaso ditugu bibliografian.
- Era berean, benetan Euskadin kontzentratzen den esparru teoriko bat da; izan ere, batetik, hausnarketa kolektiboko prozesu bat martxan jarri da, eremu horretako hainbat erakunderen parte-hartzearekin (batzuk ZarenSare-EnRedando sarekoak). Bestalde, esparru teorikoa Euskadin indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko harremanen inguruan gauzatu den diagnostiko batez elikatzen da, eta besteak beste, agiri hori baliozkotzeko prestatu da. Hala ere, gailentzekoa da esparru hau beste lurralde batzuetako erakundeek ekarpenez ere elikatzen dela, hala nola Mujeres que Crean bizitzaren aldeko erakundearen eta Penca de Sábila (Medellín, Kolonbia) erakunde ekologiko eta kulturalaren ekarpenez. Horrela, aztergai honetan bi tokiek komunean dituzten alderdiak identifikatu ahal izan dira.

Azkenik, azpimarratzekoa da esparru teorikoa lan kolektiboaren bitartez zehaztu dela, prozesuan parte hartzen duten erakundeek analisi baliotsuak eta bibliografian gailendu ditugun pertsona eta erakunde askoren aurretiazko hausnarketak eta lanak sustatuta. Gainera, prozesu hau irekita mantendu da azken unera arte, prozesuan zehar informazioa jasotzeko eta hausnartzeko sortu diren esparruetan azaleratu diren gai garrantzitsuak erantsi nahi izan ditugulako. Nolanahi ere, gailentzekoa da esparru teorikoaz arduratu diren erakundeak honakoak izan direla batik bat: SETEM Hego Haizea, Mugarik Gabe, Altekio Iniciativas hacia la Sostenibilidad eta Oreka Sarea. Erakunde horien begirada eta kokapena erabakigarriak izan dira esparru teorikoa alderdintasunez eta erantzukizunez prestatzeko¹⁰.

10. Bestalde, esan dugun bezala, prozesu honetan ZarenSare-EnRedando sareko erakunde eta aliatu batzuek parte hartu dute, besteak beste honakoek: Mujeres de Aquí y de Allí, Mujeres en la Diversidad, Sagarrak Erakunde Ekologista, Pozokoetxe auzokide-elkartea, María de Maeztu Forum Feminista, Margotu Elkartea, Mujeres que Crean eta Penca de Sábila.

2 | INDARKERIA MATXISTAK: ONDORIO LARRIAK DITUEN FENOMENO SISTEMIKO ETA KONPLEXUA

Indarkeria matxisten fenomeno XX. mendeko laurogeiko hamarkadatik aurrera bakarrik hasi zen ikusten gizartearen fenomeno bat bezala, 70eko hamarkadatik mugimendu feministak arazoa nabarmentzeko, salatzeke eta esku-hartzeak proposatzeko egin zuen lanari esker, eta gero, Nazio Batuek nazioarteko konbentzio batzuk onartu zituzten, botere publikoei eskatzeko indarkeria matxistazko egoeretatik bizirik atera diren pertsonen babes eta arreta emateko egintzak gauzatzeko¹¹, baita indarkeria prebenitu eta desagerrarazteko egintzak gauzatzeko ere. Horren adibide dira, esaterako, Emakumeen kontrako diskriminazio-mota guztiak desagerrarazteari buruzko konbentzioa (1979) eta Vienan egin zen Giza Eskubideen Nazioarteko Biltzarra (1993). Aldi honetan zehar, gai honetan aurrerapenak egin dira, hainbat lege, politika eta esku-hartzerekin (hala nola Genero-indarkeriaren kontrako Babes Osoa izateko Neurrien Legea, 2004koa, eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Euskadiko Legea, 2005ekoa) eta esparru akademikotik eta erakunde publiko eta pribatuetatik bultzatu diren azterketa ugari garatuz, indarkeria-mota desberdinak izendatu eta ikusarazteko eta horien eragile eta adierazpenei buruz teorizatzeke lan handia egin da.

Hala ere, indarkeria matxistek pertsonen (eta batik bat emakumeen) bizitzarako ondorio larriak dituen fenomeno zabaldu bat dira, indarkeria matxistak nabarmentzen, ulertzen eta gaiari heltzen aurrerapenak egin diren arren. Egungo datuek erakusten dute indarkeria matxistak jorratu beharreko arazo politiko bat direla oraindik.

Mundu-mailan, emakumeen heren batek tratatu txarrak edo gehiegikeriak jasaten dituzte, eta 15 eta 44 urte bitarteko kolektiboan, indarkeriak minbiziak, malariak, trafiko-istripuek eta gerrek baino heriotza eta minusbaliotasun handiagoak eragiten ditu. Gainera, Europan, 18 eta 74 urte arteko emakumeen heren batek nolabaiteko gehiegikeria fisikoak jasan dituzte, hamarren batek

¹¹. Esparru teoriko honetan, nahiago izan dugu bizirik atera diren pertsonak direla esan biktimak direla esan baino, indarkeriari aurre egiteko eta gainditzeko emakume-agentziak azpimarratzen duen bezala, egun genero-indarkeriaren biktimen kontzeptuak beste biktima batzuekin alderatuta dituzten konnotazio sexista argien inguruan dauden eztabaiden berri dugun arren (pasibotasuna, errua... beste biktima batzuek, aldiz, aintzatespen juridikoa eta publikoa dituzte...).

eraso sexualak jasan dituzte, eta azkenik, hogeien bat bortxatu egin dituzte noizbait. Kolonbiaren kasuan, Medikuntza Legaleko eta Zientzia Forentseko Institutu Nazionalak Forensis 2014. Datos para la vida argitalpenean eskaini zituen datuen arabera, 2014an 10.402 irizpen eman ziren umeen eta nerabeen kontrako indarkeriagatik. Kasuen % 64,6tan, erasoak gurasoetako batek gauzatu zituen. Urte hartan, bikotekidearen kontrako 48.849 indarkeria-kasu detektatuak % 85 emakumeen kontrako indarkeria-kasuak izan ziren. Gainera, % 52 15 eta 29 urte arteko gazteen bikotetan gertatu ziren.

Bestalde, Latinoamerikako herrialde askotan, Corporación para la Vida Mujeres que Crean elkarteak eta Penca de Sábila Erakunde Ekologiko eta Kulturalak gogorarazi diguten bezala, gaur egun, indarkeria matxistaren adierazpenik bortitzenak areagotzen ari dira, eta asko eta asko zigortu gabe gertatzen dira. Are gehiago, ez ditugu ahaztu behar beti indarkeria matxistatzat jotzen ez dugun matxismo- eta indarkeria-testuinguruak nabarmenki markatu dituen jokabideak, hala nola gorputza aldatzearekin erlazionatutakoak. Besteak beste, kirurgia estetikoaren bitartez beren gorputza aldatzea erabakitzen duten emakumeen kopuruak gora egin du, eta askotan ez dituzte ebakuntzak baldintza ezin hobetan egiten, ezta ekipo profesionalekin ere, eta horrek kalte fisiko ikaragarriak ez ezik heriotza ere eragiten du batzuetan. Bilatu diren arren, ez dago datu eta estatistika zehatzik Kolonbian kirurgia estetikoagatik hil diren emakumeei buruz, eta datu falta hori islatzen dute Kirurgia Plastiko Estetikoaren Nazioarteko Sozietateak (ISAPS) eta aztertu ditugun hainbat artikuluk.¹² Gainera, eragin eta ebakuntzen inguruko datu zehatzak ez dira generoaren arabera xehakutzen.

Nolanahi ere, informazio hau daukagu jardunbide horien aurreko testuingurua pixka bat azaltzeko:

- ➔ Kirurgia Plastiko Estetikoaren Nazioarteko Sozietateak (KPENS) 2013an aurkeztu zuen txosten baten arabera¹³, 2013an Kolonbia izan zen ebakuntza gehien izan zituen seigarren herrialdea, Estatu Batuen, Brasilen, Mexikoren, Alemaniaren eta Espainiaren ostean.
- ➔ Bular-inplanteen % 30 eta 40 artean 18 urtetik beherako gazteei eta neskatilei jartzen zaizkie.¹⁴
- ➔ Hilero Bolivarreko Unibertsitateko Klinikari hirutik bostera emakume edo gizon iristen zaizkio oso osasun-egoera larrian, aurpegia eta gorputza egoera txarrean izanik, **ustezko zirujau plastikoek gaizki egin dituzten ebakuntzen ondorioz**.¹⁵
- ➔ 2013an honakoak izan ziren gehien egin ziren ebakuntzak: liposukzioak: 50.599 prozedura; bularrak handiagotzea: 44.403, lipektomia¹⁶: 28.215 aldiz; sudurreko kirurgia: 24.919 ebakuntza; betazaletako kirurgia: 24.396 ebakuntza.
- ➔ Osasunaren Idazkaritzak 251 kexa jaso ditu 2012aren eta 2015eko ekainaren artean. Gainera, azken 10 hilabeteotan gutxienez 74 kasu jaso dituzte ebakuntza-okerrekin erlazionatuta.¹⁷

12. <http://www.eluniversal.com.co/cartagena/vida-sana/en-colombia-mas-de-la-mitad-de-las-cirugias-plasticas-son-de-correccion-124490>

13. <http://www.isaps.org/Media/Default/global-statistics/2014%20ISAPS%20Global%20Stat%20Results.pdf>

14. <http://eltiempo.com/colombia-prohibira-las-cirugias-esteticas-en-menores-de-edad/>

15. <http://www.eltiempo.com/colombia/medellin/cirugias-plasticas-ilegales-en-colombia/15965321>

16. Sabelaldeko gehiegizko azala eta gantza kentzeko kirurgia.

17. <http://www.eltiempo.com/bogota/joven-muerta-por-cirugia-estetica-en-clinica-de-garaje/16066540>



4. TAULA INDARKERIAREN IRISMENA EAE-N, ESPAINIAR ESTATUAN, KOLONBIAN ETA MUNDU-MAILAN

Euskal Autonomia Erkidegoa	✓ 2002-2011 artean: 26 emakume hil zituzten. ✓ 2010ean: 8 emakume hil zituzten. ✓ Lanpostu bereko soldaten arteko diferentzia: - 7.140,00 € ✓ Pobrezia-arriskua duten pertsonak: % 83 emakumezkoak. ✓ Etxeko eginbeharrak: 2 ordu eta 23 minutu +
Espainiar Estatua	✓ 2003-2015 artean: 775 emakume hil zituzten. ✓ 2015ean: 16 urtetik gorako emakumeen % 12,5ek indarkeria fisikoa edo sexuala jasan zuten eta % 9,2 indarkeria psikologikoaren biktima izan ziren. ✓ Urtean 140.000 salaketa.
Kolonia	✓ 2014an: 10.402 irizpen eman ziren umeen eta nerabeen kontrako indarkeriagatik. Kasuen % 64,6tan, erasoak gurasoetako batek gauzatu zituen. ✓ 2000-2010 hamarkadan: emakumeen % 74,6 bortxatuak izan dira beren bikotekidearen eskutik. Indarkeria psikologikoa areagotu egin da. ✓ 2014an: bikotekidearen kontrako 48.849 indarkeria-kasu detektatu % 85 emakumeen kontrako indarkeria-kasuak dira. Gainera, % 52 15 eta 29 urte arteko gazteen bikotetan gertatu ziren.
Mundu mailan	✓ Emakumeen heren batek tratu txarrak edo gehiegikeria jasaten dute edo jasan dute. ✓ 15 eta 44 urte bitartekoen artean, indarkeriak honakoek baino heriotza eta ezintasun gehiago eragiten ditu: minbizia, malaria, trafiko-istripuak eta gerrak. ✓ 18-74 urte arteko emakume europarren herenak (62 milioi, gutxi gorabehera) nolabaiteko indarkeria fisikoa jasan dute, hamarren batek sexu-erasoak jasan dituzte eta hoge emakumeren arteko bat noizbait bortxatua izan da (2013, Europa).

Espainiar Estatuaren kasuan, Amnistia Internazionale (2015) erakundeak adierazten zuen bezala, eta Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak genero-indarkeriatzat jotzen duenera mugatuz¹⁸, 2003ko urtarrilaren 1etik 2015eko apirilaren 6ra, 775 emakume hil zituzten beren bikotekideek edo bikotekide ohiek. Gainera, Genero-indarkeriarako Gobernu-ordezkaritzaren kalkuluen arabera (Amnistia Internazionale, 2015), 16 urtetik gorako emakumeen % 12,5ek indarkeria fisikoa edo sexuala jasan zuten beren bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskutik, eta % 9,2 indarkeria psikologikoaren biktima izan ziren (jazarpena, kontrola, umiliazioak edo mehatxuak).

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2002tik 2011ra 26 emakume hil zituzten, eta horietako 8 2010ean. Horrez gain, emakumeen eta gizonen arteko soldata-diferentzia oso handia da, eta pobrezia-arriskuan dauden pertsonen % 83 emakumezkoak dira. Aldi berean, Interneten garaian gaudenez, beste indarkeria-mota batzuk ari dira azaltzen, ziber-jazarpena, esaterako, gazteenek pairatzen dutena. Hori guztia gizarte-zerbitzuen murrizketa-testuinguru batean gertatu da, eta bereziki indarkeriaren kontrako ekintzak gauzatzeko partidak murriztu dira, Amnistia Internazionale erakundeak salatzen zuen bezala. Ez da ahaztu behar, Mugarik Gabek (2012) adierazten duen bezala, indarkeria matxistak erlijio, maila sozial, adin, jatorri... guztietako emakumeen bizitza osorako faktore bat direla, baita heteronormatibitatearekin bat ez datozen guztien bizitzarako ere.

Datu kezkarri horiez gain, kalkulu ofizialetatik kanpoko guztia ere aintzat hartzekoa da, hau da, salatu gabe geratzen diren kasuak edo erakundeetan indarkeriari egozten zaizkion definizioekin bat ez datozela-eta kontuan hartzen ez direnak. Horren harira, garrantzitsua iruditzen zaigu indarkeria matxisten definizio zabala proposatu eta onartzea.

¹⁸. Legeak honakoa jotzen du genero-indarkeriatzat: gizonek beren ezkontide izan diren emakumeen kontra edo haiekin antzeko afektibitate-harremanak izan dituzten emakumeen aurka (elkarrekin bizi ez badira ere) eragindako indarkeria fisiko eta psikologikoko edozein ekintza, askatasun sexualaren kontrako erasoak, mehatxuak, hertsapenak edo askatasuna arbitrarioki kentzea.

AZAROARI IZENA JARTZEN¹⁹

Urteak joan ahala, indarkeria matxisten inguruko termino eta definizio ugari egon dira eta daude aldi berean²⁰. Garrantzitsua da argi izatea termino eta definizio bakoitza azalpen-esparru desberdinekin bat datorrela eta, ondorioz, prebentzio-, desagerrarazte- eta arreta-estrategia desberdinak proposatzen dituela.

Mugarik Gabek adierazten duenez: *kolektibo batzuek “genero-indarkeria”ri buruz hitz egitea lehenesten dute, sexua-generoa sistemak azaltzen dituen desberdinkeriei eta botere-harremanak kausa gisa aipatzen ditu; beste batzuek, berriz, kontzeptu lausoa eta gizartearentzat ulertzeko zaila dela uste dute, eta nahiago dute “indarkeria matxista” edo “indarkeria sexista” terminoak erabili, kausak aipatzeaz gain erantzukizunak zehazten dituztelako eta gauzak dago-kien bezala aipatzen dituztelako*. Bestalde, “emakumeen kontrako indarkeria” eta antzeko kontzeptuek indarkeria nork baliatzen duen aipatzen dute, eta “etxeko indarkeria” terminoa atzean utzi da, bestelako indarkeria batzuk ere barne hartzen dituelako eta esparru pribatura mugatzen delako.

Indarkeria matxisten kontzeptua zehazteko, ulertzeko eta jorratzeko prozesuak izan duen bilakaera horrek azaro hauen konplexutasuna eta izaera politikoa islatzen du. Gipuzkoako Foru Aldunditik honakoa adierazten zen: *indarkeria horri zer izen ematen diogun, nola ulertzen dugun definituko dugu, eta zer kausa dauden indarkeria hori gertatzeko; eraginpeko pertsonak mugatuko ditugu, eta baita nolako eragina pairatzen duten ere; eta, beraz, indarkeria horretan esku hartzeko ikuspegia eta estrategiak zehaztu egingo ditugu (...)*.

Gure hausnarketa kolektiboko prozesuan, eta esparru teoriko zehatz honetan, “indarkeria matxistak” terminoa aukeratu dugu, izan ere: (i) Euskadin sustraituta dagoen kontzeptu bat da (zehazki, Euskal Herriko azken topaketa feministak ere aukeratu zuen, baina singularrean) eta prozesuan esku hartzen duten hainbat erakundek erabiltzen dute; (ii) beste erakunde batzuek erabiltzen dituzten “indarkeria patriarkala”, “genero-indarkeria”, “emakumeen kontrako indarkeria” eta “indarkeria sexista” barne hartzen ditu; (iii) sexua-generoa-sexualitatea eskemarekin bat ez datozen subjektu guztien kontrako indarkeria matxista jaso eta analizatzea ahalbidetzen du²¹, fokua emakumeengan badago ere, emakumeen kontrako indarkeriaren fenomenoaren garrantzia ikusita; (iv) eta, funtsean, indarkeriaren gaineko begirada zabala eta egiturazkoa planteatzen duelako, bere kausarik egiturazkoenetan kontzentratuz. Azkenik, aipatzekoa da indarkeria matxistak pluralean aipatzen ditugula beren forma desberdinei erreferentzia egiteko, indarkeria fisikoaz edo bikotekidearekin edo bikotekide ohiarekin gertatzen denaz haraindi.

Lehenago adierazi dugun bezala, Mugarik Gabe erakundeak indarkeria matxisten inguruan duen ikuspegiarekin bat gatoz. Ikuspegi zabal batetik egiten du lan, desberdinkeria indarkeria eta diskriminazio motatzat joz, eta indarkeria sistema he-

19. Atal hau prestatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren bi dokumentu hartu dira erreferentzia gisa. Bibliografian jaso dira: Documento sobre la violencia machista, la terminología utilizada por la diputación foral de Gipuzkoa y el análisis que la sustenta”. Donostia (2014) eta II Plan Foral para la Igualdad entre Mujeres y Hombres 2012-2020. (2012). Bertan, indarkeria matxisten planteamendu feminista, zabala eta kasuanitza egiten da.

20. DDenbora luzeegian zehar hitz egin zen, eta hitz egiten jarraitzen da, “familia barruko indarkeria”ri edo “etxeko indarkeria”ri buruz. Termino horiek indarkeria hori esparru pribatura mugatzen dute eta kasu bakarreko fenomeno gisa hartzen dute (bikotekideak edo bikotekide ohiak bizirik atera den emakumearen kontra eragindakoa). Denbora joan ahala, “emakumeen aurkako indarkeria” terminoa erabiltzen hasi zen. Termino horrek emakumeak argi eta garbi identifikatzen ditu bizirik atera diren pertsona gisa, baina ez du zehazten zein den indarkeria horren jatorria, ezta arrazoiak ere. Gero “genero-indarkeria” terminoa azaldu zen. Termino horrek generoareen faktorea gailentzen du, baina beti ez da argi geratzen indarkeria gizonek emakumeen gainean duten menperakuntzaren eragina dela. Muga hau gainditzeko, bereziki herrialde latinoamerikarretan, “emakumeen kontrako indarkeria patriarkala” terminoa erabiltzen hasi zen. Horrela, indarkeriaren jatorria gizartearen egitura patriarkala dela adierazten da eta biktimak beti emakumeak direla azaltzen da. Azkenik, “indarkeria sexista” terminoa dago. Espainiar estatuan nahiko zabalduta dago, eta emakumeen kontra emakume izate hutsagatik eragiten den indarkeriari egiten dio erreferentzia, eta menderakuntza maskulinoa nabarmentzen du.

21. Hau da, “intersex gorputzak, transgeneroak, homosexualak, lesbikoak, tradizionalki esleitu zaizkien eskemak hausten dituzten emakumeak eta gizonak”, hau da, “normaltasun parametro bihurtu den sexua/generoa/sexualitatea eskema patriarkalaren harreman aldebakar eta aldagaitza errespetatzen ez dutenak” (Gipuzkoako Aldundia, 2014).


teropatriarkalak genero-desberdinkeriak eta emakumeen zapalkuntza ezartzeko, indartzeko edo betikotzeko erabiltzen duen tresna gisa ikusten du. Mugarik Gabek indarkeria matxisten elementu erabakigarrien artean honakoak gailentzen ditu:

- giza eskubideak urratzea eragiten dute,
- indarkeriak emakumeen bizitza osoan zehar dauden fenomeno bat dira (baita sexua-generoa-sexualitatea eskema betetzen ez duten beste subjektu batzuenean ere),
- sistema patriarkal batean emakumeen menderakuntza mantentzeko tresna gisa erabiltzen dira, eta
- beren faktore erabakigarriak dira, batetik, sistema patriarkalaren esparruan emakumeen eta gizonen artean dagoen desberdintasunezko harremana, eta, bestetik, gatazkak indarkeriaren bidez konpontzea legitimatzen duen kultura.

Gainera, indarkeria matxistak fenomeno sistemiko eta konplexutzat jotzen ditugu, eta gaia kausa anitzekoa dela aintzat hartuz jorratu behar delakoan gaude. Johan Galtung-ek²² aipatu zuen **indarkeriaren triangelu zoroak** (feminista batzuek dagoeneko aztertu eta erabili dute) indarkeria matxistek zer mailatan diharduten nabarmendu eta analizatzeko aukera eman digu (indarkeria matxistak ez dira bestelako indarkeria batzuekin nahastu behar), baita mailen arteko harreman konplexua aztertzeko ere. Ikuspegi honetatik patriarkatuak indarkeria zuzena, egiturazkoa eta kulturala triangelu zoro batean nahasten dituela ulertzen da, elkar indartzen dutela eta “egitura oso iraunkorra izan dadila eragiten” duela (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2012).

²². Matematikari eta soziologo norvegiarra, 1930ean Oslon jaioa, bakearen eta gizarte-gatazken inguruko azterketen arloko aitzindaria.

1. GRAFIKOA INDARKERIAREN TRIANGELU ZROA



Triangeluaren puntan **zuzeneko indarkeria** dago, hau da, norbaitek (eragileak) beste norbaiti (hartzailea) kalte fisikoak eta psikologikoak eraginez nahita, nabarmenki eta erraz ikusteko moduan gauzatutako ekintza. Zuzeneko indarkeria hainbat motatakoa izan daiteke: indarkeria fisikoa, sexuala, psikologikoa eta ekonomikoa.²³

Triangeluaren oinarrian, berriz, **zeharkako indarkeria** mota bi dauzkagu, eta hemen, pertsona eragileak eta hartzaileak ezin dira banaka identifikatu:

- **egiturazko indarkeria**, gizartearen egituraren ondoriozko bidegabekeria eta desberdinkerian islatzen da. Esate baterako, pobreziaren feminizazioa.
- **indarkeria kulturala edo sinbolikoa**, zuzeneko indarkeria eta egiturazkoa justifikatzen, legitimatzen eta ahalbidetzen ditu, indarkeria horiek kontzienteki edo inkontzienteki bidezkoztat, beharrezkoztat edo halaber beharrezkoztat jotzea eragiten duelako. Adierazpen kulturalen eta lengoaiaren bitartez emakumeen menpekotasuna mantentzen duten sinboloen multzoa da, esate baterako, imaginario kolektiboan emakumeen gorputza objektu sexual gisa ikustea. Era berean, emakumeen eta heteronormatibitatearekin bat ez datozen beste subjektu batzuen existentzia eta ekarpenak ukatuz ere baliatzen da.

Indarkeria matxisten dimentsio bakoitzak besteak indartzen ditu triangeluaren edozein angelutan hasten diren zikloekin. Zuzeneko indarkeriak (bortxatzeak, esaterako), beldurtu eta zapaldu egiten du; egiturazko indarkeriak instituzionalizatu egiten du; eta indarkeria kulturalak edo sinbolikoak harreman hori barneratzea eragiten du, bizirik atera diren pertsonen eta gizartearen kasuan, eta oso egitura iraunkorra izan dadila eragiten du.

Zuzeneko indarkeriaren arloan bakarrik lan egiten denean, ez dira kontuan hartzen indarkeria hori gertatzea eta errepikatzea ahalbidetzen duten egiturazko baldintzak, baldintza sinbolikoak eta soziokulturalak, adibidez, lanaren banaketa sexuala edo feminitatearen eta maskulinitatearen eraikuntza normatiboa. Horregatik, beharrezkoa da indarkeria matxistei bere dimentsio guztietatik heltzea, dimentsio horien artean sortzen den gorpil zoroa hautsi ahal izateko.

Azkenik, azpimarratzekoa da badakigula indarkeria matxisten jatorria menderakuntza-egitura patriarkal eta androzentrikoetan datzala, desberdinkeria ez ezik emakumeen kontrako indarkeria ere legitimatzen dutelako, baita eredu heteropatriarkaletik kanpoko pertsona guztien kontrakoa ere. Gizonen eta emakumeen arteko botere-desberdinkeriak betikotzea ahalbidetzen duen sistema patriarkalaren muturreko adierazpentzat jotzen ditugu.

Atal hau bukatzeko, hausnarketa-prozesuan indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren arteko lotura analizatzerakoan garrantzitsutzat jo ditugun alderdi batzuk gailendu nahi ditugu.

²³. En Colombia, además de la violencia económica, se incluye la violencia patrimonial (según la Ley 1257 de 2008).



5. TAULA INDARKERIA MATXISTEN FORMA ETA ADIERAZPEN DESBERDINAK

Galtung-en triangelu zoroa azaltzean aipatzen hasi garen bezala, indarkeria matxistek hainbat mailatan dihardute eta forma ugari dauzkate. Zehazki, erraz ikusten eta bereizten diren zuzeneko indarkeria mota hauek identifika daitezke, eta, Mugarik Gabek (2012) adierazten duen bezala, garrantzitsua da izaera sistemikoa eta egiturazkoa duen *continuum* bat bezala ulertzea, eta ez da hori ahaztu behar, gaiari modu despolitizatuan ez heltzeko.

- > **Indarkeria Fisikoa:** nahi gabe eginak ez diren ekintzak (adibidez, jotzea edo bultza egitea), kalte fisikoa eragiten dutenak eta jasotzailearen bizitzaren edo ongizate fisikoaren kontrakoak direnak. Katégoria honetan sartzen da, halaber, lesioek eragindako gaixotasunak edo lesioak izanda laguntzarik ez ematea.
- > **Indarkeria Psikologikoa:** ahozko jokabideak (adibidez, irainak eta oihuak) eta ahozkoak ez direnak (ateak jotzea eta gauzak edo inguruak txikitzea), nahita eta modu hertsatzailean egindakoak, indarkeriaren jasotzailearen gorputzaren kontra zuzenean ekindako erasoak izan ez arren, min edo sufrimendu psikologikoa edo emozionala, desbalarizazioa eta ziurgabetasuna eragiten dituztenak, besteak beste.
- > **Gizarte-indarkeria:** indarkeriaren jasotzailea isolatzeko edo urruntzeko edo publikoki iraindu edo jaramonik ez egiteko edozein ekintza, nahita egindakoa, kalte psikologikoa eragiten duelako.
- > **Sexu-indarkeria:** baimenik gabe eta indarkeriaren jasotzailearen nahiaren kontra gauzatutako ekintza sexuala, hala nola eraso sexualak, abusu sexualak, jazarpen sexualak (arlo guztietakoak: lantokian, eskolan...), exhibizionismoa, prostituzio behartua, etab.
- > **Ekonomia- eta finantza-indarkeria:** indarkeriaren jasotzaileari baliabide materialak eta ekonomikoak eskuratzea edo/eta kontrolatzea galarazteko nahita egindako edozein ekintza.
- > **Ondare-indarkeria:** emakumearen beharrak asetzeko gauzak, laneko tresnak, dokumentu pertsonalak, ondasunak, baloreak edo eskubideak galtzea, aldatzea, lapurtzea, suntsitzea, bahitzea edo desgertzea eragiteko nahita egindako edozein ekintza.

Indarkeria matxisten kontzeptu zabal batekin ikusten eta nabarmentzen ditugun beste adierazpen batzuk honakoak dira:

- > **Transfobia:** intersexak, transexualak edo transgeneroak diren pertsonen aurreko gaitzespen-jarrera, normalean pertsona horiek gizartetik isolatuz, ikusezin eginez eta eraso fisikoekin gauzatzen da.
- > **Lesbofobia:** bi emakumek harreman sexuala izatearen aurreko gaitzespen-jarrera.
- > **Homofobia:** bi gizonek harreman sexuala izatearen aurreko gaitzespen-jarrera.

Alde batetik, garrantzitsua iruditzen zaigu Luis Boninok (Bonino, 2004) proposatu zuen **mikromatxismoak** kontzeptua berreskuratzea, gure testuinguruan matxismoarik muturrekoena deslegitimatuz joan den arren oraindik menderakuntza-jokabide eta -jarrera “arin” edo “intentsitate txikiko” ugari daudelako, *“menderatze-ekintza trebeak, nabaritzen ez diren jokabideak edo amarruzkoak, errepikakorrek eta ia ikusezinak, gizonak etengabe gauzatzen dituztenak (...) emakumeen gaineko nagusitasuna mantentzen jarraitzeko, eta gizonak emakumeekiko dituzten jokabide ‘normal’ gehienak dira”*. Hausnarketaren prozesu honen esparruan proposatu nahi dugu mikromatxismoak²⁴ terminoaren definizioak intersexen, lesbianen, gayen, transexualen eta transgeneroen kontrakoak ere barne har ditzala, zehazki, ikusten ez direnak eta egiturazkoak eta sinbolikoak direnak, gure ustez kontsumo kapitalistan ikus daitezkeenak.

Prozesu honetan parte hartu duten erakunde kolonbiarrek zehazki aipatu duten beste alderdi bat da **neomatxismoaren edo neopatriarkatuaren** maltzurkeria eta gordintasuna. Luis Boninok adierazten duen bezala, egungo testuinguruan, matxismoaren adierazpen gordin eta muturrekoenak deslegitimatuta daude, autoritate maskulino tradizionala zalantzan jartzen da eta emakumeen independentzia eta berdintasuna baloratu egiten dira. Horren guztiaren ondorioz, emakumeen diskriminazio historikoa betikotzeko diskurtso eta argudio “politikoki zuzen” gero eta gehiago entzuten dira (eta gizartean legimitatuta daude). Testuinguru honetan, indarkeria-adierazpen berriak ikusten dira (esaterako, feministei “feminazi” deitzea, eta mito sexistak zabaltzea, adibidez salaketa faltsuena), emakumeen igoera soziala eta kulturala geldiarazteko. Adierazpen horiek, kontsumoaren esparruan, publizitatean eta komunikabideetan oinarritzen dira.

Puntu honen harira, aztertzen ari garen gairako interes berezia duen gauza bat nabarmendu nahi dugu: **edertasunaren eta harreman afektiboen eredu heteropatriarkala**; izan ere, publizitatearen bitartez, geroago azalduko dugun bezala, emakumeen eta beste pertsona batzuen bizitzari eraso egiten dio, emakumeen gorputzean eragina duten edertasun-ideal lortezinak ezarriz.

24. Bideo honetan oso modu didaktikoan azaltzen da mikromatxismoak kontzeptua: http://www.eldiario.es/micromachismos/pasado_6_355274505.htm

3 | SISTEMA KAPITALISTA- REN ETA SISTEMA PA- TRIARKALAREN ARTEKO ALIAANTZA: BIZITZA IN- DARKERIAZ BUSTITZEN

Indarkeria matxistak, bestelako indarkeria batzuk bezala, ez dira fenomeno solteak; aitzitik, justifikatzen, legitimatzen eta betikotzen dituzten kultura-, gizarte- eta familia-egituren barruan ikusten dira. Gure gizartean, indarkeria da orotariko gatazkak kudeatzeko tresna legitimatu nagusietako bat, kontrolatzeko mekanismo bat da, eta botere-iturri nagusietako bat. Hortaz, indarkeria matxisten jatorria elkarrekin erlazionatuta dauden hainbat faktoretan datza, eta faktore horien azken sustraia orotariko desberdinkerietan (maila, etnia, adina, generoa, etab.) oinarrituta dagoen gizartea da.

Indarkeria matxisten harira egin dugun analisiaren bitartez, sistema kapitalista genero-desberdinkeriak baliatzen eta betikotzen dituen egitura bat dela identifikatu dugu (desberdinkeria horiez elikatzen da eta erabakigarriak dira sistema kapitalista mantentzeko); besteak beste, binomio heteropatriarkala mantentzen dute eta indarkeriak ahalbidetzen ditu, indarkeria matxistak, zehazki, indarkeria horien zuzeneko eragilea ez bada ere. Hain zuzen ere, bere kontzepzioetik eta planteamendutik egiten du, kapitala-bizitza gatazkaren bitartez, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, hainbat mekanismo eta tresnaren bidez (hala nola kontsumoarekin).

Ekonomia Sozial eta Solidariotik (gero eta hurbilago dago Ekonomia Feministatik), kapitala-bizitza gatazkari oihartzuna ematen zaio proposamen hori eta Ekonomia Kapitalistaren eredu ekonomikoa bereizten dituzten dimentsio eta printzipio hauen harira:



6. TAULA EKONOMIA KAPITALISTAREN ETA EKONOMIA SOLIDARIOAREN ARTEKO DESBERDINTASUNAK

Ekonomia solidarioa	Ekonomia kapitalista
✓ Ekonomia pertsonen zerbitzura	✓ Pertsonak ekonomiaren zerbitzura
✓ Berdintasuna eta horizontaltasuna	✓ Desberdinkeria eta bertikaltasuna
✓ Lankidetza eta inklusioa	✓ Lehia eta bazterkeria
✓ Garapenaren kontzeptu zabala eta anitza	✓ Garapen-kontzeptu bakarra
✓ Gizartearentzat onuragarria	✓ Onura finantzarioa
✓ Kolektibismoa	✓ Indibidualismoa
✓ Gizartearekiko konpromisoa	✓ Gizartearekin konpromisorik ez
✓ Ingurumenarekiko konpromisoa	✓ Ingurumenarekin konpromisorik ez
✓ Gizarte-ekimena eta -partaidetza	✓ Gizarte-erantzukizunik eta -partaidetzarik ez
✓ Erakunde txiki eta ertainak	✓ Enpresa handi transnazionalak

KAPITALA-BIZITZA GATAZKA

Pentsaera- eta ekintza-korronte askok identifikatu dute sistema kapitalista bizitza (gizakiona nahiz natura) ustiatzen eta suntsitzen duen sistema bat bezala, irabaziak lortzeko aukeratzat jotzen duen edozein bizitza-esparrutan bere baliabide guztiekin sartzen dela azpimarratuz. Zehazki, Ekonomia Feministatik eta Ekofeminismo Kritikotik oihartzuna eman zaio eta salatu egin da kapitalismoaren berezko logika horren (hau da, irabazi ekonomikoa maximizatu eta pilatzea) eta pertsonak eta natura zaintzearen logikaren arteko kontraesana.

Sistema kapitalista gizakion (eta, zehazki, gizonezkoen) ustezko nagusitasunean oinarritzen da (antropozentrismoa eta androzentrismoa). Horrela, irabaziak pilatzean kontzentratutako garapen-eredu bat ezartzen du, bizitzaren kalteberatasuna eta gure elkarrekiko menpekotasuna eta ekomenpekotasuna aintzat hartu gabe.

Sistema bidegabea da maila askotan, zehazki, gutxiengo baten garapena mundu osoko biztanleriaren zati handi baten bazterkerian eta prekariotasunean oinarrituta dagoelako. Horren harira, feminismoen kritikarik garrantzitsuenetako bat kontsumismoan oinarritutako mendealdeko bizimodu horri dago zuzenduta²⁵, ekoizpena etengabe areagotzea eta hazkuntza ekonomikoa maila jasangaitzetaraino eramatea bultzatzen baitu, mundu osoko biztanle-sektore handi baten kalterako.

Bada, sistema kapitalistan eta egungo garapen-ereduan egiturazko indarkeria dago, ez da ikusten, baina pertsonen oinarritzko beharrei erantzutea ezinezko egiten duten gizarteko bidegabekeria nagusien oinarria da. Egiturazko indarkeria horren isla dira bizi-baldintzen prekariotasuna, pobreziaren feminizazioa, gizarte-zerbitzuen pribatizazioa, goseteak, langabezia, etab. Mundu-mailako menderakuntza-egiturak ez aipatzearen, horiek baitira herrialdeen arteko desberdinkeriak eta orotariko berdintasun faltak eta bidegabekeriak eragiten dituztenak²⁶.

BIZITZAREN IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO APUSTUA FEMINISMOETATIK

Garapen-eredu eta sistema kapitalista honen orde, feminismoek eta, zehazki, Ekonomia Feministak proposatzen dute pertsonen bizi-baldintzak hartzea sistemaren ardatz moduan, eta bizitza (gizakiona nahiz gizakiona ez dena) guztiaren oinarri saihestezina dela onartuz, baita pilaketa kapitalistaren oinarria dela ulertuz ere. Ekonomia Feministak, bada, gizartearen azken helburua bizitzaren iraunkortasuna izan dadila proposatzen du²⁷, *“ugalketa sozialeko prozesu historiko bat da, prozesu konplexu, dinamiko eta dimentsioanitz, beharrak asetzeko dena, norbanakoen eta harreman sozialen beharrak etengabe aldatzen direla kontuan hartuz, horretarako baliabide materialak ez ezik zaintzarako eta afekturako testuinguruak eta harremanak ere behar direla eta neurri handi batean zaintza eta afektua ordaindu gabeko lanaren bidez etxeetan ematen direla ahaztu gabe”* (Carrasco, 2009).

Kapitalismoak bizitza (gizakiona eta gizakiona ez dena) pilatze-prozesuaren menpe jartzen du, sistema patriarkalarekin aliantza maltzur batean, bizitzaren zaintza ekonomiaren esparru ezkutatu eta feminizatuen esku utziz. Merkatua jotzen du garrantzitsutzat, esparru horretatik eta diru-trukeetatik kanpoko guztia baztertuz. Logika horretan, etxeko lanak eta zaintzeko lanak

25. Esparru honetan nahiago izan dugu kontsumo kapitalistari buruz hitz egin, kontsumismoaren ideiarekin lotuta, biak direlako kapitalismoaren oinarri. Fernández Mirandaren (2015) arabera, kontsumismoa kontsumitzea helburu bihurtzen duen eredu bat da, hau da, erosteko ekintza da nabaritzen den beharra, erositako hori baino gehiago. Egile horren ustez, jokabide horren azpian kontsumoaren gizarteko ideiak eta balioak daude eta zentzua ematen diote: guztia bihur daiteke salgai eta salgai moduan trata daiteke.

26. Kasu honetan, bidegabekeria bizitzarekin honakoa esan nahi dugu: justua ez izatea edo jokatzeko moduan maltzurkeria handia izatea.

27. Bizitzaren iraunkortasunaren kontzeptuak, feminismoetatik, hainbat iraunkortasun barne hartzen ditu, besteak beste hauek: gizakiona, ekologikoa, soziala eta ekonomikoa. Guztiak daude elkarrekin erlazionatuta eta beren iraunkortasuna elkarren menpekota da.

ezkutatuta geratzen dira, bizitza mantentzeko behar-beharrezkoak diren arren. Dakigun bezala, sistemaren existitzeko nahitaezkoa da emakumeek dohainik egiten duten lana.

Hala ere, sistema kapitalista botere-desberdinkerian oinarrituta dago, hainbat esparrutakoa (publikoa-pribatua/etxea), lanetakoa (ekoizlea-familiaz arduraztea/zaintza) eta pertsonen artekoa (gizonak-emakumeak/heteronormatibitatearekin bat ez datozen beste subjektu batzuk). Sistema kapitalistak sinetsarazi nahi digu behar guztiak ase daitezkeela merkatuetan, baina feminismoek gogorarazten digute pertsona guztien duintasuna eta eskubideak bermatzen dituzten logika eta lan berrien alde egin behar dela apustu.

KONTSUMO KAPITALISTA: DESBERDINKERIAK BETIKOTZEN ETA BIZITZA IRAUNKORRA EZINTZEN

ZarenSare sareak adierazten duen bezala, sistema kapitalista, bere egungo etapan, kontsumoaren gizartean oinarritzen da. Egile batzuek kontsumoaren kapitalismoa esaten diote. XX. mendeko 20ko hamarkadan sortu zen, eta bere bereizgarria da ondasunak eta zerbitzuak masiboki kontsumitzen eta ekoizten direla eta ez dela iraunkorra gizakiontzat, ezta beste bizidunentzat ere. Kontsumo masiboaren eredu horrek ekoizpena etengabe areagotzeko beharra sustatzen du, baita hazkuntza ekonomikoa ere, iraunkorrak ez diren mailetaraino. Horrek arriskuan jartzen ditu mendebaldeko pertsona askoren bizi-baldintzak eta herrialde pobretu gehienetakoena, baita mundu osoko natura ere.

Gurea kontsumitzaileen gizarte bat da, hau da, gure beharrak eta nahiak kontsumoaren bitartez asetzen ditugu. Sistema kapitalistaren ardatza dirua denez, kontsumitzailea izateak, gehien-gehienetan, kontsumitzeko zerbitzuak eta ondasunak erostea/ordaintzea esan nahi du. Bestalde, negozio-nitxo bihur daitezkeen dimentsio guztiak merkantilizatu ohi dira. Adibidez, prozesu honetan azpimarratu da kapitalismoak nola bihurtu dituen kontsumoko ondasun eta zerbitzu lehen eta gaur egun ere ikusezin egin diren eta emakumeen esku egon diren etxeko zaintza-lanak. Arlo hori merkantilizatuz, lanaren banaketa sexuala eta bizitza mantentzeko beharrezkoa den zaintza-lanaren ikusezintasuna eta aintzatespen falta gainditu beharrean, kapitalismoaren, merkatuaren eta kontsumoaren logikara egokitzea da lortzen ari dena: interes garrantzitsuen eta lehena da irabazi ekonomikoa pilatzea, eta ez berdintasunezko

eta kalitatezko erantzuna ematea gizakion oinarritzko zaintza- eta afektu-beharrei. Horrela, merkatuan esparru pribatuko desberdinkeria errepikatzen da: balio txikiagoa, ikusezin egitea, lan-arloko desberdinkeria...

Ondasun eta zerbitzu horiek, eta gainerakoak, kontsumitu, mantendu eta beti-kotu egiten dira kontsumoaren kapitalismoaren berezko balioen babesarekin, baina gizaki guztien eta naturaren bizitzaren kontra doaz: mugarik gabe ekoi-tzi eta pilatzea, ekomenpekotasunaren eta elkarrekiko menpekotasunaren aurreko independentzia, indibidualismo hedonista “exijentzia handiko, pa-zientzia txikiko eta frustrazioa jasateko tolerantzia urriko gizabanakoekin”²⁸, etnozentrismoa²⁹ beste kosmoikuspegi eta balore batzuk ikusezin egiten eta zapaltzen dituen, eta homogeneousazioa, globalizazioak saltzen duen desber-dintasunen ustezko nabarmentze eta balioespenaren aurrean. Azken batean, ondasunek eta zerbitzuek berez garrantzia galtzen dute, beren helburua ez baita benetan gizakion beharrei erantzutea, ustez hori den arren, kontsumo hutsa lehenestea baizik “*norbanakoaren eta kolektiboaren ongizate eta zorion handiagoa lortzeko*” (Orellana, 2007); kontsumo horrek oso zalantza bali-oak barne hartzen ditu.

28. (...) eta medikuntzak eman ezin diena ematea espero dute”, dio Daniel Callahan-ek, New Yorkeko Hastings Center-eko “Medikuntzaren Hel-buruak” proiektuaren zuzendariak. Iturria: Colgados de los ansiolíticos. El País egunkariko artikulua, Milagros Pérez Oliva (2014ko irailaren 28a).

29. Harluxet Hiztegi entziklopedi-koaren arabera, etnozentrismoaren definizioa da “Beste gizarteak ba-loratzeko norberaren gizarte edo etniako arau eta balio estandarrak erabiltzeko joera”. Horrek kulturen artean hierarkia bat sortzea esan nahi du, kultura nagusia besteak bai-no garrantzitsuagozat jotzen baita.



7. TAULA ZARENSARE-ENREDANDO SAREAK EREDU KAPITALISTAREN AURREAN DUEN JARRERA

Manifestuaren abiapuntua nahi ez dugun gizartearen definizioa da. Egungo eredu sozioe-konomikoaren oinarria hazkuntza ekonomikoa lortzea da, baita ahal beste etekin eskura-tzea ere, baina ez da bideragarria, ezta erreala ere. Eredu honek aberastasunak esku gutxi-tan pilatzen ditu, eta gainera, Lurra eta izaki bizidunak zaintzeari inolako baliorik egotzen ez dion logika patriarkal eta antropozentriko batean oinarritzen da. Baliabide mugatuak dituen planeta batean hazkuntza mugagabea bilatzen duen logika kapitalista hori dagoe-neko garesti ateratzen ari da pertsonentzat, oreka ekologikorako eta naturaren aberasta-sunerako. (...) Gainera, sistema kapitalista kontsumoaren gizartean oinarrituta dago eta bere aliaturik handiena sistema patriarkalak ezartzen duen ordena soziala da. Sistema patriarkalaren ezaugarri nagusiak honakoak dira: lana sexuen arabera banatzen du (bere eredu ekonomikorako eraginkorra dela ulertzen baitu), emakumeak diskriminatu egiten ditu eta botere-harremanetan gizonak emakumeen eta naturaren gaineko posizio batean mantentzen ditu. (...) Dinamika honetatik irten eta oraingo eta etorkizuneko belaunaldien-tzat bizitza duina ziurtatu ahal izateko, nahitaezkoa da egungo ikuspuntua eta logika al-datzea. Merkatuak gure bizitzaren erdigunetik kendu behar ditugu, eta bizitza mantentzea izan behar da gure lehentasuna.

PLANETAREN MUGAK ERRESPETATUZ ONGI BIZITZEKO JOKABIDEAK: DESHAZKUNTZA IKUSPEGI FEMINISTAREKIN ETA KONTSUMO ARDURATSU, KONTZIENTE ETA ERALDATZAILEAREKIN (KKAE)

Errealitate horren aurrean, hainbat alternatiba ari dira planteatzen diziplina eta pentsamendu-korrante askotatik. Zehazki, ikuspegi feministadun deshazkuntzatik (Tudela, 2008) imaginario kapitalista patriarkala deskolonizatzearen alde ari da apustu egiten, hau da, zoriona kontsumo etengabea bilatzeari uztea eta bizitzaren alderdi ez ekonomikoei dagokien balioa egoztean oinarritutako gizarte-logika berri baten alde apustu egitea, gizarte-harremanei protagonismoa emanez, gizakion zorionaren benetako iturria direlako. Horretarako, honen alde egiten da apustu: berrebaluatzea (gure balioak berrikustea), berregituratzea (ekoizpen-aparatua eta gizarte-harremanak balio berrietan oinarrituz egokitzea), banaketa aldatzea (aberastasunak banatzea eta naturaren ekarpenen eskuragarritasuna gizakion ongizatean oinarritzea), murriztea (gure ekoizpen- eta kontsumo-ohituren biosferan duten eragina txikiagotzea), berrerabiltzea (gailuak eta kontsumo-ondasunak bota beharrean) eta birziklatzea (hondakinak)³⁰. Egileak honakoa azpimarratzen zuen: “deskolonizazio honek gaur egun nagusi direnak ez bezalako balio berri batzuk onartzea esan nahi du, eta horrek kultura-iraultza bat eskatuko luke: altruismoa vs. norberekoikeria, lankidetzatza vs. lehia, bizitza soziala vs. kontsumismoa, bertakoa vs. globala, kalitatea vs. kopurua eta produktibotasuna, solidaritatea eta erantzukizuna vs. individualismoa, etab.”.

Bestalde, ez da ahaztu behar kontsumoa hainbat sistema ekonomikotan dagoela eta gizakion beharrak eta nahiak asetzearekin erlazionatuta dagoela. Esparru teoriko honetan, kontsumo kapitalista argi zedarritu, zehaztu eta analizatu nahi dugu, baina **genero-harremanen esparru berri** bat eraikitzeke konpromisoa duten, mundu-mailan gizarte-aldaketa bat bultzatu nahi duten eta emakumeei eta beste pertsona diskriminatu batzuei beren eskubideak eta aukerak itzuli nahi dizkien alternatibak badaudela adieraziz. Alternatiba horiek, gainera, beren planteamendu eta praktiketan desberdinkeriak eta indarkeriak identifikatzeko “ohartarazpenak” ere izan beharko dituzte.

³⁰. Deshazkuntzaren arloan lan egiten duten hainbat egilek birkontzeptualizatzea eta birlokalizatzea ere barne hartzen dituzte.

2015eko urtarrilean egin zuen topaketan, ZarenSare EnRedando sa-reak gizarte-aldaketa kontzientzia aldaketa baten eta jokabide eraldatzaileen bitartez bultzatzea erabaki zuen, eta hori gizarte-justizia eta -berdintasunezko ikuspegi feminista batean oinarrituz egitea, tokiko esparruan nahiz nazioartean ekoizpen, banaketa eta **kontsumo arduratsu, kontziente eta eraldatzailea** bultzatuz, gaur egun nagusi diren eredu ekonomikoa (kapitalismoa), eredu politikoa (demokrazia liberala) eta eredu soziokulturala (indibidualismoa eta heteropatriarkatua) zalantzan jarritz, berdintasun eta begirune handiagoa sustatzeko orotariko harremanetan: gizarte-talde, kultura eta herrien artekoetan, gizonen eta emakumeen eta bestelakoen artekoetan eta pertsonen eta naturaren arteko harremanetan.

4 | INDARKERIA MATXISTAK KONTSUMO KAPITALISTATIK

Atariko ohar batzuk: genero-desberdinkeriak eta kontsumoak

Gure hausnarketa- eta ikaskuntza-prozesu kolektiboan indarkeria matxisten inguruan dugun ikuspegitik³¹, indarkeria matxistak ahalbidetzen edo/eta betikotzen dituzten kontsumo kapitalistaren esparru eta tresna batzuk identifikatu ahal dira. Esparru teorikoaren atal honetan, aipatu eta nabarmendu nahi ditugu, Euskadin egin dugun diagnostiko-lanean azaleratu eta analizatzea errazteko. Horren harira, gure ustez esparru teoriko hau “bizi egin behar da” eta baliozkotu egin behar da bere egokitasuna baloratzen duen aplikazio praktikoko baten bitartez, esparru teoriko perfektu eta bukatu bat proposatzeko asmorik ez badugu ere.

Lehenago ere adierazten genuen bezala, prozesu honetan kontsumoaren esparruan kontzentratu garen arren, gogorarazi behar dugu ekoizpen-, zirkulazio-, banaketa-, kontsumo- eta botatze-kate baten parte dela eta kate horrek kontsumoa azaltzen eta konplexu egiten duela. Gainera, azpimarratzekoa da kontsumoa mantentzeko erabakigarriak direla hainbat kultura- eta publizitate-tresna. Kate horretan, desberdinkeriak ikusten eta errepikatzen dira, eta bere etapa guztietan ezkutuko indarkeria matxistak dauzkalakoan gaude (ekoizpen-etapako emakumeen lan-ustiapena adibide bat izango litzateke). Horrenbestez, kontsumoaren eta indarkeria matxisten arteko lotura hori katearen beste mailak (gure prozesuan jorratu ez ditugunak) analizatuz ere osatu behar da.

Hausnarketa eta ikasketa kolektiboaren oinarrietako bat izan da genero-kontsumoek³² **indarkeria matxistak eragiten dituztela**, baita genero-desberdinkeriak betikotzen dituztela ere. Zentzu horretan, kontsumoa, praktika sozial

³¹. Emakumeak eta arau hetero-sexualarekin eta generoarenarekin bat ez datozen pertsonak diskriminatzeko, zapaltzeko eta menperatzeko eta jaramonik ez egiteko ekintza oro.

³². “Genero-kontsumoa” da beharrak erosketaren eta erabileraren bitartez asetzea, edo bizitza-estiloaren parte diren jokabideak, rol tradizionalak jarraiki sozializatuz egiten direnak, genero-sozializazioaren barruan, gizon edo emakume gisa.

eta kolektibo bat bezala ulertuz, hainbat gizarte-baldintzatzailearen ondorioz pertsonak modu desorekatuan kokatzen diren esparru bat bezala erakusten dugu. Bada, kontsumoan gizarte-desberdinkeriak islatzen eta errepikatzen dira, “*eta horrela, gizarte-jarduera hori funtzionala da nortasunak prestatzeko eta familiaz arduratzeko (...) eta eragin zuzena du bizimoduetan eta gizarte-berdintasuna eta -desberdinkeria eragitean*” (Alonso, 2005).

Kontsumoan pertsonak modu desorekatuan kokatzen dituzten baldintzatzaile edo faktoreetako bat generoa da. Bada, kontsumoa lanaren banaketa sexualean oinarritutako genero-desberdinkeriak ezartzen eta errepikatzen dituen esparru bat da, eta emakumeen gorputza gauza bat bezala tratatzea, genero-estereotipoak (gizona dirua irabazten duena eta emakumea kontsumitzailea; emakumeak apetatsuak eta gizonak arrazionalak; emakumeak ezjakinagotzat jotzea hainbat arlotan, hala nola mugikortasun- eta teknologia-kontutan; eta horrela, batzuk kontsumo-esparru batzuekin erlazionatzea eta besteekin ez), etab. ere bultzatzen eta betikotzen ditu.

Testuinguru honetan, gailentzekoa da emakumeak kontsumitzaile handiak direla bi zentzutan: (1) zaintzaren arduradun nagusia izanik, oinarritzko beharrak asetzeko produktuak eta beren kargura dituzten pertsonen eskatzen dizkieten beste produktu batzuk kontsumitzen dituzte; eta (2) estetikaren esparruko kontsumitzaile nagusiak dira (moda, kosmetika, edertasun-terapiak, etab.). Gainera, emakumeak lan-merkatuan gero eta sartuago daudenez, beren diru-sarrerak dituzte, eta horrela, emakumeek kontsumitu ahal dute, baita beren erabakiak hartu ere. Ikuspegi feministatik emakumeen emantzipazioak ez du berez esan nahi emakumeek kontsumoan presentzia eta eskuragarritasun handiagoa lortu dutenik (balio kapitalistan oinarritutako kontsumoari dagokionez), baina fenomeno azpimarragarri bat da, arreta merezi duten errealitate berriak direlako. Are gehiago, aldaketarik handienetako bat da 50eko hamarkadan gizonetako kontsumo-esparru batzuetara sartu zirela, estatusa ematen duten ondasunen kontsumora, alegia (esaterako, autoa erostea). Gainera, fenomeno berri horietako beste bat da gizonak tradizionalak emakumeekin erlazionatu diren kontsumo-esparruetara sartu direla (estetika, arropa, etab.), eta horrek, gizonen eta emakumeen artean berdintasun handiagoko harremanak bultzatu beharrean, kapitalismoaren berezko balioak ditu oinarri gisa (hedonismoa eta indibidualismoa, zehazki), eta horrela, orotariko desberdinkeriak betikotzen dira (genero-desberdinkeria barne).

Azpimarratzekoa da zaila dela kontsumoan gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasun eta desberdinkerietan sakontzea, azterlan gutxi egin direlako eta datu kuantitatibo gutxi daudelako, ekonomiatik eta soziologiatik etxeak (hau da, familia-unitateak) jo direlako oinarritzko kontsumo-unitatetzat. Bereizketa eta ezagutza falta hori beste indarkeria mota bat da, eta etxeen eta haien barruko harreman eta erabakien oihartzun falta eta gutxiespena islatzen ditu, ia beti gizonetako nagusitzat jotzen dituen gizarte kapitalista honetan.

Ondorengo taulan³³, kontsumoa generoaren ikuspuntutik analizatzea kontuan hartu beharreko alderdi batzuk jaso ditugu.

33. Lan hau oinarri gisa hartuz prestatua: Piñeiro, Concepción (Altekio S.Coop.) eta Ballesteros, Carlos (2012). Zergatik kontsumitzen dugu? kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzailearen gaineko orientabide didaktikoak Euskadin, genero ikuspegiaren abiapuntutik. SETEM



8. TAULA KONTSUMOA GENEROAREN IKUSPUNTUTIK ANALIZATZEAN KONTUAN HARTU BEHAR DIREN ALDERDIAK

GENEROAREN HARIRA AINTZAT HARTZEKO

Pertsonen erosketa-jokabideak arazo bat konpontzen saiatzea esan nahi du. “Egoera ideala” (nahi dena) eta “egungo egoera” bat etor daitezela lortzen saiatzea da.	Gizonezkoen kasuan, egoera “idealak” subjektibitate maskulino batean oinarrituz eraiki dira, “norberarena norberarentzat” ideia oinarri gisa hartuta; emakumeen egoera “idealak”, ordea, subjektibitate femenino batetik eraiki dira, “besteentzat”, hau da, besteen beharrak norbere beharren gainetik jarritz. Emakumeen kasuan, emakumeen paper hauek azpimarratu dira: ✓ beste batzuen zaindariak, etxeko produktuen eta elikagaien esparruan, adibidez; ✓ emakume ezkongabe heterosexuala, gizon bat lortzen saiatzen ari dena, estetikaren esparruan, esaterako; ✓ “emakume berria”, tradizionalak gizonezkoei egotzi zaizkien ezaugarri kapitalistekin (independentea, ekintzailea, dinamikoa, asmo sendokoa, etab.), aisialdiaren esparruan, adibidez.
Erosketa-erabakiak honela sailka daitezke: (1) Ohikoak, edo konponbide arruntak, eguneroko arazoak konpontzeko errutinakoak; (2) Mugatuak, edo konplexutasun txikiko konponbideak, produktuak inplikazio-maila eta garrantzi ekonomiko txikikoak direlako; eta, (3) Hedatuak, edo konponbide konplexuak, beste arazo batzuk sortzen direlako edo inplikazio-maila handikoak direlako.	Ondasun edo zerbitzu baten erosketa zenbat eta ezohikoagoa izan eta zenbat eta esangura sozial handiagoa izan, orduan eta pisu handiagoa dute gizonezkoek erosketaren erabakian eta betearazpenean. Maiztasun handiagoarekin egiten diren erosketak beharrezkoak dira etxeko ongizaterako, eta emakumeen eguneroko lanaren parte dira. Gizonek, berriz, gastu handiagoak eragiten dituzten eta gizarte-oihartzuna duten erabakietan parte hartzen dute.
Erabakiak hartzean hainbat faktorek dute eragina: norbanakoa, gizartea eta ingurua.	✓ Norbanakoaren faktoreak: ikuspegi dikotomiko patriarkaletik, emakumeak erraz konbentzitzen direla adierazten da, eta publizitateak nahiz saltokietako pizgarriek ezaugarri horiei egiten diete erreferentzia, eta horrela, emakumea kontsumo konpultsiboaren xede bihurtzen da. ✓ Gizarte-faktoreak: sistema patriarkalak emakumeak zalantzatitza eta irizpiderik gabekotzat jotzen ditu, eta ondorioz, beste norbaiten iritzia behar balute bezala identifikatzen ditu. Horregatik, beren generoarekin erlazionatu ohi diren erabakiak uzten dizkie (elikadura, etxeko produktuak, estetika, adibidez), baina erabaki garrantzitsuak gizonezkoekin hartzen dituzte. ✓ Bizitza-estiloetan eta kontsumo-ohituretan eragina izaten ari diren beste gizarte-faktore batzuk honakoak dira: familia- eta bizikidetzaren eredu berriak eta emakumeak gero eta gehiago ari direla sartzen lan-merkatara, baina beti ere emakumeen arteko desberdintasunek eta desberdinkeriek kontsumo-erabakiak markatzen dituztela ulertuz. ✓ Inguruko faktoreak: zehazki kasuan kasuko ingurukoak direnak, hala nola legeria-aldaketan bitartez lortu diren berdintasun instituzionalak, hezkuntza-curriculum ofizialekoak, etab.

Erabakietan hainbat faktorek eragina duten bezala (norbanakoarenak, gizarte-faktoreak eta inguruarenak), Mindell-ek (2014) adierazten zuenez, indarkeriak alderdi dimentsioanitzak dauzka, eta bere eragina maila sozialean landu behar da, taldeetan (familiak barne), harremanetan eta pertsona bakoitzaren barnean.

INDARKERIA MATXISTEN ETA KONTSUMO KAPITALISTAREN ARTEKO HARREMANA³⁴

Gure hausnarketa-prozesuan zehar, lau kontsumo-esparru bereziki garrantzitsutzat jo genituen genero-desberdinkeriak eta indarkeria matxistak aztertzeke (elikadura, etxeko produktuak, mugikortasuna eta estetika). Ondorengo taula prozesuaren Aholkularitza-taldeko lau erakundeek (Mugarik Gabe, Altekio, Setem eta Oreka Sarea) ekarpenekin egin da, baita ZarenSare-EnRedando sareko erakundeek langileria teknikoaren eta boluntarioen hausnarketekin ere, eta Diagnostikoaren lehenengo faseetan kontsumo-esparruen inguruko informazioa lortzeko eta eguneroko indarkeriak identifikatzeko tresna baten bitartez egin ziren kontsultak. Taulan, erronka zehatzetan sakonduz aztertutugun kontsumo-esparruetako bakoitzean modu feministan lan egitearen garrantziari buruzko argudioak jaso dira. Gainera, prozesuan parte hartu duten erakundeek esparru bakoitzean identifikatu dituzten indarkeria matxistak jaso dira.

³⁴. Gailentzekoa da prozesu honetan indarkeria matxistekin duten harremana dela-eta bereziki garrantzitsuak diren lau kontsumo-esparru identifikatu diren arren ez direla analisi honi heltzeko aukera ematen duten bakarrak. Nolanahi ere, prozesuan esku hartu duten erakundeek garrantzitsuentzat jo dituztenak aipatu ditugu.



9. TAULA INDARKERIA MATXISTAK 4 ESPARRU AZTERTUETAN



ESTETIKA³⁵

Begirada kritiko feministatik duen garrantzia	Indarkeria matxista potentzialak
Estetika denboran zehar aldatu den eraikuntza sozial bat den arren eta nahiz eta kultura bakoitzak modu desberdinean ulertu duen, beti egon da erlazionatuta feminitatearen balioekin eta emakumeek sistema patriarkalean bete behar dituzten rolek. Bada, emakumeak gure kulturen irudikatzeko erabili diren moduek emakumearen sexualtasunari eusteko eta bere gorputza arautzeko asmo sendoa izan dute ardatz. Gure gizarte kapitalistan, homogeneousazio kulturalaren bitartez, emakumeen edertasun-eredu jakin bat normalizatzen da, itxura estereotipatua (emakume zuria, 90-60-90, gaztea eta heterosexuala) eta lortezina, gizartearen onarpena eta arrakasta ziurtatzen dituen: gizonen gustukoa izatea, alegia. Eta estetikarekin erlazionatutako produktuen kontsumoa (arropa eta kosmetika) kanon "ideal" hori lortzeko bide nagusietako bat da. Are gehiago, gero eta gehiago hitz egiten da emakumeak gauza moduan tratatzeari buruz, emakumeen gorputzak kontsumitu, erabili eta bota daitezkeen objektu bat bezala irudikatzen direlako. Horrela, emakumeak kontsumorako subjektu eta objektu bihurtzen dira aldi berean.	✓ Indarkeria sinbolikoa: publizitatean emakumeak objektu sexual eta kontsumo-gai moduan erabiltzean (oso agerikoa eta bortitza da batzuetan, eta ez hain agerikoa beste batzuetan), emakumeen gorputza tratatzeko moduan (zaticatzea, gauza moduan tratatzea...) eta estereotipo sexistak behin eta berriro erabiltzean (modernizatuta edo ez), sistema patriarkaleko pribilegioak mantenduz. ✓ Zuzeneko indarkeria: produktu estetikoen kontsumoaren bitartez transmititzen diren ideiak, gizartearen imaginario honetan emakumeen bizitzan eta gorputzean eragina dutenak, honakoak dira: orotariko ebakuntza estetikoa, eta askotan arriskutsuak, depresioa eta segurtasun falta, elikadura nahasmenduak... Bestalde, kosmetiko batzuek emakumeen osasunean eragina dute beren osaketa kimikoagatik, baita hainbat jantzik ere, esaterako kortseek, takoiek... ✓ Egiturazko indarkeria: produktu jakin batzuen "tasa arrosa" k emakumeek produktu beragatik gizonen baino gehiago ordaintzea eragiten du. Paraleloki, eta oro har, emakumeek gizonen baino gutxiago irabazten dute, egungo testuinguru kapitalista eta patriarkalaren ezaugarria baita emakumeen kontrako indarkeria ekonomikoa (emakumeek erosahalmen txikiagoa dute, eta horrela, saltzen den eta kontsumoarekin lortu nahi den estatusa lortzea zailagoa da emakumeentzat).

35. Estetika-produktuei buruz hitz egiten dugunean, kosmetikari eta arropari buruz ari gara.



JAKIAK

Begirada kritiko feministatik duen garrantzia	Indarkeria matxista potentzialak
Edonoren ohiko ekintzetatik hurbilen dagoen esparruetako bat da, eta are gehiago oinarritzko beharrei erantzuten diela kontuan hartuz. Sektore potentzialki interesgarria da ahalik eta irabazi ekonomikorik handiena bilatzen duen eta herritarren oinarritzko beharrei jarraiki negozio-berme handia eragiten duen edozein sektorerentzat. Esparru honetan genero-bereizketa handia dago lanaren banaketa sexualaren ondorioz, zaintzeko lana (elikatzea, garbitzea, etab.) esparru pribatuarekin/etxearekin erlazionatzen baitu eta lan hori emakumeek egin baitute, eta gainera, ikusezin egin da, merkatutik kanpo dago eta ez da zenbatzen.	✓ Egiturazko indarkeria: emakumeak baliabide ekonomikoak falta zaizkiela-eta elikadura osasungarria lortzeko desberdinkeriazko egoeran daudelako. Gainera, elikaduraren arloko erabakiak funtsezkoak dira, oinarritzko beharrei erantzuten baitiete, eta emakumeek hartzen dituzte. Ikusezin egin den eta baloratzen ez den lan bat da. Bestalde, ez da aipatu gabe utzi behar beste pertsona batzuk zaintzeaz arduratzen diren emakumeak "jaten azkenak" direlako ideia. Horrek, testuinguru pobretuetan, osasun-arazoak areagotzen ditu eta desberdinkeriak handitzen ditu. ✓ Indarkeria sinbolikoa: emakumeek elikagaitan egiten duten kontsumo gehiena familia zaintzeko da, hau da, etxerako, ez beren beharrak eta nahiak asetzeko. Bestalde, genero-estereotipoek emakumeek elikadura urria behar dutela adierazten dute: emakumeek, biologikoki, "ez dute hainbeste jateko beharrik". Azkenik, birziklatzeko edo berrerabiltzeko kanpainak (eta oinarritzko produktuen eta zaintzarekin erlazionatutakoen kontsumo arrunterako direnak) emakumeei daude zuzenduta, eta horrela, erantzukizun handiagoa egozten zaie. ✓ Zuzeneko indarkeria: produktu hauek banatzen dituzten enpresa handiak emakumeen gorputzaren estandarizazioan eta edertasun-ereduetan oinarritzen dira. Horren guztiaren ondorioz, askotan, emakumeek presio estetikoa jasaten dute, eta horregatik, emakumeak dira light produktuen eta elikagai osagarrien kontsumitzaile nagusiak, besteak beste. Aurrekoaren harira, gorputzen eta beren elikadura-beharren estandarizazioa bultzatzen da sexua/generoa binomioari jarraiki.



MUGIKORTASUNA³⁶

Begirada kritiko feministatik duen garrantzia	Indarkeria matxista potentzialak
Mugikortasuna, edo garraioa, mugimendu-askatasunarekin eta irisgarritasunarekin dago erlazionatuta, baita pertsonen artean, beren buruarekiko eta ingurumenarekiko dituen eraginekin ere. Baina ez da norbanakoaren aukera edo erabaki huts bat, lurraldeen diseinuarekin (herrialdeak/herriak, eta hirien eta landaren arteko konexioa), azpiegituren arloko inbertsioen politika publikoekin eta energia/baliabide politikekin, etab. ere erlazionatuta baitago. Hori guztia generoen rol tradizionalen eraginpean dago, eta, aldi berean, rol horiek indartu egiten ditu eta desberdintasunak betikotzen ditu.	✓ Egiturazko indarkeria: kapitalismoan, mugikortasunak autoa izan du ardatz, eta horregatik, bereziki autoentzat diseinatuta dauden hiri eta azpiegiturak daude (eta gizonezkoak mugitzen dira autoz, nagusiki). Mugikortasunaren arloan menpekotasun handiagoa duten pertsonen kontrako indarkeria da, hots, emakumeen kontrakoa, baliabide gutxiago dituzten pertsonen kontrakoa... Emakumeek, adibidez, gehiago erabiltzen dute garraio publikoa, besteak beste, gizonek ibilgailu pribatuen monopolioa dutelako; horren harira, garraio publikoa segurua, eroso eta malgua izatea eta emakumeen beharrei erantzun diezaiela bermatu beharko litzateke. Aldi berean, garraio publikoak ez ditu beti aintzat hartzen zaintzarekin lotutako beharrak, adibidez umeak eramatea eta adineko pertsonen eta gaixoei batera joatea (edo erosketa-gurdi sinple bat eramatea ere). Baina horrez haraindi, berdintasuna/ekitate oro har eta generoari dagokionez auto bat eskuragarri izatea dela pentsatzea mugikortasunaren eredu kapitalista, kolonialista eta androzentrista inposatzeko modu pribatu bat da, horrek eragin handia du ingurumenean (baliabideak kontsumitzen ditu, Berotegi-efektuko Gasak —BEI— isurtzen ditu, bideekin lurraldeak zatikatzen dira, zaratak, etab.), eta horrek ere eragina du pertsonen osasunean (emakumeen/gizonen, nesken, "Hegoaldearen"/"Iparraldearen", hiriaren/landaren, eta abarren artean ere desberdinkeriak daude) eta beste espezie batzuetan nahiz ekosistema desberdinetan. ✓ Indarkeria sinbolikoa: publizitateak erakusten duenez, autoa konnotazio sexisten eta indibidualisten sinbolo bat da, produktu hauen publizitate-kanpainak nagusiki gizonei zuzendu ohi baitira, gizonek gizarte- eta ekonomia-estatus handiagoa dutela nabarmenduz. Emakumeak bigarren planoan agertu ohi dira, edo gizonek publizitateko autoa erosiz lor dezaketean "saritxo" gisa irudikatzen dira.

36. Mugikortasunaren atala honakoen ekarpen teorikoetan oinarrituz idatzi da: Carmen Lizárraga (2013), Yayo Herrero (2010), Matxalen Legarreta (2014), Gerd Johnsson-Latham (2007), besteak beste.



ETXEKO PRODUKTUAK³⁷

Begirada kritiko feministatik duen garrantzia	Indarkeria matxista potentzialak
Hasiera-hasieratik, merkatua eta publizitatea produktu hauek biztanleriaren sektore jakin bati saltzera bideratu dira: emakumeei, hau da, "etxeakoandreei", haiek direlako etxeoko eginbeharrez eta besteak zaintzeaz arduratzen direnak, batik bat. Fenomeno sozial eta ekonomiko gehienak bezala, kontsumoa gizartearen dinamika berrietara egokituz joan da, eta gaur egun emakume kontsumitzaileen eta etxeakoandreen arteko harreman hori hain argi ez dagoen arren, ezin dugu ahaztu produktu hauen salmenta emakumeei dagoela zuzenduta nagusiki³⁸, baina ñabardura garrantzitsuekin. Are gehiago, kontsumoaren bitartez, bestelako emakume bat sustatzen da: emakume modernoa. Bestela esanda, aldi berean profesionala eta ama den eta etxea eta etxeakoak zaintzen dituen emakume baten irudia. Testuinguru honetan, gaur egungo emakumeak hiru lanaldi bete behar ditu: lana, etxeakoak zaintzea eta etxea zaintzea.	✓ Violencia estructural Egiturazko indarkeria: produktu hauen salmentan lanaren banaketa sexuala agerikoa da, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak sustatzen ditu, eta zaintza-lanak bizitza eta sistema mantentzeko duen garrantzia ikusezin egiten jarraitzen du. ✓ Indarkeria sinbolikoa: publizitateak, batetik, desberdinkeria horiek mantentzea sustatzen du, emakumeak familiaz arduratzeko rolean harrapatzen dituen sinboloak zabalduz. Bestalde, engainatu eta manipulatu egiten ditu, "zorion" eta "gogobetetasun" balioak eta sentimenduak sustatzen dituelako produktu hauek erostearekin erlazionatuz. Hau da, etxeoko eginbeharrez arduratzea esperientzia "zoragarria" izan daitekeela eta entretenigarria eta atsegina dela adieraziz. ✓ Zuzeneko indarkeria: emakumeen lanaldi hirukoitzak (lana, familia eta bere burua) eta besteak eta etxea zaintzeko ardura ia osoak ondorio garrantzitsuak ditu emakumeen osasunean, estresa eragiten dielako, baita frustrazioa eta erruduntasun-sentimendua ere, ezin dutelako dena egin. Gainera, ez dugu ahaztu behar etxeoko produktuak konposatu kimikoekin prestatu ohi direla eta horietako asko toxikoak eta kaltegarriak direla. Horregatik, azpimarratzekoa da produktu horiek modu jarraituan erabiltzeak oso ondorio larriak dituela erosten eta egunero erabiltzen dituzten pertsonen osasunean (emakumeen osasunean).

37. Etxeko produktuei buruz hitz egiten dugunean, funtsean zaintzarekin eta etxea mantentzearekin erlazionatutako produktuei buruz hitz egiten dugu (garbitzeko produktuak, etxetresna elektrikoak, etab.).

38. Etxeko eginkizunez arduratzen agertzen diren gizonek ezgaitasun-estereotipoak betetzen dituzte.

Kontsumo kapitalista arrunteko indarkeria matxistak nabarmendu eta analizatzerakoan arreta berezia merezi duen fenomeno bat da **gorputzak** (eta bereziki emakumeenak) gaixotzea **eragiten duten produktu toxikoen kontsumoa**. Bada, egunero kontsumitzen ditugun produktu askok (botikak, pestizidak dituzten landareak eta frutak, toxizitateak jasan dituzten haragiak eta arrainak, garbitzeko produktuak, kremak eta beste produktu estetiko batzuk) gizonen eta emakumeen gorputzerako oso eragin negatiboak dituzten substantzia toxikoak dituzte. Hala ere, kontsumoaren kapitalismoak pilatzearen logika bultzatzen du gorputzen osasunaren gainetik, eta irabazia lehenesten du bizitzaren kostura. Horren harira, azterlan profesional feministetan³⁹ oinarritutako hausnarketa-prozesuan esku hartu duten erakundeek identifikatu dute emakumeek kalteberatasun sozial (garbitzeko eta estetikako produktuekin zuzenean kontaktu handiagoa dutenak emakumezkoak dira) eta fisiologiko (emakumeen gorputzak gantz-ehuneko handiagoa dute, eta hor pilatzen dira toxikoak, eta horrela, hormona-alterazioak, defizit metabolikoak eta gaitz autoimmuneak eragiten dituzte) handiagoa dutela. Era berean, gaixotasun feminizatuak eta, ondorioz, ikusezin eginak direla salatzen zuten⁴⁰. Are gehiago, J. Fernández Soláren iritzian, Sentsibilitate Kimiko Anitzak (SKA) zortzi aldiz eragin handiago du emakumeengan⁴¹ gizonengan baino, izan ere: *“oro har, askoz ohikoagoa da emakumeen artean emakumeen hormonek, estrogenoek, sentsibilizazioa bultzatzen dutelako”* (Fernández Solá, 2015).

Azkenik, oso-oso garrantzitsua da **publizitateak indarkeria matxistak baliatzeko tresna gisa betetzen duen papera** azpimarratzea. Hain zuzen ere, indarkeria matxisten eta publikitatearen arteko harremana ez da azterketa-eremu berri bat, eta egile askok, hala nola gure prozesuan parte hartu duten hainbatek, publikitateak feminitatearen eraikuntza kultural eta sozialerako eta indarkeria matxistez baliatzeko duen garrantzi handia azpimarratu dute,

39. Alicia Puleoren lana eta Carme Valls-Llobet endokrinoaren lana kontsultatzea gomendatzen dugu. Baita Silvia López Gil pentsalari eta aktibista feministak gai honen inguruan egin dituen hausnarketak ere.

40. Elementu kimiko jakin batzuek emakumeen osasunean duten eraginari buruzko ikerketa zehatzak falta dira (adibidez, bular-minbiziarekin erlazonatutako parabeneak). Sentsibilitate Kimiko Anitzak (SKA), esaterako, eragin handiagoa du emakumeengan.

41. “Emakumeei buruz hitz egiten dugunean, ‘bioemakumeak’ direlakoei buruz ari gara; emakume-identitateen aniztasun handia dago, eta substantzia agrotokikoen datu horren eragin desberdinak jasaten dituzte, besteak beste emakume transexualek (diskriminazio-arazo asko jasaten dituzte)”. Ildo honetatik, desberdintasun horiek aipatzea kontsumo kontzientea sustatzeko dokumentu eta diskurtso batzuetan baloratu behar dugun dimentsio bat bezala agertzen den alderdi bat da” (Conchi Piñerio eta Javier F. Ramos Altekio, 2013)

42. Iturria: Urretabizkaia Gil, Leticia (2013). “Experiencias prácticas ricas y diversas desde el consume. Introduciendo la Mirada Feminista” hemen: Emakumeen Nazioarteko Ibilaldia (2013). Tejiendo alianzas para una vida sostenible. Consumo crítico, feminismo y soberanía alimentaria.



“Pertsona guztiok kontsumitzaileak garen arren, emakumeok kontsumistagotzat, apeta-tsuagotzat eta inpulsiiboagotzat jotzen gaituzte, eta horregatik gara publikitate-estrategien xede, eta horrek, era berean, gezurrezko uste hori elikatzen du. Bada, askotan, publikitatea guri zuzentzean etxekoandre gisa irudikatzen gaituzte (elikaduraren eta etxeko eginkizunen arduradun nagusi gisa), edo desiratzen den zerbait bezala, eta badirudi erosten ditugun elikagaien antzekoak izan behar dugula, hau da, ederrak kanpotik eta toxikoz beteta barrutik (kosmetikoen eta kirurgia plastikoaren menpe, nagusiki). Bada, publikitateak neurri handi batean bultzatzen du gure elikadurarekiko eta gure gorputzekiko dugun alienazioa, eta antzekotasun kezagarriak dituzte”.

Leticia Urretabizkaia Gil⁴²

nahitaezko tresna baita egungo kontsumoaren gizartean kontsumitzaileek produktu eta zerbitzu jakin batzuk eros ditzaten.

Ikuspegi historiko batetik, esan daiteke indarkeria matxistak baliatzeko lehenengo publizitate-estrategietako bat izan dela **genero-rolak mantentzea**, hau da, gizartean gizonei eta emakumei egozten zaizkien paperak eta haiengandik espero dena; hain zuzen ere, emakumeak esparru pribatura/familiaz arduratzeko lanera mugatu dituzte, eta gizonak esparru publikora/produktibora, eta horrela, lanaren banaketa sexuala eta emakumeen menpekotasun historikoa bultzatu dituzte. Publizitatean emakumeak eta gizonak irudikatzeko ereduek ez dituzte gezurtatzen genero-estereotipoak; aitzitik, garaian garaiko eta testuinguruko genero-estereotipoak ikaragarri sustatzen dituzte⁴³. Maila honetan, alderdi garrantzitsu batzuk azpimarratu nahi ditugu:

- ➔ Gaur egun, emakumeak esparru produktiboan gero eta sartuago dauden arren, publizitateak plazaratzen duen mezuak oraindik ere emakumeak zaintza-lanez eta etxeko eginkizunez gehien arduratzen direnak bezala irudikatzen ditu. Hau da, “ama eta emaztea” papera betikotzen jarraitzen da, berdintasunezkoagoak eta bi sexuen erantzunkidetasunaren ikuspuntua barne hartzen dituen mezuak zabaldu beharrean. Horrek guztiak eragin argia du emakumeen bizitzan, lanaldi bikoitza edo hirukoitza bete behar dutelako, eta horrek guztiak, beren aisialdirako denbora murrizteaz gain, beren bizi-kalitatean eta ongizate fisiko eta emozionalean ere eragina duelako (nekea, estresa, errudun sentimendua ez delako iristen “dena” egietara, etab.).
- ➔ Gainera, publizitate-diskurtso hauek gizonentzat baliozkoak diren gizarteko eta laneko arrakastak proposatzen dituzte, “gizonen neurri-rakoak”. Hau da, emakumeek esparru publikoan arrakasta izateko, nahitaez bete behar dituzte gizonezkoen ezaugarri “tipikoak”, hala nola agresibitatea, lehiakortasuna, etab. Horrek guztiak, emakumearen uni-bertsoa desbalorizatzear gain, emakumeek lanbide “arrakastatsuak” (normalean maskulinizatuak) lortzeko gainditu behar izan dituzten oztopoak ezkututzen ditu, baita lanpostua mantentzeko zailtasunak ere, gizonezkoen jardunen eta harremanen testuinguruan lortu ondoren.
- ➔ Bestalde, esparru publikoan emakumeak hezkuntzako, osasuneko, gizarte esku-hartzeko eta antzeko arloetako profesional moduan aurkezten dira. Gizonak, aldiz, enpresetako zuzendari, negozio-gizon, etab. gisa aurkezten dira. Esparru edo sektore berean ere, emakumeak gizonen menpeko posiziotan agertu ohi dira. Esate baterako, osasun-zentro baten inguruko duela gutxiko kanpaina batean, deigarria zen emakumezkoak erizain lanetan azaltzen zirela eta medikuak gizonezkoak zirela.

43. Emakumeek eta gizonen publizitatean izan dituzten irudien errepaso historikoa egitean argi ikusten da irudi horiek egitura androzentriko eta patriarkalei jarraiki eraiki direla, garaian garaiko testuinguru kultural, ekonomiko eta sozialera egokituta. Bada, 40ko hamarkadan, adibidez, kontsumoa emakumei zegoen zuzenduta batik bat, emakumeak arduratzen baitziren bizitza mantentzeaz, familiak arduratzeko lanez eta etxeko eginbeharrez arduratuz. Horregatik, kontsumoko produktu askoren publizitatea emakumei zegoen zuzenduta, eta emakumeek, erosiz, beren senarren erosahalmena izatea lortzen zuten. 60ko hamarkadan, berriz, emakumea lan-merkatuan nabarmenkiago hasi zen sartzen, eta une hartan hasi zen agertzen idenpendentzia ekonomikoan (“emakume zuzendaria”), gorputzaren kultuan eta sedukzioan (“top model”) oinarritutako feminitate-eredu bat.

- Emakumeak irudikatzeke modu horiek ondorio larriak ditu imaginario kolektiboan, lanaren banaketa sexualak eragina baitu emakumeek eta gizonen beren nahiak eta desioak egia bihurtzeko aukera izan dezaten. Gainera, emakumeentzat negatiboak diren gizarte-fenomenoak bultzatzen ditu, adibidez laneko diskriminazioa eta soldaten arteko aldea, besteak beste.

Generoen rola mantentzearekin lotuta, publizitateak indarkeria matxistekin jokatzeko du, oso **gizarte-eredu heteronormatiboa** proposatzen duelako. Publizitatea ez da erosketa-jokabideak bultzatzeko eta kontsumo-ohiturak sustatzeko tresna komunikatibo huts bat; ideologia transmititzeko oso tresna eraginkorra da batik bat. Are gehiago, genero-roletan oinarritutako familia-eredu tradizionala erakusten jarraitzen du, eta, esan dugun bezala, eredu horrek emakumeen menpekotasuna bultzatzen eta betikotzen du. Gainera, ez dugu ahaztu behar familia-eredu horiek maitasun erromantikoan, gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanetan eta antzeko idealetan oinarritzen direla, sarritan bestelako harremanak ezartzeko aukeran eragina dutela, eta horiek ere genero-estereotipoen eragin nabarmena dutela.

Hainbat egilek gogorarazi diguten bezala, oso lotura estua dago maitasun erromantikoaren eta indarkeria matxisten artean.

Bestalde, familiaren eredu tradizionalak bestelako gorputzak, identitateak eta orientazio sexualak dituzten pertsonak baztertzen ditu, eta horrela, pertsona horien diskriminazioa mantentzen dadila bultzatzen da, eta askotan, gizartetik isolatuak izan daitezela. Egia da publizitatean gero eta gehiago ari dela zabalitzen “gizon homosexual”aren irudia (normalean erosahalmen handikoa eta “modernoak”), baina homosexualtasunaren irudia estereotipaturik eta osatu gabe agertzen da, eta ez ditu heteronormatiboak ez diren beste pertsona batzuk barne hartzen, bereziki emakumeak. Adibidez, lesbianek publizitatean duten irismenari buruz hausnartzea nahikoa da ikusteko emakumeak direla diskriminazio eta ikusezintasun handiena jasaten dutenak.

Azkenik, publizitateak indarkeria matxistak baliatzen ditu **edertasun-ideal lortezin bat eta gorputzaren kultura** sustatuz. Erreala ez den irudi bat sustatzen duen ideal bat da, eta horrek norbere gorputzaren pertzepzioari lotutako gaixotasunak areagotzea eragiten du, anorexia eta bulimia, besteak beste, baita kirurgia estetikoaren bitartez beren gorputzaren ezaugarriak aldatzea erabakitzen duten pertsonak areagotzea ere. Hori guztia irudi kulturalen eta hizkuntzaren bitartez emakumeen menderakuntza mantentzen duen indarkeria sinbolikoaren isla da, eta horren biktimarik handienak emakumeak dira. Publizitate-kanpainetan “emakume objektua”ren irudia ere nagusi da. Kontzeptu horrek emakume bat gizonen zerbitzura dagoen elementu erakargarri sexual eta deigarri baten moduan erabiltzeari egiten dio erreferentzia. Are

gehiago, gero eta gehiago hitz egiten da emakumeak gauza moduan tratatzeari buruz, emakumeen gorputzak kontsumitu, erabili eta bota daitezkeen objektu bat bezala irudikatzen direlako. Alegia, irudi horiek **emakumeak kontsumo-rako subjektu eta objektu** bihurtzen dituzte.



10. TAULA GORPUTZAREN GARRANTZIA BEGIRADA FEMINISTA BATETIK

Feminismoek emakumeen gorputza “eremu” politiko moduan definitu dute beti, historikoki edertasun-ideal lortezin bat (beti gaztea, argala eta ederra) ezartzen duen indarkeria sinboliko baten xede izan da eta gauza moduan tratatzen da ideologia patriarkalaren neurrira.

Egungo kontsumoaren gizartean, gorputza oso-oso garrantzitsua da. *“Produktu eta kapital fisiko bihurtzen denez, industria asko gorputzera zuzenduta daude, hala nola moda, edertasuna, fitnessa, ongizatea, kirurgia estetikoak, industria farmazeutikoak, medikuntza instituzionala eta alternatiboa, etab. eta publizitate-estrategien bitartez sustatzen dira”.* (Soley Beltrán, 2008)



3

Landa-lanaren emaitzak

1 | SARRERA

Esan dugun bezala, prozesuaren pieza erabakigarri bat izan da indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalistaren azterketa/diagnostikoa. Euskadin egin zen, bi helbururekin: (i) euskal herritarrek indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalista arruntaren arteko harremana nola ikusten duten jakitea, eta (ii) indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalista arruntaren arteko lotura-ren/harremanaren ezaugarriak zehaztea.

Horretarako, merkatuaren azterketen arloan aditua den ADIMEN enpresaren zerbitzu profesionalak kontratatu genituen. Enpresa horrek egin du landa-lana. Alegia, honakoa egin du:

- **Elkarrizketak eta foku- edo eztabaida-taldeak (analisi kualitatiboa):** sakoneko elkarrizketa erdi egituratuak gauzatu dira (hainbat informatzaile erabakigarriekin); eta eztabaida-taldeak egin dira emakumeekin, eta informazioa alderatzeaz gain, ikerketarako hainbat alderdi garrantzitsutan sakontzea ahalbidetu dute.
- **Telefono bidezko CATI⁴⁴ motako inkesta (analisi kuantitatiboa):** herritarrei zuzenduta, oro har. Inkestarekin, datu kuantitatiboak bildu nahi izan dira euskal herritarrek indarkeria matxisten eta kontsumo kapitalista arruntaren arteko harremanari buruz duten pertzepzioari buruz.

Bi kasuetan (analisi kualitatiboa eta kuantitatiboa), lau kontsumo-esparru proposatu dira behatzeko eta galderak planteatzeko. Gogoan izan behar da aukeratu diren eta erreferentzia gisa hartu diren kontsumo-esparruak honakoak izan direla: elikadura, etxeko produktuak, estetika eta mugikortasuna.

Ondoren, egin dugun landa-lanaren ezaugarri metodologikoak zehaztuko ditugu.

⁴⁴. Computer Assisted Telephone Interview

ELKARRIZKETAK ETA FOKU- EDO EZTABAIDA-TALDEAK (ANALISI KUALITATIBOA)

Ekimen honen helburu nagusia izan da ikustea ea kontsumoaren esparruan nola eta zer mailatan ari diren gertatzen indarkeria matxistak eta zer eragin duten emakumeengan, bereziki, eta ordena heterosexual eta heteronormati-boarekin bat ez datozen beste norbanako batzuegan.

Zehazki, honakoak identifikatu nahi izan ditugu:

- ✓ Kontsumoan ikusten diren indarkeria matxistazko egoerak.
- ✓ Kontsumoaren zer dimentsiotan ikusten diren: publizitatean, prezioetan, produktu motetan, etab.
- ✓ Indarkeria horien eragileak.
- ✓ Indarkeria matxistak betikotzen dituzten mekanismoak.
- ✓ Emakumezkoen eta gizonezkoen artean dituzten ondorioak.

Bestalde, garrantzitsua da azpimarratzea ikerketa enpiriko hau Euskadin gauzatu dela eta Euskadi izan dela oinarritzko datuak jasotzeko azterketa-ere-mu nagusia. Nolanahi ere, Madril, Kolonbia eta Brasil ere islatuta daude, neu- rri txikiagoan bada ere.

Zentzu horretan, garrantzitsua da kontuan izatea Euskadiko errealitate sozio- demografikoa, ekonomikoa, kulturala, etab. emaitzetan eragina duten fak- toreak direla; nolanahi ere, alderdi batzuk komunean ditu beste eremuekin, baita elkarrizketak esparru honetatik kanpo egin direnean ere. Elementu ga- rrantzitsuren bat desberdina denean, behar bezala adierazi dugu.

Horregatik, ikerketa hau, batetik, abiapuntu garrantzitsu gisa ikusi behar da, ez baitago fenomeno hau analizatzen duen beste azterketa enpirikorik, eta era berean, batik bat Euskadin denbora-tarte jakin batean kontsumo kapitalista- ren arloan aurkitu diren indarkeria matxisten analisi sakon bat bezala ere ikusi behar da.

Azterlan enpirikoak hainbat fase paralelo izan ditu:

- ➔ **Sakoneko elkarrizketak feminismoaren, kontsumo kapitalistaren eta ekologiaren esparruko adituekin:** Aholkularitza-taldeak propo- satutako erakundeen/organismoen/elkarteen ordezkariak elkarrizke- tak egin zaizkie kontsumo kapitalistako indarkeria matxistaren egoe- ra zehatzak zein diren zehazten sakontzeko eta egoera horiek zehazten

dituzten dimentsio kualitatiboak eta sinbolikoak analizatzeko. Elkarri-
zketatu ditugun adituen artean, ondorengoak gailentzen ditugu: Mabel
Cañada Zorrilla, Aurora Iturrioz, Maitena Monroy, Ane Martínez Recio,
Monika Plazaola Sojo, Nieves Salobral, Cecilia Alldridge eta Amalia
Cuervo Tafur.

- **Eztabaida-taldeak emakumeekin:** era honetako fenomenoak analiza-
tu eta lantzerak konprometitu eta ohituta dauden aditu horien ikuspe-
gia zabaltzeko, bi eztabaida-talde antolatu genituen emakumeekin, eta
horri esker, biztanleriak bizi duen errealitatea “ukitu” ahal izan dugu,
eta adituen ikuspegia kontrastatzeko puntu bat ere izan dugu.

Hona hemen azterketa kualitatiboaren fitxa teknikoa:



15 SAKONEKO ELKARRIZKETAK

- > **Esparrua:** Euskadi (12 elkarrizketa), Madril, Kolonbia eta Brasil.
- > **Lagina:** 15 elkarrizketa sakon.
- > **Profila:** arloko adituak eta informatzaile erabakigarriak, aholkularitza-taldeak hautatuak.
- > **Elkarrizketaren gidoia:** Adimen Investigación-ek egin eta SETEMen eta Oreka-ren esku jarria, aurretiaz beren baimena eta behin betiko oniritzia eman dezaten.
- > **Kalitatearen kontrola:** ISO 20252 arauaren eta CCI/ESOMAR jokabidearen arabera.



2 EZTABAIDA-TALDE

- > **Esparrua:** Euskadi: talde bat Bilbon eta beste bat Gasteizen.
- > **Lagina:** 2 talde-bilera 8 emakumerekin (bakoitza).
- > **Profila:** 18 urtetik gorako emakumeak.
- > **Elkarrizketaren gidoia:** Adimen Investigación-ek egin eta SETEMen eta Oreka-ren esku jarria, aurretiaz beren baimena eta behin betiko oniritzia eman dezaten.
- > **Kalitatearen kontrola:** ISO 20252 arauaren eta CCI/ESOMAR jokabidearen arabera.

TELEFONO BIDEZKO CATI MOTAKO INKESTA (ANALISI KUALITATIBOA)

Deskribatu dugun esparru teorikotik eta aurretiaz egin dugun analisi kualitatibotik abiatuz, Galtung-ek zehaztu zituen indarkeria-tipologietako indarkeria matxista batzuk identifikatu ditugu: egiturazko indarkeria, indarkeria sinbolikoa eta zuzeneko indarkeria.

Indarkeria-motak identifikatu ondoren, aukeratu ditugun kontsumo-esparruetako bakoitzean, azterketa kuantitatiboak honakoak identifikatzeko balio izan digu:

- ✓ Egiturazko indarkeriaren zer adierazpen ikusten diren emakumeen eta gizonen artean.
- ✓ Indarkeria sinbolikoaren zer adierazpen ikusten diren emakumeen eta gizonen artean.
- ✓ Zuzeneko indarkeriaren zer adierazpen ikusten diren emakumeen eta gizonen artean.
- ✓ Zer kolektibo diren indarkeria sinbolikoa askatzearen arduradunak.
- ✓ Indarkeria-mota desberdinen arteko kausa-eragina harremanik dagoen.

Erabilitako teknika EAEko hiru lurralde historikoetan 18 eta 65 urte arteko jendeari telefono bidezko inkestak egitea izan da.

Laginaren banaketa proportzionala egin dugu, eta horrela, emakumeei inkesta gehiago egin dizkiegu, beharrezkoa izanez gero analisi jakin batzuk azpimarratu ahal izateko. Sexuaren eta adinaren arabera erkatutako kuotak proportzionalki banatu dira lurralde bakoitzean.

Azkenik, lagina aztergai genuen unibertsoaren benetako banaketara parekatzeko, lagina biztanleriaren datu eguneratuen arabera haztatu da.

Ondorengo orrialdean azterketa kuantitatiboaren fitxa teknikoa jaso da.



TELEFONO BIDEZKO INKESTAK

- > **Metodologia:** telefono bidezko CATI inkesta.
- > **Unibertsoa:** 18 eta 65 urte arteko biztanleria.
- > **Esparrua:** Euskadi.
- > **Lagina:** 500 pertsona.
- > **Errore-marjina:** % 4,4koa % 95eko konfiantza-mailarako eta 0,5eko pq batekin. Lagin hauek lurralde bakoitzeko errealitatean sakontzea ahalbidetuko ez duten arren, honakoen jokabideen artean alde handiak daudela ikusteko aukera emango dute: lurralde historiakoak, generoa, 3 adin-talde handiak, 3 maila sozioekonomiko handiak.
- > **Kuotak:** sexuarenak, adinarenak eta lurraldearenak.

	EMAKUMEZKOAK			GIZONEZKOAK		
	18tik 35era	36tik 50era	51etik 65era	18tik 35era	36tik 50era	51etik 65era
ARABA	23	44	30	23	27	19
BIZKAIA	31	39	32	19	26	20
GIPUZKOA	26	46	32	16	27	20

- > **Haztapena:** lagina Euskadiko biztanleriaren errealitatera doitzeko, datuak INEk Euskadiko biztanleria-errolaren inguruan dituen datuetatik abiatuz ondorioztatu dira:

	EMAKUMEZKOAK			GIZONEZKOAK		
	18tik 35era	36tik 50era	51etik 65era	18tik 35era	36tik 50era	51etik 65era
ARABA	1521,783	881,4545	1046,433	1628,87	1512,556	1612,474
BIZKAIA	3835,677	3581,872	3727,094	6541,211	5415,462	5601,9
GIPUZKOA	2753,385	1808,348	2235,813	4680,5	3209,704	3467,55

- > **Galdetegia:** Adimen Investigación-ek egina eta SETEMen eta Oreka-ren esku jarria, aurretiaz beren baimena eta behin betiko oniritzia eman dezaten.
- > **Kalitate-kontrola:** ISO arauaren arabera.

AZTERLANEAN ERAGINA IZAN DUTEN FAKTOREAK ETA MUGAK

Datuak irakurtzen hasi baino lehen, funtsezko hausnarketa batzuk kontuan hartu behar dira, datuak hobeto ulertzeko.

Lehenengo eta behin, aztergaiaren berritasuna azpimarratu behar dugu berriro. Izan ere, analisi osoan zehar, hala esparru teorikoa prestatzerakoan nola azterketa kualitatiboa eta kuantitatiboa egitean, honakoa ikusi dugu:

- Azterketa egituratzen laguntzeko edo erreferentzia eta konparazio-oinarri gisa erabiltzeko moduko azterketa edo hausnarketa gutxi egin direla aurretiaz.
- Adituak hasieran harrituta geratu zirela aurkeztu genien gaiagatik, eta hasierako hausnarketa baten ondoren ohartu zirela arazoaz, elkarriketa egin ahala, alegia, eta azterketa kuantitatiboa diseinatzeko oinarri bihurtu zen egitura teorikoa horrela joan zela garatuz.
- Generoaren edo kontsumoaren arloetan lan egiten duten edo gaiarekin sentsibilizatuta dauden elkarten artean kontsultatu ditugun pertsonen beren esperientziarekin parte hartu dutela eta zailtasunak aurkitu dituztela kontsumoan indarkeria matxistatzat jo daitezkeen egoerak eta adierazpenak identifikatu eta deskribatzeko.
- Adituengandik jaso den informazioa eta emakume-taldearen artean jaso dena alderatuz ikusten dela herritarrentzat oso zaila dela identifikatzea kolektibo adituagoek definitu dituzten indarkeria matxisten adierazpenak. Hausnartu, eztabaidatu eta esperientziak komunean jarri ondoren (eztabaida-taldeei esker) bakarrik azaleratu eta hitzetan jarri dira indarkeria sinbolikozko egoerak, hala nola presioak, autoestimuairen gaineko eraginak, fisikoaren gainekoak, oreka emozionalaren gainekoak, etab.
- Baina argi geratu da, batetik, nolabaiteko hausnarketaren emaitza dela, eta bestetik, gutxitan jotzen direla egoera honen erantzuletzat publizitatea eta kontsumoko produktuen enpresak.
- Argi dagoela fenomeno naturalizatuta eta ezkutatuta edo ikusezin bihurtuta dagoela. Argi eta garbi ikusi da zuzeneko indarkeriaren adierazpenen inguruko emaitza kuantitatiboetan, inkestatutako pertsonen ez baitituzte beti indarkeriatzat jo. Bestalde, ezin dugu ahaztu telefono bidezko inkesta kontsumoari lotutako indarkeria-motak bereizteko tresna eraginkorra bada ere muga gehiago dituela kontuzkoagoak diren gaiei heltzerakoan (hau da, aitortzea zaila den zerbait jorratzean),

esate baterako, zuzenekoagoak diren indarkeriak, eta nahasmenduekin, gaixotasunekin eta abarrekin erlazionatu ohi direla.

- ➔ Era berean, egungo gizartearen faktore batzuen eragina ikusi dugu azterlanean (adibidez, krisi ekonomikoa eta emakumeengan eta gizonengan duen eragina).
- ➔ Azkenik, gailentzekoa da aztertu ditugun esparru guztien artean mugikortasunarena izan dela kontsumoekin eta indarkeria matxistekin erlazionatzeko zailtasun gehiago izan dituen, hirigintzarekin eta zerbitzuen sektorearekin erlazionatu ohi delako, hau da, ez delako kontsumoko produktutzat jotzen.
- ➔ Ikerketa kualitatibo eta kuantitatiboari buruzko informazio gehiagorako:

http://www.setem.org/setem ftp/euskadi/informe_resultados_cuantitativos.pdf

http://www.setem.org/setem ftp/euskadi/informe_resultados_cualitativos.pdf

2 | EMAITZEN AURKEZPENA

Ondoren, indarkeria matxisten eta aztertu ditugun esparruen arteko harremana aztertzeke egin dugun landa-lanaren emaitza kualitatiboak eta kuantitatiboak aurkeztu ditugu. Emaitzak lau esparru aztertuetan (elikadura, etxeko produktuak, estetika eta mugikortasuna) ikusi diren indarkeriak (egiturazkoa, sinbolikoa eta zuzenekoa) gailenduz aurkeztuko ditugu.

Emaitzak aurkeztu eta analizatzeko, esparruak hiru bloke handitan banatu ditugu:



ETXEA

ETXEKO PRODUKTUAK ETA ELIKADURA



ESPARRU PERTSONALA

ESTETIKA (KOSMETIKA, ARROPA, TRATAMENDUAK...)



ESPARRU PUBLIKOA

HERRIETAKO MUGIKORTASUNA

Bloke hauetako bakoitzerako, lehenbizi emaitza kualitatiboak azalduko ditugu, elkarrizketatu ditugun adituek eta eztabaida-taldeetan parte hartu duten emakumeek ikusi dituzten indarkeria-mota desberdinak zehaztuz (egiturazkoa, sinbolikoa eta zuzenekoa). Gero, emaitza kuantitatiboak azalduko ditugu, indarkeria-mota desberdinen arabera jasota.

Blokekako emaitzak ordena honetan azalduko ditugu: etxea (elikadura eta etxeko produktuak), esparru pertsonala (estetika) eta publikoa (mugikortasuna).



ETXEA

ETXEKO PRODUKTUAK ETA ELIKADURA

EMAITZA KUALITATIBOAK

EGITURAZKO INDARKERIA



EGITURAZKO INDARKERIA

- > Genero-rolak eta lanaren banaketa sexuala betikotu egiten dira (publizitatean emakumea erosketaren eta etxeko garbiketaren arduradun moduan irudikatzen da).
- > Emakumeek erosahalmen txikiagoa dutenez kalitate handiagoko jakiak eta etxerako produktuak eskuratzeko aukera mugatuagoak dituzte.
- > Heteronormatiboak ez diren ereduak: ikusezin bihurtzen ditu.

Genero-rolak eta lanaren banaketa sexuala betikotzea da elkarriketatutako adituek etxearen esparruan aipatu duten egiturazko indarkeria mota nagusia. Hori horrela da, nagusiki, publikitatean emakumea erosketaren eta etxeko garbiketaren protagonista moduan irudikatzen delako. Garbiketa-produktuen eta jakien publikitatea eta betikotzen dituen sinboloak indarkeria sinbolikoe-kin gehiago erlazionatzen diren arren, gogoan izan behar da nabarmenki legiti-
matuta dauden egitura- eta gi-
zarte-ordena baten ondoriozkoak direla. Ikuspuntu honetatik, elkarriketatutako adituek azpi-
marratzen dute etxeko eginbeha-
rrez eta elikaduraz emakumeak
arduratzen direla batik bat eta
horrek, zalantzarik gabe, lanaren
banaketa sexuala islatzen duela:

Lehenengo ideia hori eztabai-
da-taldeetan parte hartu duten
emakumeek adierazi duten iri-
tziarekin bat dator. Are gehiago,
berez zerk sentiarazten dituen
errealizatuta galdetu diegunean,
aipatzen dituzten alderdietako
bat da familia zaintzea, eta ama eta amona onak direla sentitzea, bereziki se-
me-alabak edo bilobak badituzte zaintzapean. Zaintzeko lana eta etxeaz ardu-

"Garbiketa-produktuak zure izaerarik 'intimoenari' zuzentzen zaizkio: zure etxea eduki nahi baduzu, etxeok benetan maite badituzu, erosi hau. Arropa garbi-garbiarekin joan daitezela nahi baduzu, haien eta zure kontra zeresanik izan ez dezaten, erosi hau. Umeak arropa zikin badarama, ama da zerria"

"Mr. Propper da agintzen duena, zoru-garbigailuarekin urrats bakarra eginez dena distiratsu uzten du. Eta esaten duena da emakumeok oso garbiak izan behar dugula, garbitzen ez duen emakume bat oso emakume txarra edo alaba txarra edo dena delakoa delako, baina txar-txarra. Eta zera ere esaten du: baina zergatik kexatzen zara? Garbitzea oso erraza da!"

Emakume aditu bati egindako elkarriketa

ratzea hain dituzte barneratuta, non ez baitute berezkotzat bakarrik jotzen, izatearen adierazpen bezala baizik, autoerrealizaziorako ekintza bat bezala.

Era berean, emakume batzuek aitortzen dute eginkizun horietaz arduratzean sentimendu kontrajarriak izaten dituztela: batetik, errealizatuta sentitzen dira, baina bestetik, estututa, nekatuta eta gaindituta geratzen dira, erosketez ez ezik etxe osoa kudeatzeaz arduratzen direlako.

"Emakumeak seme-alaben eta bikotekidearen erantzukizuna hartzen du, eta nik uste berezko gauza bat dela horretaz arduratzea. Nire etxea atsegin dudan moduan antolatzekak poztzen nau, baina batzuetan, hainbeste gauzaz arduratzen zarenez, zerbait beste norbaiten esku usten baduzu lasaitu ederra lortzen duzu!"

Eztabaida-taldea

Bestalde, gizarteak berengandik zer espero duen galdetzean aho batez adierazten dute *"superwomen"* izan daitezela espero duela, hau da: a) etxea eta familia ezin hobeto zaintzea; b) etxetik kanpo soldatapeko lan aintzatetsi bat egitea; c) egiten duten guztia ongi egitea.

Superwoman izateak gizonei ezartzen ez zaien exigentzia-maila bat eragiten du, emakumeek beren eguneroko bizitzan jasaten dute exigentzia hori eta beren bizitzan eragina dauka, eta horren ondorioz estres handiagoa, nekea, depresioak, etab. sarria jasaten dituzte.

Gainera, eztabaida-taldeetan parte hartu duten emakumeek azaltzen dute lan-karga handiegia dutela-eta zerbait beste norbaiten esku uztea erabakitzen dutenean gizarteak juzgatu egiten dituela sentitzen dutela, ez dutelako beren papera espero

"Emazte ona izatea, etxea garbi izatea, senarra ongi zainduta izatea, arropa lisatuta, umea elikatuta, txakurra bainatuta, eta gainera, lan egitea (...) gizartean superwoman izan behar duzu, guztiaz arduratzeko eta polit egoteko gauza izan behar duzu, aurpegi ona jarrita eta zure bikotekidearekin harro ateraz"

"Nik, lan egin dudanean, dena eman dut onena izateko: zerbitzaria nintzenean onena nintzen, ikaslea nintzenean onena nintzen, aktore egin naizenean onena izan naiz eta orain, ama eta etxeandrea eta emaztea naizela, gauza bera egin dut azken bi urteotan. Eta nire senarrak espero du gauero barruko arropa sexyarekin ager nadila, umeagatik begirik bildu ez badut ere, eta egunero irakurtzen dut ama ona izateko eta umearekin hanka ez sartzeko"

Eztabaida-taldea

den bezala betetzen. Are gehiago, batek bere bikotekideari laguntza eskatzeagatik lagunek eta senideek nola kritikatzten duten aipatzen zuen:

"Nire amaginarrebak eta lagunek esaten didate pagotxa ikaragarria dudala ez dudalako janaria prestatzen, nire senarrak baizik. Nire lagunek esaten didate, baita jende gazteagoak ere..."

Eztabaida-taldea

Genero-rolak eta lanaren banaketa sexuala betikotzeaz gain, adituek etxeari lotutako egiturazko indarkeria moduan identifikatzen dute emakumeen **erosahalmen txikiagoa**, kalitate handiagoko jakiak eta etxeko produktuak lortzeko aukerak mugatzen dizkielako. Horregatik, eragin argia dauka beren ongizate fisiko eta emozionalean:

Azkenik, etxeari lotutako egiturazko indarkeria gisa identifikatu da **gizona/emakumea, maskulina/femeninoa bino-mioekin bat ez datozen pertsonak eta eredu heterosexual normati-boa betetzen ez dutenak ikusezin** egitea. Hau da, gayei, lesbianeiei, transexualei, intersexei... buruz ari gara. Produktu hauen publizitateak familia heterosexualak irudikatzen ditu, eta horrek gizarte-egituraren familiaren osaketa "naturala" eta "zuzena" denaren ideia betikotzen eta azpimarratzen du.

"Emakumeak gizartean pobreagoak gara, eta ondorioz, elikagai txarragoak eskuratzen ditugu. Gipuzkoan, familiarik pobreenak guraso bakarrekoak dira, baliabide-eskuragarritasun txikiagoa dugulako (...) guk onartzen ditugu baliorik txikieneko lanak"

Emakume aditu bati egindako elkarrizketa

INDARKERIA SINBOLIKOA



INDARKERIA SINBOLIKOA

- > Lanaren banaketa sexuala errepikatzen duten (emakumea etxearen eta elikaduraren arduraduna, horretaz arduratzen da baina ez da jakintsua) eta emakume “menperatua”ren eta objektu sexualaren irudia errepikatzen duten sinboloak.
- > Elikadura tresna estetiko moduan. “Superwoman” izatearekin erlazionatutako sinboloak, baina lana errazten saiatzen direnean juzgatu egiten dituzte.
- > Etxeko lanari eta zaintzeari balioa kentzen dieten sinboloak.

Elkarrizketatutako pertsonak diotenez, elikaduraren eta etxeko produktuen esparruan egiturazko indarkeriak publizitatearen eta marketin kanpainen bidez plazaratzen diren sinbolo eta balio kultural batzuetan oinarritzen dira, **lanaren banaketa sexuala errepikatzen dute eta emakume “menperatua”ren eta objektu sexualaren irudia indartzen dute.**

Zehazkiago, familia zaintzen duen eta etxeko eginbeharrez arduratuz “zoriona” eta “plazera” lortzen dituen emakumearen sinbolo multzo bat aipatzen zuten. Gainera, emakumeak, estetikoki erakargarri erakutsiz, etxeko lanez arduratzen direnean ere erotizatzen dituzten iragarki batzuk aipatu zituzten. Horrek guztiak etxe “ideal” batez arduratuz bere desiorik handiena egia bihurtzen duen emakume “ideal”aren irudia indartzen du.

“Garbiketa-produktuak zure izaerarik ‘intimoenari’ zuzentzen zaizkio: zure etxea eduki nahi baduzu, etxekoak benetan maite badituzu, erosi hau. Arropa garbi-garbiarekin joan daitezela nahi baduzu, haien eta zure kontra zeresanik izan ez dezaten, ez dezaten esan nolako ama duten (...) umeak arropa zikin badarama, ama da zerria”

Eztabaida-taldea

Bestalde, garbiketa edonork egin dezakeen lan “erraz” bat bezala aurkeztu duen unibertso sinbolikoa gailentzen zuten. Horrek areagotu egiten ditu etxeaz eta familiaz arduratzeko lanak gizartean dituen garrantzi eta aintzatespen falta eta doakotasuna:

“Cillit Bang-en iragarkia ikusten duzu, eta gutxi gorabehera esaten duena da edozein txepelek erabil dezakeela erraz-erraza delako”

Eztabaida-taldea

Etxeko produktuekin gertatzen den bezala, **elikaduraren kasuan ere adituek jakiak emakumeekin zuzenean erlazionatzen dituzten sinboloen multzoa identifikatzen dute**. Are gehiago, diotenez, publizitate-kanpaina batzuek familiek kontsumitu behar dituzten jakirik onenak zein diren adieraztea dute helburu. Elkarrizketatu genituen pertsonen ustez, mezu hauek ikuspegi “paternalista” eta nagusia azpimarratzen dute. Berriro ere, emakumeak subjektu menperatu, malgu, zalantzati eta ezjakin bihurtzen dira.

Gainera, **elikadura estetikarekin** erlazionatzen duen unibertso sinbolikoa aipatzen zuten, emakumeei bereziki zuzendutako produktu batzuk merkaturatzeak (light produktuak, adibidez) edertasun-kanon zorrotzak bete behar dituztela

“Jakien iragarkietan, emakumeak berentzat, senideentzat eta beti zaindari lanak eginez erosten azaltzen dira. Zure umearentzat zer den ona esaten dizute, baina aitentzat zer den ona ere, etab.”

Emakume aditu bati egindako elkarrizketa

AUKERAK

Publizitate Ez-sexistaren Behatokiak, besteak beste, indarkeria eragiten duten iragarkiak salatzen ditu. Behatoki hauek herritarren kezak jasotzeko zerbitzu bat dute, iragarki bat sexistatzat jotzen dutenerako. Jasotako keza baloratu ondoren, egokitzen jotzen badute, iragarki-enpresarekin harremanetan jartzen dira, eta iragarkia aldatzea gomendatzen diote. Euskadin Emakunderen (Emakumearen Euskal Erakundea) **Begira, publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordea** dugu, baina une honetan ez dago martxan. Estatu-mailan **Emakumeen Irudiaren Behatokia** dago.

azpimarratzen duelako. Elikagaiak generoaren arabera bereiztea hierarkizazioaren eta desberdinkeriaren adierazgarri da: gizonezkoek plazera eta kaloriak kontsumitzen dituzte (gozamenaren sinbolo) eta emakumeek linea mantendu behar dute (patroia bete behar duten seinale).

Azkenik, elkarrizketatu genituen adituek **maitasun erromantikoa eta jakiak** erlazionatzen dituzten sinboloen multzoa aipatu zuten, hau da, erostea eta elikatzea maitasun-ekintza eskuzabala eta berezkoa dela azpimarratzen duten sinboloak. Gainera, horrek emakumeen balio sekundarioa islatzen du, emakumeen interesak eta beharrak haien familien azpitik jartzen dituztelako.

"Nestlé enpresaren iragarki batek esaten zuen 'maitasuna ematen baduzu, maitasuna jasotzen duzu'. Gezurra! Zaindari porrokatuaren eta bere familiagatik sakrifikatzen den emakumearen kontzeptua da. Eta emakumeak zaintzen zituzten emakumeen irudiak agertzen ziren, eta bukaeran iragarkiak zera zioen: 'ematen duzuna baino gehiago jasotzen duzu'. Eta horrela, imaginario kolektiboan dagoena saltzen digute".

Emakume aditu bati egindako elkarrizketa

ZUZENeko INDARKERIA



ZUZENeko INDARKERIA

- > Indarkeria psikologikoa: estresa, ondoeza, etab. guztia egiteko eta betebeharrak betetzeko gauza ez izateagatik eta aintzatespen faltagatik.
- > Emakumeek **substantzia toxikoen** eragin handiagoa jasaten dute, **produktu kimikoak erabiltzen dituztelako**, baita arrisku fisiko handiagoa ere (laprast egitea, eskailera batera igotzea, etab.).
- > Kalitate okerragoko elikaduraren ondoriozko **kalte fisikoak**.

Arlo honetako egiturazko indarkerien eta indarkeria sinbolikoen multzoak, adituen ustez, eragin negatiboa izan dezake emakumeen ongizate fisiko eta emozionalean. Are gehiago, lanaldi hirukoitzak eskatzen dien energiagatik emakumeek estres, neke eta ongiez maila altuagoak dituztelakoan daude, hori guztia egiteko presioa jasaten dute “beren eginkizun”tzat jotzen delako, eta gainera, gizartean ez da aintzatesten familiaren inguruko betebeharez arduratzea.

Era berean, emakumeek indarkeria psikologiko handiagoa ere jasaten dutelakoan daude, ezarritako kanonekin bat datorren gorputz bat izateko presioagatik, eta horrek, gainera, epe luzera hainbat gaitz eragin ditzake, hala nola elikadura-gaixotasunak.

Indarkeria fisikoei dagokienez, emakumeek **substantzia toxikoen** eragin handiagoa jasaten dutela azpimarratu zuten, **produktu kimikoak erabiltzen dituztelako**, eta etxeko lanekin erlazionatutako arrisku fisikoak ere jasaten dituzte (irristatzea, eskailera batera igotzea, etab.).

Gainera, kalitate txarragoko elikadura batek **kalte fisikoak** eragiten dizkiela aipatzen zuten; izan ere, gogoan izan behar da light produktuak emakumeei daudela zuzenduta zehazki eta, askotan, kalitate zalantzarrikoko osagaiak eta substantziak dituztela.

“Oso ikertuta dago light produktuek kontserbagarri asko dituztela, oso kaltegarriak, aspartamoa dutela eta oso kaltegarria dela osasunerako. Hori indarkeria da, inork ez duelako eragin horien berri ematen, eta gainera, osasunerako panazea bat balitz bezala saltzen dute”

Emakume aditu bati egindako elkarrizketa

"Baita janari aldatua ere... produktu freskoak jatetik produktu landuagoak kontsumitzera igaro gara. Azken batean, nekazaritzako elikagaien industriaren estrategia bat da, kalitate txarragoko janaria emateko, eta horren ondorioz, nabarmenki okerrago jaten dugu. Kasu askotan, gainera, emakume langileari bizitza errazteko dela saldu nahi digute"

Emakume aditu bati egindako elkarrizketa

Bestalde, kalitate txikiagoko elikadura hori emakumeen erosahalmen txikiagoarekin erlazioa daiteke. Horren harira, Nepaleko eta Indiako hainbat eremutan, malunitrizioa pobrezia-aren ondorioz ez ezik elikatzeko beharrei erantzutea bermatzeko elikagaien eskuragarritasun mugatuaren ondoriozkoa ere bada.


EMAITZA KUANTITATIBOAK

EGITURAZKO INDARKERIA

Herritarrei egindako inkestaren emaitzek adierazten dute **etxea batik bat emakumeen esparrua dela gaur egun ere**, hala garbitzeari eta janariari dagokienez, nola erosketari eta eginkizunen kudeaketari dagokienez.

Are gehiago, etxeetan erreferentziazko emakumeen % 64,4 etxea garbitzeko lanez eta elikaduraz osoki arduratzen dira, baina gizonezkoen artean % 28,5 bakarrik arduratzen dira bakarka eta osoki eginkizun horiez, eta ia gizonen erdiak adierazten dute eginbeharren erdian parte hartzen dutela.

2. GRAFIKOA GARBITZEKO ETA ELIKATZEKO LANAK (%)



Bestalde, bikotekidearekin bizi diren emakumeen % 44k etxetik kanpo lan egiten dute eta etxeko eginbehar guztiez arduratzen dira; gizonen, kasuan, berriz, % 11,6 daude egoera horretan. Gizonek adierazten dute, nagusiki, beren bikotekidearekin erdibana egiten dituztela betebeharrak (% 86,7k).

Goian aipatu ditugun datuek adierazten dute gizonek etxean duten papera partaide gisa definitzen dutela, nagusiki, baina emakumeen bertsioak ez du hori berresten. Horrenbestez, partaide kontzeptua desberdina da emakumezkoen eta gizonezkoen bertsioan. Emakumeek uste dute etxearen benetako pisua beren esku dagoela; gizonak, aldiz, emakumeek adina parte hartzen dutelakoan daude.

Garbitzea eta elikadurari lotutako eginkizunak, berriz, emakumeek gauzatzen dituzte, eta **badirudi erosketetan dutela gizonezkoek ardura handiagoa** (% 37,8k adierazten dute bakarka arduratzen direla), baina hori ere urruti geratzen da emakumeen protagonismora iristetik (% 62,2). Argi dago erosketa esparru publikoago bateko jarduera bat dela, eta baliteke horrek islatzea eginkizun horrek aintzatespen handiagoa duela esparru pribatuko beste batzuekin alderatuta (arropa garbitzeaz arduratzea, etxea garbitzea, etab.). Zentzu honetan, litekeena da egia izatea norbait tradizionalki egotzi ez zaizkion lanak egiten hasten denean gehien motibatzen dituenekin hasten dela, bere rol tradizionaletik hurbilen daudenekin, alegia, baina esan dugun bezala, lanik eza-tegingenak emakumeen esku geratzen dira oraindik. (ikus 3. grafikoa 87. orr.)



EGITURAZKO INDARKERIA

- > Emakumeek beren burua jotzen dute etxeko produktuen eta janaria erostearen ardura-duntzat. Gizonak ardurak erdibana dituztelakoan daude.
- > Ekonomiaren eta etxeko betebeharren administrazioa emakumeen % 60ren ardura dira, eta gizonezkoen % 35,5ena.
- > Emakumeek eginkizun **bikoitza** dute:
 - i) etxeko eginkizunen arduradun bakarra;
 - ii) ikuskatzailea eginkizunak bikotearekin gauzatzen direnean.

3. GRAFIKOA GARBITZEKO ETA ELIKATZEKO PRODUKTUEN EROSKETAK (%)



*Diferentziak estatistikoki garrantzitsuak.

Ekonomiaren eta etxeko betebeharren administrazioari lotutako eginkizunei dagokienez, emaitzek adierazten dute emakumeen % 60ren ardura direla, eta gizonezkoen % 35,5ena. Baina horrek esan nahi lezake gizonak erosketak egiteaz arduratzen diren etxeetan emakumeak izaten direla zer erosi behar duten adierazten dietenak. Horrenbestez, emakumeek eginkizun **bikoitza** dute: batetik, etxeko eginbeharren arduradun nagusiak dira, eta bestetik, beren bikotekideek egiten dutena gainbegiratzzen dute.

4. GRAFIKOA ETXEKO EKONOMIAREN ETA EGINBEHARREN ADMINISTRAZIOA (%)



*Diferentziak estatistikoki garrantzitsuak.

INDARKERIA SINBOLIKOA

Pertsonen kontrako indarkeria sinbolikoa funtsean bi eratako presioen bitartez islatzen da: familia eta ingurukoak pozteko presioa, eta etxeko eta familieren kontu guztien erantzukizuna izatearen presioa. Inkestatutako pertsonen erdiak baino gehiagok jasaten dituzte bi presio horiek etxean. Emakumeak eta gizonak bi item hauetan identifikatuta sentitzen direla ikusten dugu, bien erantzunen ehunekoak antzekoak baitira.

Hori hipotesi hau aurreratuz interpretatu genezake: emakumeek nahiz gizonek familia pozteko eta etxeko kontu guztiak ondo joan daitezela lortzeko presioa jasaten dute, emakumeek beren burua etxearen kudeatzaile eta arduraduntzat baitute (beren rol tradizionalarekin erlazionatuta), eta gizonek beren burua euskarri ekonomikotzat baitute (izaera oro har produktiboko “patriarka” rolaren harira).

Garrantzitsua da azpimarratzea inkestatutako pertsonak, galdera honi erantzun diotenak (ondorengo grafikoan islatu dira), bikotekidearekin batera bizi direla gehienbat (gizonezkoen % 74,1 eta emakumezkoen % 81,1).

5. grafikoan jaso diren datuek (ikus 90. orrialdea) jaso diren datuek desberdintasun txikiak islatzen dituzte beste presio batzuekin alderatuta (guztia egitera iritsi behar izatea, zaintza perfektua ematea, etab.), etxean zaintza-eginkizun handiena duten pertsonen kasuan emakumeen eta gizonen arteko aldea areagotu egiten dela ikusten dugu. Kasu hauetan, emakumeen gaineko presioa handiagoa da, eta aitzitik, gizonezkoena nabarmenki txikiagotzen da.




INDARKERIA SINBOLIKOA

- > Emakume gehienek eginkizun horiek gauzatzearen arduraduntzat dute beren burua (beren buruari ezarritako presioa). Gizonek, berriz, beren bikotekideak presio egiten dietela sentitzen dute.
- > Emakumeek presio handiagoa dute etxearen arduradun nagusiak direnean: emakumeen % 32,6, eta gizonen % 16,4.
- > Zaila da beren rolak zein izan behar duen zehazten duten presioen errudunak bilatzea. Etxeko eginkizunak konpartitzen dituzten pertsonen kasuan, gizonek erantzukizuna elkarbanatzeko joera dute, eta emakumeek ez.

Azpimarratzekoa da etxeko eginbehar gehien arduradunak diren pertsonen artean, gizonen % 65,1 ez direla bikotekidearekin batera bizi, eta emakumeen % 72,3 bikotekidearekin batera bizi direla. Horrenbestez, etxeko eginbeharren arduradun nagusiak diren gizonen kasuan, arduradunak dira ez dagoelako paper hori bete dezakeen beste inor. Baliteke horrek azaltzea gizon horien artean zergatik dagoen presio-maila nabarmenki txikiagoa aurreko taldeko gizonen artean baino (etxeko erreferenteak, gehienak bikotekidearekin bizi dira). Horrenbestez, hipotesi hau aurrera genezake: etxean duten paperaren inguruko presioek eragin handiagoa dute berengan bikotekidearekin batera bizi direnean.


5. GRAFIKOA INDARKERIA SINBOLIKOAREN ADIERAZPEN HAUEK JASATEN DITUZTE (ASKO + NAHIKO) (%)



Bakarrik bizi diren pertsonen lagin txikiak ez digu behin betiko ehunekorik emateko aukera ematen, baina badirudi bakarrik bizi diren emakumeek bakarrik bizi diren gizonek baino presio handiagoa jasaten dutela egoera berean egonda.

Horrenbestez, **emakumeek presio handiagoa jasaten dute beren egoera zeinahi izanda ere** (etxeko erreferentea izanik, eginkizunen arduraduna izanik, bikotekidearekin bizi badira nahiz bakarrik bizi badira); **gizonen artean, berriz, etxeko paperaren inguruko presio handiagoa sentitzen dute bikotekidearekin batera bizi badira.**

6. GRAFIKOA INDARKERIA SINBOLIKOAREN ADIERAZPEN HAUEK JASATEN DITUZTE. ETXEKO EGINBEHARREN ARDURADUN NAGUSIEK (%)



Etxeko eginkizunen harira, etxeaz arduratzen diren pertsonak sarriago dira emakumeak gizonak baino: emakumeen % 32,6k indarkeria sinboliko handia jasaten dute, eta gizonen % 16,4k. Etxeko eginbeharrak erdibana egiten dituzten pertsonen artean, indarkeria sinboliko handia jasaten duten gizonen eta emakumeen ehunekoak antzekoak dira.

11. TAULA INDARKERIA SINBOLIKOA ETXEKO EGINBEHARREN ERANTZUKIZUNA DUTEN PERTSONEN ARTEAN

	ARDURADUN NAGUSIA		ARDURADUNA ERDIBANA	
	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA
Batere ez	%33,4	%49,4	%35,5	%28,2
Indarkeria maila baxua	%13,6	%11,5	%18,6	%11,4
INDARKERIA SINBOLIKOA Indarkeria maila ertaina	%20,5	%22,6	%14,3	%24,1
Indarkeria maila altua*	%32,6	%16,4	%31,6	%36,3
GUZTIRA	%100	%100	%100	%100
Oinarria	147	54	85	98

*Diferentziak estatistikoki garrantzitsuak.

AUKERAK

Tradizionalki emakumezkoenak diren rolak bikotean egonik aldatu egiten dira, baina gizonzkoen eta emakumezkoen pertzepzioa oso desberdinak dira (gizonek uste dute nahiko laguntzen dutela baina emakumeek ez dute gauza bera pentsatzen)

ZUZENEKO INDARKERIA

Zuzeneko indarkeria-maila neurtzeko, batetik, indarkeria psikologikoaren adierazpenei buruz galdetu dugu, hau da: kezka, estresa, nekea, frustrazioa eta errudun sentimendua etxean bizitako hainbat egoeragatik; eta, bestetik, indarkeria fisikoaren adierazpenei buruz: garbitzeko produktuak erabiltzearen ondoriozko kalte fisikoak.




ZUZENEKO INDARKERIA

- > Emakumeak **gehiago kezkatzen dira etxeko gainerako kideak zaintzeagatik** beren burua zaintzeagatik baino: estresa, nekea eta frustrazioa (ikusezintasuna).
- > Etxeko erreferentziazko gizonen % 38,1ek adierazten dute errudun sentitzen direla etxeko eta familiaren inguruko eginkizunen harira espero dena betetzen ez dutenean, eta emakumeen % 24,4k sentitzen dute gauza bera.
- > Garbiketa-produktuak erabiltzearen ondoriozko **indarkeria fisikoen** harira, alderik handienak **toxizitate-arazoetan** ikusten dira (% 8,4: emakumeen % 10 eta gizonen % 6).

Lehenengo taldeari dagokionez, **etxeaz arduratzen diren pertsona guztien artean indarkeriarik ohikoena da “gehiago kezkatzea etxeko gainerako kideak zaintzeagatik norbere burua zaintzeagatik baino”**, eta ia ez dago desberdintasunik gizonen eta emakumeen artean. Kasu honetan ere, *“gehiago kezkatzea etxeko gainerako kideak zaintzeagatik norbere burua zaintzeagatik baino”* itemarekin emakumeak nahiz gizonak identifikatu ahal izan direla uste dugu (emakumeak beren etxeko paper tradizionalagatik, eta gizonak euskarri ekonomikoa izateko paperagatik).

Gainerako indarkeria psikologikoei dagokienez, *“estresa eta nekea guztia egi-tera iritsi ezin izateagatik”* eta *“frustrazioa etxeko lana ikusezina delako beste-entzat”* nabariagoak dira emakumeen artean, baina diferentzia estatistikoki garrantzitsurik gabe.


7. GRAFIKOA ZUZENeko INDARKERIAren EDO INDARKERIA PSIKOLOGIKOAREN ADIERAZPEN HAUEK JASATEN DITUZTE (ASKO + NAHIKO) (%)



Aitzitik, “berengandik espero dena ez betetzearen ondoriozko errudun sentimendua” nabariagoa da gizonen artean (% 38,1) emakumeen artean baino (% 24,4). Item honetan erantzun duten gizonen ehunekoa emakumeena baino altuagoa da, agian, bi faktoreren ondorioz: batetik, euskarri ekonomikoaren papera dutelako, esan dugun bezala, eta bestetik, familia askoren ekonomian eragina izan duen krisiagatik. Zentzu horretan, gizonak errudun-sentimendu handiagoa izan ohi dute egungo gizartearen berezko hainbat arrazoiren ondorioz (krisi ekonomikoa) zailagoa suertatzen zaielako tradizionalki egotzi dieten papera betetzea.

Indarkeria fisikoen harira, etxea garbitzeaz arduratzen diren pertsona guztien artean (gizonak eta emakumeak), toxizitate-arazoak izan dituztenak % 8,4 dira, eta emakumeen eta gizonen artean aldeak dauden arren ez dira estatistikoki garrantzitsuak. Hala ere, esan daiteke, zenbaki absolututan, emakumeek indarkeria fisiko handiagoa jasaten dutela garbiketa-produktuak erabiltzearen ondorioz, emakumeek erabiltzen dituztelako gehiago produktu hauek.

8. GRAFIKOA ETXEA GARBITZEAREN ARDURADUNEK (EMAKUMEZKOEK ETA GIZONEZKOEK) JASANDAKO INDARKERIA FISIKOAK





ESPARRU PERTSONALA

ESTETIKA (KOSMETIKA, ARROPA, TRATAMENDUAK...)

EMAITZA KUALITATIBOAK

EGITURAZKO INDARKERIA

Agiri honekin batera jaso den esparru teorikoan adierazi den bezala, estetika denboran zehar aldatu den eraikuntza sozial bat den arren eta nahiz eta kultura bakoitzak modu desberdinean ulertu duen, beti egon da erlazionatuta feminitatearen balioekin eta emakumeek sistema patriarkalean bete behar dituzten rolekin. Bada, emakumeak gure kulturen irudikatzeko erabili diren moduek emakumearen sexualtasunari eusteko eta bere gorputza arautzeko asmo sendoa izan dute ardatz.

Horren harira, elkarrizketatutako adituek esaten dute esparru honetan egiturazko indarkeria mota bat ikusten dela: **kontsumoak kanon estetiko lortezin bat sustatzen du eta horrela emakumeen eta haien gorputzen gaineko kontrola sustatzen da, horren aliaturik handiena da ezarritako eredu estetikoa lortzea agintzen duten produktu eta aukera kosmetikoen multzoa**. Horrenbestez, emakumeak ez dira beren gorputzaren jabe, beren gorputza aldatu egin nahi dutelako eta kanon bakar batera moldatu nahi dutelako, eta, gainera, kanon horrek ez du ahalbidetzen aniztasuna eta dibertsitatea gauza natural bat bezala onartzea. Horrek guztiak emakumeen menderakuntza sustatzen du, gorputz perfektua izateko, desiragarri mantentzeko eta ez zahartzeko presioa finkatzen eta indartzen duten mekanismoen bitartez, besteak beste:

"Ez da egiten eremu horren (gorputza) jabe senti nadin, beste norbaitek inbaditu dezan baizik (...) patriarkatuarekin konektatuta dago, da eta kapitalismoarekin, eta beti gazte izan behar duzula eta 36 taila izan behar duzula esaten dute, eta hori ezinezkoa da (...). Sistemak zure gorputzari buruz erabakitze eskubidea kentzen dizu, eta horrek subjektu nortasuna galtzea dakar (...). Nire gorputzaren jabe izan nahi badut, sistemak esaten dit ezin dudala, bestela ez dudalako inoiz neurria emango"

Emakume aditu bati egindako elkarrizketa

Gainera, adituek azaltzen dute produktu estetikoek emakumeen gorputzasuna eta sexualitatea azpimarratzen dituztela eta horrela kontsumo gai bihurtzen dituztela, eta emakumeen gorputza kontsumitu ahal den zerbait bihurtzen dela. Are gehiago, gero eta gehiago hitz egiten da emakumeak gauza moduan

tratatzeari buruz, emakumeen gorputzak kontsumitu, erabili eta bota daitezkeen objektu bat bezala irudikatzen direlako. Horrela, emakumeak kontsumorako subjektu eta objektu bihurtzen dira aldi berean.

Zentzu horretan, adituek uste dute estetikoki erakargarri mantentzearen garrantzia emakumeentzat honakoa dela: i) eginkizun bat, itxura fisikoa gizartearen onarpena lortzeko baliabide bihurtzen delako; ii) inbertsio bat, estetikoki eza-rrita dagoenarekin bat datorren gorputz bat izatea bikotekidea aurkitzeko, lana lortzeko, etab. aukera moduan aurkeztu delako; iii) kontrolatzeko eta estutzeko tresna bat, emakumeen gorputzaren kontrolak haien autoestimua eta autonomia sustatzeko estrategiak garatzea galarazten duelako.

"Emakumeak gauza ahul eta kaltebera hori garelako, babesa eta besteen onarpena behar ditugulako. Bestearen onarpena behar dugu eder eta ongi sentitzeko, eta horrela emakumeen kalteberatasuna betikotzen da. Eta sistemari rol hori mantentzea interesatzen zaio. Neure burua onartzen badut, ez badiot neure buruari beste norbaiten begietatik begiratzen, ez badut haren onarpena bilatzen, hori guztia egiten badut, haren kontrolpetik ihes egiten dut, eta azkenean haiek botere hori galtzen dutela nabaritzen dute, beren boterea mehatxatuta ikusten dute"

"Geure buruari ezin diogu balioa eman beste modu batean. Gure balioa ez da garenaren araberakoa, besteek ikusten dutenaren araberakoa baizik, eta berez ezinezkoa den estereotipo bat bete behar da"

Emakume aditu bati egindako elkarrizketa

"Indarkeriaren isla da gauza bat dela ni nire osasunaz ohartzea eta neure burua kosmetika jakin batekin zaintzea, eta beste gauza bat dela osasuna kontuan hartu gabe nik eskatzen didaten irudia eman nahi izatea (...). Jakina, emakumeek nerabeak izan behar dute betiko, eta horregatik daude gero eta klinika gehiago ebakuntza estetikokoak egiteko, gantza kentzeko... Emakumea ezin delako zahartu, zahartzen den unean gizartearentzat baliogabe bihurtzen delako, ez du aukerarik lan-arloan ere, emakumeen lanpostu askotan delako garrantzitsua beren irudia"

Emakume aditu bati egindako elkarrizketa

Baina, zein da kapitalismotik eta patriarkatutik sustatzen den edertasun-eredua? Homogeneizazio kulturalaren bitartez, emakumeen edertasun-eredu jakin bat normalizatuz joan da, itxura estereotipatua (emakume zuria, 90-60-90, gaztea eta heterosexuala) eta lortezina, gizartearen onarpena eta arrakasta ziurtatzen dituen.

Izatez, esparru honetan adituek egiturazko indarkeria gisa identifikatzen duten bigarren elementu bat da edertasun-eredu zehatz eta bakar honen normalizazioak emakumeei presio egiteaz gain **beste eremu geografiko batzue-**

tan bizi diren emakumeei ere eragiten diela, biologikoki ezinezkoa den edertasun-ideal bat transmititzen duelako.

"Gogoan dut, Guatemalako komunitate indigena batzuetan, amaren eguna zen eta kartel batek honakoa zioen: Gora amaren eguna! eta begi urdindun emakume horail bat agertzen zen. Horaila eta begi urdinekoa! Guatemalako komunitate indigenetan. Erokeria hutsa da, eredu horrekin identifikatu behar badut, ebakuntza mordoa egin beharko dudalako, eta kanon horiek betetzeko hain kontzentratuta nago, non ez baitut beste ezertarako astirik"

Emakume aditu bati egindako elkarrizketa

Are gehiago, gaur egun, Hego Amerikako eta Afrikako herrialde askotan, emakumeek beren diruaren zati handi bat biologikoki zuria ez den azala zuriagotzeko erabiltzen dute. Gainera, emakume beltz batzuek ile leuneko ileordeak erabiltzen dituzte edo oso produktu kimiko gogorrak erabiltzen dituzte ilea leuntzeko. Horrek guztiak kostu ekonomiko, sinboliko eta fisiko handia du.

"Emakume beltzen edertasun-produktuen merkatua oso zabala da. Ilearekin dago lotuta. Ilea leuntzeko produktu kimikoen merkatua erraldoia eta sendoa da. Salvadorren nire ilea saldu nuen, ile luzea izan dezatela lortzeko ile-merkatua dagoelako. Tratamendua oso garestia da, eta emakume pobreek ere egiten dute. Presio handia dago"

"Saharako emakumeekin lan egitean ikusi dut modan dagoena dela azal zuria izatea, eta emakumeek azala zuriagotzeko kremak erosten dituzte, baina minbizia eragiten dute. Eta kontua da ezin izango direla inoiz zuriak izan, lehenik beren etniagatik, eta bigarrenik basamortuan eta 40 gradutan daudelako. Mila gauzarekin estaltzen dira, ez dira oinez ibiltzen, eta horrek diabetea eragiten die"

Emakume aditu bati egindako elkarrizketa



EGITURAZKO INDARKERIA

- > Genero-rolak eta emakumeen menderakuntza-sistema betikotu egiten dira (estetikoki erakargarria izatea gizonen gustukoa izateko).
- > Edertasun-kanon "zuriak" ezartzen dira, baita beste eremu geografiko batzuetan ere.
- > Eredu ez-heteronormatiboak: ikusezin eginak.

Bestalde, Latinoamerikako adituek diotenez, gorputza plastikoki aldatzeko eta emakumeen ezaugarriak kirurgia plastikoaren bitartez nabarmentzeko presio handia dagoela. Hori hain dago naturalizatuta, non erosahalten txikiko emakumeen artean ere zabaldu baita.

Azkenik, adituek esparru estetiko egiturazko indarkeria gisa identifikatzen duten hirugarren elementu bat da **inposatzen diguten edertasun-ereduak sexua/generoa binomioa mantentzen duela, parametro heteronormatiboei jarraiki definitzen ez diren pertsonak baztertzen dituelako**. Zentzu honetan, emakume lesbianen kasua aipatzen zuten zehazki, beste subjektu heteronormatibo batzuek baino presio handiagoa jasaten dutelako; izan ere, batetik, beren identitateari eraso egiten zaio “femeninoak” izatea exijitzen zaielako (“femeninoak” izatea edertasun-parametro bakar horrekin definitzen da), eta bestetik, “ez feminizatzea” erabakitzen dutenean baztertuta gera daitezkeelako, sistemak emakumeei gizonezkoen onarpenetik eta “gizonezkoak erakartzera” bideratutako estetika jakin batetik begiratzen dielako. Emakume hauek ez dute aukera estetikorik, eta beren aukera bakarra gizonezkoenetik hurbilago dagoen estetika bat da.

Era berean, transexualitatea eta intersexualitatea gizartean zigortuta daudela azpimarratzen zuten, patroi estetikoetatik ez delako onartzen behar jakin batzuk dituen biztanleria-sektore bat dagoela (arropa, osagaiak, oinetakoak, etab.), eta horrek are ikusezinago egiten ditu eta beren normalizazioa ezintzen du.

“Medellín da Kolonbian emakumeen artean kirurgia plastiko eskaera handiena duen hirietako bat, eta kirurgiaren ondorioz heriotzak ere izan dira, profesionalak ez diren pertsonak egindako tratamendu desagokiengatik. Emakumeak, batzuetan, lasterketa ero batean harrapatuta geratzen dira, ebakuntzaz ebakuntza, norbere burua gero eta hobeto ikusteko nahia asegitza delako. Hori guztia edertasun-parametro inposatuei erantzuteko da”

Emakume aditu bati egindako elkarrizketa

INDARKERIA SINBOLIKOA

Emakumeak beren gorputza gauza moduan tratatuz kontrolatzea balio patriarkal multzo bat inposatuta izatearekin dago erlazionatuta, eta balio horiek, publizitatearen bitartez, gizakion dibertsitatea onartzen ez duen eta emakumeei presio argia egiten dien edertasun-eredu bat eraikitzea bultzatzen dute.

Ikuspuntu honetatik, adituek emakumeen ikuspegi irreal bat sustatzen duten sinbolo eta balio batzuk identifikatu dituzte, emakumeak nortasunik gabeko objektu sexual eta kaskarin gisa irudikatzen direla, alegia.

Lehenik, **gaztetasunak gizartean duen balioa** aipatzen zuten, emakumeen gorputzekin lotuta, adinekoen jakituria gizonezkoen unibertsoarekin erlazionatzen delako batik bat. Beti gazte egoteko presioa emakumeei dago zuzenduta batik bat, gizartean balioa ematen dielako (familiaz arduratze eta ekoizpenaren arloan jarduteko gaitasuna), baina zahartu ahala balio hori galtzen dute.

Bigarrenik, **edertasunaren eta gizarteko prestigioaren arteko harremana** aipatu zuten. Beti gazte mantentzeko presioarekin gertatzen den bezala, faktore honek eragin handiagoa du emakumeengan gizonengan baino. Esan dugun bezala, estetikoki erakargarriak izateak eta itxura ona izateak lana aurkitzeko aukera gehiago ematen du, baita bikotekidea aurkitzeko ere, eta gizartean onarpen eta prestigio handiagoa ematen du.

Gainera, **gorputzen hipersexualizazioa ezaugarri duen gizarte** batean, ongi ikusita dago emakumeen sexualitatea nabarmentzea eta sustatzea kosmetikaren eta kirurgia estetikoaren bitartez, oso helburu argi batekin: besteen gustukoa izatea. Adituek unibertso estetikoa emakumeei segurtasuna, konfiantza eta autoestimua emateko tresnarik garrantzitsuena bilakatu dela azpimarratzen zuten:

"Mezu hau transmititzen da: inork ere ez zaitu maiteko 40 urte baino gehiago badituzu eta ez baduzu kremarik jartzen eta ile zuriak badituzu; ez duzu inoren interesa erakarriko. Gizonen eta sistemaren merkatutik kanpo zaude, ez zara aukera bat ia sektore bakar batean ere (...) eta horren atzean dagoena da gizarte honetan emakumearen papera dela gizon baten bikotekidea izatea"

"Zure gorputzerako kostua izugarria da, eta azkenean, besteen gustukoa izatea da helburua, zure eginkizunetako bat besteen gustukoa izatea dela barneratuta duzulako"

Emakume aditu bati egindako elkarrizketa

Are gehiago, eztabaida-taldeetan parte hartu duten emakumeek azaltzen dute produktu estetikoek konfiantza eta segurtasun handiagoa ematen dietela eta beren gorputzarekin gustura ez daudenerako antidoto moduan ere erabiltzen dituztela. Alegia, emakumeek, gizarteak beren gorputzaren gainean jartzen

duen presioaren ondorioz, uneoro dute estetikoki erakargarri sentitzeko beharra (eta menpekotasuna).

"Goizean makillatu egiten naiz, eta egun horretan indartsuago sentitzen naizenez (...) takoi pare bat janzen dut, eta sendo sentitzen naiz, arrakastatsu"

"Ez naiz makillatzen, baina takoiak janzen ditut neure buruarekiko seguru sentitzeko, garrantzitsua den zerbait egin behar dudanean. Beti bilatu behar dugu tramankuluren bat seguru sentitzeko, oinarri-oinarrian segurtasuna falta zaigulako erabat"

Eztabaida-taldea



INDARKERIA SINBOLIKOA

- > Emakumeen desbalorizazioa: emakumeen ikuspegi irreala ematen duten sinboloak, eta "moldagarri" gisa erakusten dituztenak (exijentzia estetikoak neurri handi batean daude merkatuak adierazten duenaren menpe), emakumeak kaskarinak, nortasunik gabeak eta objektu sexualak balira bezala aurkeztuz.

ZUZENKO INDARKERIA

Estetikaren arloan ikusten diren zuzeneko indarkeria-adierazpenei dagokienez, adituek, lehenengo eta behin, **beren gorputza ez onartzeagatik** eta nekez bete daitekeen emakume-eredua betetzea ezinezkoa delako **emakumeek izan ditzaketen arazo psikologikoak** identifikatu zituzten (presioa estetikoki erakargarria izateko, segurtasun falta, autoestimua baxua, etab.), azken batean elikadurari lotutako nahasmenduak ere eragiten dizkielako (hala nola anorexia, bulimia, etab.).

"Emakume bakoitzaren egoera zehatzak, beren pisu handiegiarekin edo txikiegiarekin erlazioan daudenak eta murrizketa psikologikoa eta ziurgabetasuna bultzatzen dituztenak"

Emakume aditu bati egindako elkarrizketa

Interesgarria da azpimarratzea eztabaida-taldeetan parte hartu duten emakume batzuek uste dutela presio hori beren buruari ezartzen diotela eta beren gorputzaren epailerik zorrotzenak direlakoan daudela. Ziurrenik horrek esan nahi duena da presio estetikoak hain naturalizatuta daudela non batzuetan zaila baita erantzuleak identifikatzea, eta horregatik, norbere buruari errua egozte eta autokritika dira emakumeek beren burua onartzen ez dutelako dituzten sentimenduak.

Aurrekoaren harira, adituek osagarri eta arropa kaltegarriak erabiltzearen (takoiak, arropa estua, etab.) ondoriozko gaixotasun fisikoak eta kirurgia estetikoaren eta bestelako tratamendu estetiko batzuen ondoriozkoak aipatzen zituzten. Ikusten dugunez, kontsumoaren arloan, ezarritako ereduarekin bat ez datozen gorputzetarako planteatzen den konponbidea ez da norbere gorputza onartzea, aldatzea baizik.

"Ile zuria oso-oso gaizki geratzen da. Ispiluan nire islari begiratzen diodanean, nik egiten ditut kritikarik zorrotzenak. Nik egin behar diot aurre ispiluko islari. Ispilukoaz seguru banago, beste guztiari aurre egin ahal diot. Sendoa izan naiteke, ez diot perfektua izatea, gustura egotea baizik"

"Begien azpian ditudan poltsak ez zaizkit batere gustatzen, eta lagun batek esaten dit gau osoa egon naizela... konplexu handia dut nire begi-zuloengatik. Badirudi nekatuta eta goibel nagoela, ez dut begirada alaia transmititzen, esan egiten didate eta gaizki sentitzen naiz. Ispiluari begiratzean, bakoitzak ikusten duena ikusten du. Ebakuntza bat egin nahi dut poltsak eta betazalak konpontzeko. Nire hiru lagunek egin dute, zirujau on bat ezagutzen dut eta egingo dut. Kremekin ez dut ezer lortu. Egingo dut neure burua ongi ikusi nahi dudalako, ongi pentsatu dut, eta neure burua ongi ikusi nahi dut. Gizarteak zeure burua gaizki ikustera bultzatzen zaitu nekatuta dirudizula esaten dizutenean. Fisikoki ez dit minik ematen, baina esaten didatenak min ematen dit: 'aurpegi txarra, nolako begi-zuloak dituzun...' Eta 10 eta 100 euro arteko krema mordoa erabiltzen dut, egia esan!"

Eztabaida-taldea



ZUZENeko INDARKERIA

- > Norbere burua ez onartzearen eta existitzen ez den emakume-eredu bat lortzea ezi-nezkoa izatearen ondoriozko indarkeria psikologikoa.
- > Osagarri eta arropa kaltegarriak erabiltzearen (takoiak, arropa estua, etab.) eta ezi-nezko edertasun-ideal bat lortzearen ondoriozko gaixotasun fisikoak (bulimia, anorexia, etab.). Baita kirurgia estetikoarekin, laser tratamenduekin eta abarrekin erlazionatutako kalte fisikoak ere.


EMAITZA KUANTITATIBOAK

EGITURAZKO INDARKERIA

Kapitalismotik eta patriarkatutik bultzatzen den edertasun-kanon bakarrak benetan emakumeengan eta gizonengan eragin desberdina duen identifikatzeko, biztanleriaren inkestan kosmetikoen eta tratamendu estetikoaren erabileraren analisi bat egin da batik bat.

Lehenik, azpimarratzekoa da landa-lan kuantitatiboaren emaitzek islatzen dutela emakumeen artean ohikoagoa dela norbere fisikoa hobetu nahi izatea. Are gehiago, hamar emakumeren artean hiruk (eta hamar gizonen artean bik) noiz-bait beren itxura fisikoa edo pertsonala nolabait hobetu nahi izan dute.

9. GRAFIKOA ZURE FISIKOA/IRUDI PERTSONALA ZERTXOBAIT HOBETU NAHI IZAN DUZU NOIZBAIT (%)



*Diferentziak estatistikoki garrantzitsuak


Beren fisikoa edo/eta irudi pertsona hobetzeko nahiaren harira aipatu berri ditugun datuek itxuraz emakumeen eta gizonen artean alde garrantzitsurik islatzen ez duten arren, deigarriak dira produktu eta tratamendu estetikoaren erabileraren inguruko emaitzekin erkatzen baditugu. Are gehiago, bigarren galderaren emaitzek islatzen dutenez, emakumeen % 60k horrelako produktuak asko/nahiko erabiltzen dituzte, eta gizonen artean ehuneko hori % 8koa baino ez da. Hau da, badirudi beren irudi pertsonala noizbait aldatu nahi izan dutela esan duten emakumeen ehuneko baxuaren (% 20) eta kosmetikoak asko/nahiko erabiltzen dituzten emakumeen (% 60) artean kontraesana dagoela.



EGITURAZKO INDARKERIA

- > 10 emakumeren arteko 3k adierazten dute beren fisikoa aldatu edo hobetu nahi dutela (10 gizonen arteko 2k).
- > Adinak aurrera egin ahala norbere fisikoa gehiago onartzen da, baina gizonetakoek ez hainbeste, eta haiekiko aldea areagotu egiten da adin altuagoko tarteetan.
- > Emakumeen % 60k erabiltzen dituzte asko/nahiko horrelako produktuak (gizonen % 8k).

10. GRAFIKOA PRODUKTU ETA TRATAMENDU ESTETIKOEN ERABILERA-TASA OROKORRA (%)



Emaitza hauen interpretazioari dagokionez, hipotesi hau aurrera genezake: faktore batzuek eragina dute norbere fisikoa edo/eta irudi pertsonala hobetu nahi dela adierazterakoan, hala nola gizarte-fenomeno jakin batzuen naturalizazioak eta zapalkuntza barneratuek. Ikuspuntu honetatik, emakumeen zapalkuntza historikoa eta haien gorputzak ezinezko edertasun-eredu bat ezarriz kontrolatzeak ziurrenik eragina izan du norbere irudia hobetu nahi izateari dagokionez. Are gehiago, kasu honetan ikusten dugu gizonen artean ez dagoela kontraesanik beren irudia aldatu nahi izatearen eta produktu estetikoak erabiltzearen harira.

Proiektu honen ikerketa-taldearen ustez, barneratutako zapalkuntza da kontraesan horren itxurazko azalpen nagusia, baina ez dugu ahaztu behar gaur egungo testuinguruan gero eta gehiago ari direla zabaltzen era askotako emakumeentzako barruko arroparen publizitate-kanpainak eta neurri handiko arropen dendak gero eta gehiago direla. Bestela esanda, nagusitu den edertasun-ereduaren aurreko alternatibak eta bestelako aukerak gero eta gehiago erakusten direnez, baliteke gizartean aldaketa motel eta jarraitu bat sustatzen aritzea, eta horrek norbere gorputza eta irudi pertsonala gehiago onartzea ekar lezake.


AUKERAK

Nagusitu den edertasun-ereduaren aurreko alternatibak eta bestelako aukerak erakusten hasi direnez (askotariko emakumeei buruzko kanpainak, neurri handiko arropen dendak, etab.), baliteke gizartean aldaketa motel eta jarraitu bat sustatzen aritzea, eta horrek norbere gorputza eta irudi pertsonala gehiago onartzea ekar lezake.

Bestalde, zehaztu beharra dago **adin gazteagoko pertsonen artean dela sendoagoa norbere irudia aldatzeko nahia**. Adinak aurrera egin ahala, badirudi gizonak nahiz emakumeak konformeago daudela beren irudiarekin, baina hemen alde argia ikusten da sexuen artean, **adinak emakumeek beren buruari buruz duten pertzepzioan gizonak beren buruari buruz dutenean baino eragin negatiboagoa** duela ematen baitu. Are gehiago, 51 eta 60 urte arteko pertsonen artean, beren fisikoa/irudi pertsonala askotan aldatu nahi izan duten emakumeen ehunekoa % 26,8raino iristen da, eta gizonen artean % 16koa da. Esparru honen atal kualitatiboan dagoeneko aipatu dugun bezala, beti gazte egoteko presioa emakumeei dago zuzenduta batik bat, balio


soziala ematen dielako (familiaz arduratzearen eta ekoizpenaren arloko balioa), baina zahartu ahala balio hori galtzen dute. Gainera, edertasuna zuzenean dago erlazionatuta gaztetasunarekin, eta ez heldutasunarekin.

11. GRAFIKOA ZURE IRUDI PERTSONALA ZERTXOBAIT HOBETU NAHI IZAN DUZU NOIZBAIT (%)



Produktu kosmetikoen kontsumoari dagokionez, emaitzek adierazten dute emakumeak direla horrelako produktuen erabiltzaile nagusiak, ondorengo helburu hauek lortzeko gehien erabiltzen dituztenak baitira: azalaren itxura hobetzeko (% 78,6k, eta gizonen % 32,6k), ilearen itxura hobetzeko (% 54,1, eta gizonen % 2,5ek) eta adinaren eragina geldiarazteko (% 39,6k, eta gizonen %

12. GRAFIKOA PRODUKTU ESTETIKOEN KONTSUMOA (%)




13,3k). Gainera, emakumeek gizonen baino gehiago jotzen dute tratamendu estetikoetan espezializatutako zentroetara (% 26,2k, eta gizonen % 3,7k).

Horrenbestez, emakumeen artean, gizonen artean ez bezala, norbere itxura hobetzeko asmoa argiago ikusten da helburu horrekin erosten eta erabiltzen dituzten produktuen inguruko emaitzetan, hobetzeko nahia berariaz onartu duten pertsonen datuetan baino.

Beste produktu eta tratamendu estetiko batzuei dagokienez, beren erabile-raren maiztasuna ere handiagoa da emakumeen artean, salbuespen batekin: **ariketa fisikoa da gizonen beren itxura fisikoa hobetzeko erabiltzen**

13. GRAFIKOA ESTETIKAREN ETA TRATAMENDU ESTETIKOEN KONTSUMOA (ASKO + MAIZTASUN HANDIA) (%)



dutena (% 48k), emakumeek baino askoz gehiago, gainera (% 27,5ek). Hori guztia ikusita, hipotesi hau aurrera genezake: emakumeek beren irudia hobetzea erabakitzen badute, gurpil zoro batean harrapatuta geratzen dira, erabiltzen dituzten baliabideak azaleko aldaketak lortzeko baitira batik bat (ez sakonekoak), eta zalantzazko eraginkortasuna izateaz gain, kontsumoa sustatzen dute, eta ez dituzte beti eragin positiboak beren osasun fisiko eta emozionalean. Aitzitik, gizonen kasuan, kontrakoa gertatzen dela esan liteke, kirolera jotzeak osasun fisikoa eta emozionala hobetzea baitakar.

INDARKERIA SINBOLIKOA

Biztanleriari egindako inkestaren emaitzek adierazten dute emakumeen eta gizonen artean alde garrantzitsuak daudela produktu estetikoak erabiltzeko arrazoiei dagokienez.

Are gehiago, produktu estetikoak, ororen gainetik, **norbere buruarekin ongi sentitzeko** baliabide bat dira (emakumeen % 58,1 eta gizonen % 26,3) baita **segurtasun handiagoa** izateko ere (emakumeen % 43,5 eta gizonen % 40,9).


Bigarrenik, **lanpostu hobea lortzeko aukera** gehiago izateko (emakumeen % 52,1 eta gizonen % 40,2) ere balio dute, ii) **bikotekidea aurkitzeko aukera** gehiago izateko (emakumeen % 49,3 eta gizonen % 42,8) eta iii) gizartean onarpen handiagoa lortzeko (emakumeen % 43,5 eta gizonen % 40,9).



EGITURAZKO INDARKERIA

- > Produktu estetikoak **norbere buruarekin hobeto eta seguruago sentitzeko** baliabide bat dira, baita **lan hobea eta bikotekidea aurkitzeko aukera** gehiago izateko ere.
- > Urteak betetzeak nolabait presio estetikoaren eragin txikiagoa jasatea esan nahi du, gazte mantentzeari dagokionez izan ezik.
- > Produktu estetikoaren erabilera ertaina/handia egiten duten emakumeen % 23,2 dauka indarkeria sinboliko handiaren menpe, eta produktu horiek gutxi erabiltzen dituzten emakumeen % 9,1.

14. GRAFIKOA PRODUKTU ESTETIKOEK BERENTZAT ESAN NAHI DUTENA (ASKO + NAHIKO) (%)




*Diferentziak estatistikoki garrantzitsuak.

Estetikaren aldetik jasaten dituzten presioei dagokienez, emakumeek eta gizonek diotenez, irudi ona izateko presioa da handiena. Oro har, gainerako indarkeria sinbolikoek % 20tik beherako eragina dute jendearen artean. Nolanahi ere, berriro ere alde nabarmenak daude emakume eta gizonen artean:

- 10 emakumeren arteko 4k, gutxi gorabehera, irudi ona emateko presioa dute, eta 10 gizonen arteko 3k.
- Ia emakumeen laurden batek jasaten dute presioa egungo edertasun-estandarrekin bat datorren irudi jakin bat izateko, gorputz perfektua izateko eta feminitate-estandar jakin bat betetzeko. Gizonen kasuan, berriz, egoera horiek % 13ra murrizten dira.
- Gazte mantentzeko presioa bikoitza da emakumeen artean gizonen artean baino.

15. GRAFIKOA PRESIOA JASATEN DUTE (HANDIA + NAHIKO HANDIA) (%)



Gaztetasuna mantentzeari dagokionez izan ezik, **18 eta 35 arteko emakumeak dira estereotipo estetiko jakin batzuk betetzeko presio psikologiko handiena jasaten dutenak**, 18 eta 35 urte arteko hamar emakumeren arteko seik jasaten baitute irudi ona izateko presioa. Gainera, adin-tarte horretako emakumeen % 35ek jasaten dute presioa egungo edertasun-estandarrekin bat datorren irudi jakin bat izateko, gorputz perfektua izateko eta feminitate-estandar jakin bat betetzeko.


12. TAULA PRESIOA SENTITZEN DUTE HONEGATIK:

	18 – 35 URTE		36 - 50 URTE		51 – 56 URTE	
	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA
Irudi ona izatea*	%61,3	%34,3	%27,7	26,3%	%27,9	%24,2
Egungo edertasun-estandarrekin bat datorren irudi jakin bat izatea*	%35,8	%19,2	%20,5	%11,7	%18,0	%12,6
Gorputz perfektua izatea*	%34,4	%24,5	%18,8	%5,5	%17,6	%9,6
Feminitate/maskulinitate estandar bat betetzea*	%37,7	%22,6	%17,8	%2,4	%11,1	%13,6
Gazte mantentzea*	%13,5	%15,8	%19,8	%6,5	%22,1	%7,7
Zure taldearen parte izateko modu jakin batean jantztea	%16,0	%3,4	%13,7	%11,1	%9,5	%5,8
Oinarria	80	58	129	80	94	59

*Diferentziak estatistikoki garrantzitsuak.

Indarkeria sinbolikoaren adierazleak osotara hartuz ikusten da **gizonen % 63,7k diotela ez dutela inolako indarkeriarik jasaten, eta emakumeen artean ehuneko hori % 48,8ra murrizten dela**. Gainera, emakumeen % 31,6k jasaten dute indarkeria sinboliko ertaina edo handia, eta gizonen % 18,4 daude egoera horretan.

16. GRAFIKOA INDARKERIA SINBOLIKO MAILAK (%)



*Diferentziak estatistikoki garrantzitsuak.

Ehuneko horiek askoz altuagoak dira emakume gazteen artean. Indarkeria sinbolikoen eraginak erakusten du 18 eta 35 urte arteko emakumeen erdiak jasaten duela horrelako indarkeriaren eragin ertaina/handia, eta 36 eta 50 urte artekoen % 25,6k eta 51 eta 65 urte artekoen % 19,9k.

Horrenbestez ikusten dugu **harreman zuzena dagoela produktu estetikoaren erabilpenaren eta emakumeek jasaten duten indarkeria sinbolikoaren artean**, indarkeria sinbolikoak gehien jasaten dituzten emakumeak (hau da, beren irudiaren gaineko presio handia jasaten dutenak) produktu estetikoak gehien erabiltzen dituztenak direlako. Are gehiago, produktu estetikoak gutxi erabiltzen dituzten emakumeen % 59,4k diote ez dutela indarkeria sinbolikorik jasaten, eta ehuneko hori % 39,7raino jaisten da **produktu horiek nahiko/asko erabiltzen dituzten emakumeen artean.**

13. TAULA INDARKERIA SINBOLIKO MAILAK

		18 – 35 URTE		36 - 50 URTE		51 – 56 URTE	
		EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA
INDARKERIA PSIKOLOGI- KOA	Batere ez*	%28,6	%57,1	%56,5	%68,8	%60,3	%64,6
	Indarkeria maila baxua	%21,5	%16,2	%17,8	%18,3	%19,8	%19,4
	Indarkeria maila ertaina*	%24,4	%4,8	%14,0	%7,9	%5,3	%11,0
	Indarkeria maila altua	%25,5	%21,9	%11,6	%5,0	%14,6	%5,0
Oinarria		80	58	129	80	94	59

*Diferentziak estatistikoki garrantzitsuak.

14. TAULA INDARKERIA SINBOLIKOA PRODUKTU ESTETIKOEN ERABILERA-MAILAREN ARABERA

	ERABILERA BAXUA	ERABILERA ERTAINA/HANDIA
Batere ez*	%59,4	%39,7
Indarkeria maila baxua	%18,5	%20,6
Indarkeria maila ertaina	%13,0	%16,5
Indarkeria maila altua*	%9,1	%23,2
Oinarria	117	178

*Diferentziak estatistikoki garrantzitsuak.


Ikuspuntu honetatik, berriro esan nahi dugu produktu estetikoak sarri erabiltzeak emakumeentzat sorgin-gurpil batean sartzea esan nahi duela, hobeto eta konfiantza handiagoarekin sentitzeko erabiltzen badituzte ere, azkenean eragin negatiboa dutelako, produktu horiek zenbat eta gehiago erabili orduan eta presio handiagoa pairatzen baitute beren irudiagatik.

ZUZENeko INDARKERIA

Esparru estetikoarekin erlazionatutako zuzeneko indarkeria, bere adierazpen psikologikoari dagokionez, fisikoaren inguruko sentimendu eta sentsazio negatibo jakin batzuetan eta helburu estetiko jakin batzuk ez lortzean oinarritzen da.

Ororen gainera, azpimarratzekoa da emaitzen arabera emakumeen % 42k jasaten dutela indarkeria psikologikoa, handiagoa edo txikiagoa. Are gehiago, ondorengo grafikoan islatu den bezala, emakumeen eta gizonen arteko aldeak nabarmenak dira: gizonen arteko % 72,4k ez du nabaritzen estetikarekin erlazionatutako indarkeria psikologikorik, baina emakumeen artean ehuneko hori % 58,1eraino jaisten da.

17. GRAFIKOA INDARKERIA SINBOLIKO MAILAK (%)



*Diferentziak estatistikoki garrantzitsuak.

Orain arte ikusi dugun bezala, emakume gazteek jasaten dute gehien era honetako indarkeria, % 28k maila ertaina/handia, hain zuzen, 36 eta 50 urte artekoen % 20,5ek eta adin horretatik aurrerakoek % 14,7k.

15. TAULA INDARKERIA SINBOLIKO MAILAK

		18 – 35 URTE		36 - 50 URTE		51 – 56 URTE	
		EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA
ZUZENeko INDARKE- RIA-PSIKOLO- GIKOA	Batere ez*	%51,3	%68,8	%58,2	%73,0	%64,9	%75,6
	Indarkeria maila baxua	%20,6	%15,0	%21,3	%18,0	%20,4	%16,1
	Indarkeria maila ertaina	%23,0	%16,2	%14,0	%6,4	%8,1	%5,0
	Indarkeria maila altua	%5,0	%0,0	%6,5	%2,6	%6,6	%3,3
Oinarria		80	58	129	80	94	59

*Diferentziak estatistikoki garrantzitsuak.



ZUZENeko INDARKERIA

- > Beren irudiगतik presio-maila altua jasaten duten emakumeen % 47k jasaten dute indarkeria psikologiko handia.
- > Emakumeen % 42k jasaten dute indarkeria psikologikoa, handiagoa edo txikiagoa, eta gizonen % 28 daude egoera horretan.
- > Indarkeria psikologikoa **gogorragoa da emakumerik gazteenen artean**. Emakumeen erdiak jasan du nolabaiteko indarkeria fisikoa, eta gizonen laurden batek jasan du gauza bera. Ehuneko hori are altuagoa da emakume gazteenen artean.

16. TAULA INDARKERIA PSIKOLOGIKOA PRODUKTU ESTETIKOEN ERABILERA-MAILAREN ARABERA

	ERABILERA BAXUA	ERABILERA ERTAINA/HANDIA
Batere ez	%62,3	%53,8
Indarkeria maila baxua	%24,6	%18,5
Indarkeria maila ertaina*	%9,8	%19,4
Indarkeria maila altua	%3,3	%8,3
<i>Oinarria</i>	117	178

*Diferentziak estatistikoki garrantzitsuak.

17. TAULA PRODUKTU ESTETIKOEN ERABILERA-MAILAK INDARKERIA SINBOLIKOAREN ARABERA

	BATERE EZ	INDARKERIA MAILA BAXUA	INDARKERIA MAILA ERTAINA/ALTUA
Erabilerarik ez	%4,8	%2,6	%0,0
Erabilera baxua*	%41,5	%45,8	%24,0
Erabilera ertaina/handia*	%53,7	%51,6	%76,0
<i>Oinarria</i>	173	65	65


*Diferentziak estatistikoki garrantzitsuak.

Bestalde, indarkeria sinbolikoarekin gertatzen den bezala, emakumeen kasuan harreman argia dago kosmetikoen eta tratamendu estetikoaren kontsumo-mailaren eta mota honetako indarkeriaren artean. Are gehiago, produktu estetikoaren erabilera ertaina/handia egiten duten emakumeen % 27,7 daude indarkeria sinboliko handiaren menpe, eta produktu horiek gutxiago erabiltzen dituzten emakumeen % 13,1 daude egoera horretan (ikus 16. taula 118. orrialdean).

Alderantzizko datuak aztertuz ikusten dugu indarkeria psikologiko handiagoa izateak jauzi kuantitatibo bat eragiten duela produktu estetiko asko kontsumitzen dituzten emakumeen ehunekoan. **Hau da, beren autoestimuan eragin negatiboak dituzten emakumeek (frustrazioa, haserrea, antsietatea...) produktu estetiko gehiago kontsumitu ohi dituzte.**

Indarkeria sinbolikoen harira, emaitzek islatzen dute (ikus 17. taula 118. orrialdean) horrelako produktuak erabiltzearen ondoriozko kalte fisikoak handiagoak direla emakumeen artean, jakina, emakumeak baitira horrelako produktuen erabiltzaile nagusiak. Alderik garrantzitsuenak oinetako desegokiak erabiltzearen ondoriozko kalteetan ikusten dira, emakumeen heren batek jasaten baitituzte (eta gizonen % 19,3k), eta gero kosmetikoen eta tratamendu estetikoaren ondoriozko kalteetan, 10 emakumeren arteko 2k jasaten baitituzte (eta gizonen % 5,8k).

18. GRAFIKOA KOSMETIKOAK ERABILTZEAREN ETA TRATAMENDU ESTETIKOEN ONDORIOZKO INDARKERIA FISIKOAK (%)



Adinen arabera, 18 eta 35 urte arteko emakumeak dira produktu estetikoak erabiltzearen ondorio negatiboak gehien jasaten dituztenak:

- ➔ 10 emakumeren arteko ia 4k jasan dituzte kalteak oinetako desegokiak erabiltzeagatik.
- ➔ % 22,4k jasan dituzte alergia, erre dira, etab., kosmetikoak edo tratamendu estetikoak erabiltzeagatik.
- ➔ % 16,2k arropa desegokia erabiltzearen ondorio negatiboak jasan dituzte.
- ➔ 10en arteko batek jasan ditu dietak egitearen ondoriozko kalteak.

18. TAULA INDARKERIA FISIKO MOTAK

	18 – 35 URTE		36 - 50 URTE		51 – 56 URTE	
	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA
Oinetako desegokiak erabiltzea: orkatila bihurritzea, juanikoteak, gogorguneak, bizkarreko mina...*	%38,7	%15,0	%29,5	%33,2	%33,4	%6,4
Kosmetikoak, tratamendu estetikoak erabiltzea: alergia, erredurak...*	%22,4	%10,8	%19,9	%4,0	%17,7	%2,4
Arropa desegokia erabiltzea: zirkulazio txarra...*	%16,2	%7,5	%10,6	%3,2	%1,9	%6,7
Dieta egitea: elikadura-nahasmenduak, arazo gastrointestinalak...	%10,0	%2,8	%1,7	%3,2	%3,2	%6,9
Oinarria	80	58	129	80	94	59

*Diferentziak estatistikoki garrantzitsuak.

Orain arte jorratu ditugun emaitzez haraindi, garrantzitsua da gailentzea garrantzi txikiko datuak ditugula tratamendu estetikoren bat egin dutela eta beren irudiarekin erlazionatutako gaitz larriren bat (bulimia, anorexia, etab.) jasan dutela esan duten emakumeen eta gizonen ehunekoei buruz. Kapitulu honen sarreran esan dugun bezala, uste dugu ez dugula horrelako daturik lortu aukeratu dugun metodologia kuantitatiboaren berezko mugengatik. Egia esan, telefono bidezko inkesta tresna eraginkorra da estetikaren arloko bestelako indarkeria batzuk detektatzeko, zalantzarik gabe, baina gure ustez muga handiagoak ditu kontuzko gaiei buruz mintzatzeko; izan ere, elikaduraren nahasmenduak eta abar aitortzeak lotsa ematen du askotan.

Horregatik uste dugu komenigarria izan daitekeela kirurgia estetikoei eta elikaduraren nahasmenduei buruzko datu batzuk ematea, arazo honen garrantzia zehazteko lagungarria izan daitekeelako.

Kirurgia Plastiko Estetikoaren Nazioarteko Sozietateak (KPENS) 2013an aurkeztu zuen txosten baten arabera⁴⁵, Espainiar estatua izan zen ebakuntza gehien izan zituen bosgarren herrialdea, Estatu Batuen, Brasilen, Mexikoren eta Alemaniaren ostean. Zehazkiago, 2013an 447.177 ebakuntza estetiko egin ziren osotara. Sexuaren arabera, azterlanen emaitzek diote 30 eta 44 urte arteko emakumeek egin zituztela ebakuntza gehienak (% 87,8 emakumeek, eta % 12,2 gizonak). Gainera, gehien eskatzen diren tratamenduak bularrak handiagotzea eta liposukzioak dira.

Elikaduraren nahasmenduei dagokienez, hainbat azterlanek diotenez Estatu-tuko emakumeen % 4,8k du horrelako nahasmendu bat. Eragina askoz handiagoa da emakume gazteen artean. Gainera, Irudia eta Osasuna Fundazioak duela gutxi argitaratu duen azterlan baten arabera⁴⁶, egungo estandarrekin bat ez datorren neurria izateagatik dieta egitea pentsatu duten pertsonen % 95 emakumeak dira. Bestalde, Murtziako Unibertsitateak 2010ean argitaratu zuen azterlan batek islatzen du emakumeen % 90,2k dutela gorputzaren irudiaren distortsioa eta horien % 15,2k beren benetako pisua baino hiru irudi lodiago ikusten dutela beren burua.

45. <http://www.isaps.org/Media/Default/globalstatistics/2014%20ISAPS%20Global%20Stat%20Results.pdf>

46. http://www.f-ima.org/fitxer/388/INFORME_COMPLETO_BAROMETRO_TALLAS.pdf



ESPARRU PUBLIKOA
HERRIETAKO MUGIKORTASUNA

EMAITZA KUALITATIBOAK

EGITURAZKO INDARKERIA

Arlo honetan, elkarriketatutako adituek aipatu zuten lehenengo egiturazko indarkeria mota da **hiria eta mugikortasuna ikuspuntu androzentrikotik antolatuta daudela**. Horren harira, mugikortasuna, hiriaren osaketa bezala, ekoizpen-lanaren berezko lekualdaketa-beharrei erantzuteko antolatu da, ez familiaz arduratu eta zaintzeko lanari erantzuteko. Horrenbestez, mugikortasuna emakumeen kontra antolatuta ez dagoen arren, bereziki eragiten die, emakumeak direlako zaintza-lanaren arduradun nagusiak:

Are gehiago, elkarriketatutako pertsonak zioten emakumeek sarriago erabiltzen dutela garraio publikoa (eta, esan bezala, ekoizpen-beharretara dago egokituta, ez familien beharretara) edo/eta oinez joatea erabakitzen dutela, eta gizonak, berriz, autoz lekualdatzen direla batik bat. Autoa, gainera, maskulinitatearekin eta askatasunaren eta gizar-te-arrakastaren balioekin erlazionatzen da. Horrek generoen eta boterearen bereizkuntza markatzen du, eta emakumeen eta gizonen artean dagoen desberdinkeria mantentzea bultzatzen du.

"Gure arazoa da gizakion beharretan pentsatzen ez duen hiri-garapena izan dugula, hiriaren ardatza beti izan direlako merkataritza, kontsumoa eta inbertsioak, eta horretarako sortu zelako hiria. Elkartzeko esparruak izan behar ditugu, eta jakina, kontsumoarekin erlazionatuta daude"

Emakume aditu bati egindako elkarrizketa

"Garraio publikoa gehiago erabiltzen dugu familiaren autoa gizonak erabiltzen duelako, eta semeak 'lehenetsita' daude hazten direnean. Alaba ez, mutil-lagunak eramango duelako. Hori menpekotasun bihurtzen da. Ezin dut esan giltzak hartuko ditudala eta autoz joango naizela. Garraio publikoaren menpe nago"

Emakume aditu bati egindako elkarrizketa

Emakumeek, **garraio publikoa** gehiago erabiltzen dutenez, zerbitzuaren ordegien eta ibilbideen menpekotasuna dute, eta gainera, zerbitzuak familia zaintzeko lana zailagotzen du, ez dagoelako ardura horren beharretara egoki-

tuta (adibidez, ez dago behar adina konexio lekualdaketa laburretarako) eta denbora handiagoa eskatzen duelako. Era berean, oinez joatearen eragozpenak ere aipatzen zituzten, hala nola ibilbide batzuetan dauden oztopo arkitektonikoak, eta gurditxoekin (umeenak, erosketa-gurdia...) ibiltzea zailagotzen dutenak.

Garraioaz gain, adituek azaltzen zuten hiriaren osaketa androzentrikoaren ondorioz **sozializatzeko doako espazio publikoak pixkanaka galduz** joan direla. Are gehiago, plazetara eta beste toki batzuetara dohainik sartzeko aukera pixkanaka murriztuz joan da, eremu horiek pribatizatuz joan dira “ordainpeko” topaleku bihurtzeko, adibidez tabernetako eta jatetxeetako terrazak jarritz. Adituen iritzian, egoera horrek sozializatzeko eta elkartzeko uneez gozatzeko aukera murrizten du emakumeentzat, baita erosahalten txikiagoa duten kolektiboentzat ere (esaterako, adineko pertsonak, gazteak, etab.).

Mugikortasunarekin erlazionatutako egiturazko indarkeria gisa identifikatzen den hirugarren elementu bat da **segurtasun falta** (hala garraio publikoan nola hiriko gunek batzuetan). Horrek emakumeek eraso sexualak jasateko arriskua areagotzen du. Elkarrizketatutako pertsonen iritzian, lehenengo arazoa da emakumea “kontsumitzeko objektu bat” bezala ikusten dela eta horrek emakumeek garraio publikoan nahiz oinez egiten dituzten lekualdaketen arriskua handitu ahal duela. Horren guztiaren ondorioz, emakumeek ibilbide jakin bat aukeratzeko arrisku-maila aintzat hartu behar dute.

“Eremu publikoak galdu egin dira merkantilizatu egin direlako: plazan gera zaitezke kontsumitzen baduzu. Santa Ana plazatik kanporatu naute terrazak daudelako, eta ez baduzu kontsumitzen ezin zara han egon”

Emakume aditu bati egindako elkarrizketa



EGITURAZKO INDARKERIA

- Espazioaren osaketa androzentrikoarekin sortua: mugikortasuna lan ordaindurako diseginatuta dago, ez familiaz arduratu eta zaintzeko.
- Hiri-eremuak pribatizatu egiten dira “doako” harremanak ez errazteko.
- Segurtasun falta eta beldurra emakumeentzat (argi gutxiko kaleak, eremu bereziki arriskutsuak).

"Emakume asko ez dira bakarrik joaten Bilboko Fever diskotekara, metroak 800 metrora uzten dituelako. Diskoteka hori industrialde batzuen ondoan dago, periferian, eta metroaren eta diskotekaren arteko bidean kamioiak aparkatuta daude. Eta horrek emakume askori beldurra ematen die, erasoak ere izan direlako. Emakumeak ez dira kontuan hartzen"

Emakume aditu bati egindako elkarrizketa

Adituek diotenez, beldurra eta segurtasun falta askoz handiagoak dira Latinoamerikan, eta horrek are gehiago eragin dezake emakumea erabakirik hartzeko gaitasunik ez duen objektu kontsumigarri gisa ikustea. Izatez, elkarrizketatutako pertsona batek garraiobide tradizionalen alternatiba gisa **Brasilen proposatu zen arrosa koloreko metro bagoia eta taxi linea arrosak** aipatu zituen, garraiobide tradizionalak segurtasun falta eta indarkeria handia dituztelako bereizgarri. Esan beharra ere ez dago garraiobideetan eta hirietako eremuetan gertatzen diren eraso sexualak, fisikoak eta psikologikoak indarkeria matxisten adierazpenak direla eta beren jatorria batik bat egiturazkoa eta sistemikoa dela. Horrenbestez, konponbidea ez da garraiobide bat emakumeentzat egokitzea; izan ere, horrela, eraso bat eremu horretatik kanpo gertatzen bada emakumeak erruduntzat jotzeaz gain, banaketa sexuala sortzen eta areagotzen da.

INDARKERIA SINBOLIKOA

Mugikortasunaren esparruan orain arte aipatu ditugun egiturazko indarkerien aliaturik handienak dira indarkeriak mantentzen eta sustatzen dituzten sinbolo, balio eta kode kulturalak. Zehazkiago, adituek espazioa maskulinizaturik dagoen pertzepzioa areagotzen duten eta garraioaren banaketa sexuala mantentzen duten sinbolo eta balio kulturalak identifikatzen dituzte.

Zentzu horretan, autoaren inguruko unibertso sinbolikoa aipatzen zuten, hau da, autoak gizarte-arrakasta, autonomia, produktibitatea, askatasuna eta bosterea islatzen ditu, eta gizonen eskuetan dago. Aipatu dugun bezala, gizonen baliabide hori gehiago eskuratzen eta kontrolatzen dute, eta ondorioz, emakumeek gehiago erabiltzen dute garraio publikoa.

Bestalde, familiaz arduratzea gizartean ez denez behar adina baloratzen, horrek eragina du garraio publikoak eta hirietako eremuak familiaz eta zaintzaz behar bezala arduratzeko egokitzerakoan, izan ere beharrezkoa da distantzia laburren arteko konexioak areagotzea, segurtasun handiagoa eskaintzea eta ibiltzeko eremuak doitzeko, besteak beste.

Azkenik, ez dugu ahaztu behar gizarte kapitalisten berezko balioak (indibidualismoa, lehiakortasuna, produktibitatea, etab.) ez datozela bat gizakion bizitza mantentzeko interes eta beharrekin (lankidetzak, bateragarritasuna, erantzunkidetasuna, etab.) eta emakumeak direla azken lan horren ardura-dun nagusiak.



INDARKERIA SINBOLIKOA

- > Espazioa maskulinizaturik dagoen pertzepzioa.
- > Garraioaren banaketa sexuala.

ZUZENeko INDARKERIA



ZUZENeko INDARKERIA

- > Honakoak eragindako indarkeria fisikoa eta psikologikoa: aisialdirako eta jarduera pertsonaletarako denbora gutxiago (denbora gehiago lekualdaketetarako); babesgabetasun sentzazioa eta erasoak jasateko beldurra; erruduntasuna indarkeriaren biktima izanez gero.

Mugikortasunaren esparruko egiturazko indarkerien eta indarkeria sinbolikoen multzoak, adituen ustez, eragin argia du emakumeen ongizatean eta osasunean. Are gehiago, hirien eta garraioaren osaketa androzentrikoa ez datorrenez bat familiatz arduratzeko lanaren beharrekin, emakumeek estresarekin erlazionatutako gaixotasunak jasaten dituzte (akidura, depresioa, etab.). Gainera, segurtasun faltak babesgabetasun sentzazioa eta erasoak jasateko beldurra eragin ditzake, eta horrek eraso fisikoak, sexualak eta ahozkoak jasateko benetako arriskua dakar. Berriro ere, adituek azpimarratzen dute zuzeneko indarkeria jasateko arriskua handiagoa dela beste testuinguru geografiko batzuetan, hala nola Kolonbian.

“Emakumeentzat lekualdatzea nahiko zaila eta arriskutsua da. Gaua ez da emakumeena Kolonbian. Arriskua oso-oso handia da, ez baitago segurtasunik, ezta babesik ere, ez dago emakumeentzat pentsatutako hiririk. Gauetz taxiak hartzeko beldur dira. Gizonetako gidariak emakumezko gidariak iraintzen dituzte garraio-arauak ez urratzeagatik. Kanean lausenguekin egiten dituzten errespetu faltak eta nagusitasun-adierazpenak ere aipatzekoak dira”

Emakume aditu bati egindako elkarrizketa

Bestalde, batzuetan, gizonak garraio publikoa erabiltzen duten emakumeen eremu fisikoa urratzen dute, eta horrek deserosotasuna eta ondoeza eragiteaz gain, babesgabetasuna eta segurtasun falta areagotzen ditu:

"Garraio publikoan ongi jarrita zoaz, besteei eragozpenik ez sortzeko, horrela ulertzen baituzu zuk eremu publikoa, besteei eragozpenik ez sortzen saiatzea. Baina gizonak, plaf, patxada osoarekin esertzen dira, zabal-zabalik. Metroan oso sarri gertatzen zait. Eta zu deseroso sentitzen zara, zure esparruan sartzen ari delako, zu berarenean sartzen ari ez bazara ere. Gizonak jakintzat ematen du eremu hori berarena dela, legitimatuta sentitzen da, eta mugak frogatzen eta zeharkatzen ditu, bere zeregina delako eremuak konkistatzea. Eta zuk uzten badidazu, gero ez kexatu, hurbiltzen utzi didazu-eta, ez esan ezetz, gero! Nire bila zenbiltzan, ezta? Nik hau egin dizut eta ez zara paretik kendu, ezta? Zeure burua babestu behar duzu, emakume gisa, besteak ez ukitzen saiatu behar duzu, eta oso barneratuta dagoen hori oso deserosoa da. Munduan pertsona moduan egoteko dudak modua deseroso egiten ari da"

Eztabaida-taldea


Azkenik, garraiobideetan heteronormatiboak ez diren kolektiboen kontrako eraso fisikoak eta ahozkoak aipatu zituzten (irainak, mehatxuak, etab.). Eraso horiek generoen rolak betikotzen dituzten bikote-harreman tradizionalekin bat ez datozen harreman pertsonalak izatea erabakitzen duten pertsonak gizartean ez direlako onartzen eta diskriminatuta daudelako gertatzen dira.

EMAITZA KUANTITATIBOAK

EGITURAZKO INDARKERIA

Landa-lanaren emaitza kuantitatiboek erakusten dute hirien eta mugikortasunaren osaketa androzentrikoak eragina duela emakumeek eta gizonek erabiltzen duten garraiobidean. Are gehiago, datuek islatzen dute gizonen % 41,2k erabiltzen dutela auto pribatua lekualdaketak egiteko, eta emakumeen % 24,2k erabiltzen dutela garraiobide hori. Gainera, emakume inkestatuen % 45,8k diote oinez doazela, baina gizonen % 27,3 bakarrik joaten dira oinez. Bizikletaren eta garraiobide publikoaren erabilpena, aldiz, antzekoa da bi sexuen artean.

19. GRAFIKOA GARRAIOBIDE NAGUSIA (%)



Oinarria guztira: 303 emakume; 197 gizon

*Diferentziak estatistikoki garrantzitsuak.



EGITURAZKO INDARKERIA

- > Emakumeen garraiobide nagusia oinez joatea da; gizonek, aldiz, autoa erabiltzen dute batik bat.
- > Etxetik kanpo lan egin nahiz ez, **emakumeek gizonek baino askoz gutxiago erabiltzen dute autoa.**
- > Adinez nagusiagoak diren emakumeen ehuneko txikiago batek du gidabaimena emakume gazteek baino.

Etxetik kanpo lan egiten duten pertsonak kontuan hartuz, aldeak are nabarmenagoak dira autoaren erabilpenari dagokionez, kasu honetan autoa erabiltzen duten gizonen kopurua % 60,2koa baita, eta emakumeen artean, berriz, % 33,7koa. Emakumeek, gainera, gizonek baino gehiago egiten dituzte lekualdaketak oinez (% 39,1 eta % 19,1, hurrenez hurren), baita garraio publikoarekin ere (% 21,8 eta % 7,7, hurrenez hurren).

Datu horiek ikusita ondoriozta daiteke gizonek erabiltzen eta kontrolatzen dutela gehiago autoa. Emakumeek autoa ez erabiltzeak haien autonomian eragina duela esan genezakeen arren (eta egia da, bereziki landa-eremuetan bizi diren emakumeen kasuan), egoera hori kapitalismoaren eta patriarkatuaren arteko aliantzaren adierazletzat jotzen dugu, bereziki autoarekin erlazionatuta dagoen balio sinbolikoaren harira. Gogoan izan behar da autoaren inguruko unibertso sinbolikoak maskulinitatearekin erlazionatutako balioak islatzen dituela, hala nola askatasuna, autonomia, produktibitatea eta gizarte-arrakasta. Horrek, azken batean, gizonen eta emakumeen baliabide hau modu desorekatuan eskuratzea dakar, eta gainera, generoen paperak mantentzea sustatzen du. Are gehiago, dagoeneko aipatu dugun bezala, gizonen erabiltzen dute autoa maizago bikoteko bi pertsonen etxetik kanpo lan egiten duten etxeetan ere.

19. TAULA ETXETIK KANPO LAN EGITEN DUTEN PERTSONEK ERABILTZEN DUTEN GARRAIOBIDEA

	EMAKUMEA	GIZONA
Oinez noa*	%39,1	%19,1
Autoa*	%33,7	%60,2
Garraio publikoa*	%21,8	%7,7
Bizikleta	%4,7	%5,9
Beste batzuk	%0,0	%7,1
EZ/EDE	%0,7	%0,0
GUZTIRA	%100	%100
<i>Oinarria</i>	161	127

*Diferentziak estatistikoki garrantzitsuak.

Adinen arabera, desberdintasun handienak 36 eta 50 urte arteko pertsonen artean ikusten dira, adin-tarte horretako gizonen % 56k beren ibilgailua dutelako eta emakumeen % 40,4k daukatelako ibilgailua. Bestalde, emakumeek gizonek baino gehiago banatzen dute autoa beren bikotekidearekin (emakumeen % 38,6k eta gizonen % 29,4k). Hala ere, jabetza konpartitu horrek ez du bermatzen autoa batzuek zein besteek berdintasunez erabiltzea. Gidabaimena daukaten eta autoa bikotekidearekin banatzen duten pertsonen kopuruak islatzen du gizonen % 38,8k erabiltzen dutela egunero, eta emakumeen kasuan ehuneko hori % 24,4raino jaisten dela. Emakume gehienek nahiago izaten dute oinez joan.

20. TAULA AUTOA EDUKITZEA

	18 – 35 URTE		36 - 50 URTE		51 – 56 URTE	
	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA
Bai	%42,2	%47,5	%40,4	%56,0	%53,7	%50,9
Bai, nire bikotekidearekin banatzen dut*	%28,9	%10,1	%51,4	%38,0	%30,1	%35,2
Ez, nire bikotekidearena da	%1,0	%0,0	%7,3	%0,0	%7,0	%1,7
Ez, familiako beste norbaitena da	%27,9	%37,7	%0,9	%3,3	%0,0	%1,7
Ez dugu autorik etxean	%0,0	%4,7	%0,0	%2,7	%9,1	%10,5
<i>Oinarria</i>	53	46	103	76	62	56

*Diferentziak estatistikoki garrantzitsuak.

Gidabaimena edukitzeari dagokionez ere desberdintasunak daude, gizonen % 87,8k eta emakumeen % 70ek baitaukate. Adinaren arabera ere aldea are handiagoa da 51 eta 65 urte arteko pertsonen artean, adin-tarte horretako emakumeen artean gidabaimena dutenak % 63 baitira, eta gizonen % 95,8.

20. GRAFIKOA GIDABAIMENA EDUKITZEA



*Diferentziak estatistikoki garrantzitsuak.

ZUZENeko INDARKERIA

Udalerrietako mugikortasunari lotutako oharrei dagokienez azpimarratzen dugu **emakume inkestatuen % 66,4k esan dutela segurtasun falta nabaritzen dutela gauez bakarrik dabiltzanean, eta % 60k sentitu dutela benetako beldurra**. Gainera, emakumeen herenak kalean beren fisikoari, sexu-orientazioari eta abarri buruzko esaldiak entzun dituzte eta beren ohiturak aldatu dituzte erasoak jasateko beldur izateagatik.

Esparru honetan, zuzeneko indarkerien adierazpenak analizatu ditugun beste arlo batzuetan (hala nola estetikan) baino agerikoagoak dira. Uste dugu kalean segurtasun falta eta benetako beldurra izan dituztela adierazi duten emakumeen ehuneko altua duela hainbat urtetik Euskadin eta beste eremu batzuetan eraso sexistak nabarmendu eta salatzeke egin den lanarekin dagoe-la erlazionatuta. Hortaz, esan liteke indarkeriaren orotariko adierazpenak nabarmenduz adierazpen horiek aintzatesten eta desnaturalizatzen direla.




ZUZENeko INDARKERIA

- > Hirietako gune beltzek emakumeei segurtasun falta eta benetako beldurra eragiten dizkiete (**emakumeen % 66,4 eta % 59,4, hurrenez hurren**).
- > Heren batek erasoak jasan ditu (**zehazki, kalean gauzak esan dizkiete**) eta beren mugikortasun-ohiturak aldatu dituzte kalean erasoren bat jasateko beldurragatik.

AUKERAK

Indarkeriaren adierazpenak nabarmenduz, adierazpen horiek aintzatesten eta desnaturalizatzen dira.

21. GRAFIKOA JASANDAKO ZUZENeko INDARKERIAK (FISIKOAK-PSIKOLOGIKOAK) (%)



*Diferentziak estatistikoki garrantzitsuak.

Herritarrei egindako inkestan adierazten da zuzeneko indarkeriaren bat jasateko arriskua handiagoa dela emakumeen artean, lekualdaketetarako auke-ratzen eta erabilgarri duten baliabidea aukera zeinahi izanda ere. Gainera, garraio publikoa erabiltzen dutenak dira egoera horiek gehien jasaten dituzte-nak. Bestalde, dagoeneko aipatu dugun bezala, kalean ziurgabetasuna sentitu dutela adierazi duten emakumeen heren batek esan zuen noizbait ziurtasun falta sentitu izan dutela eta beren ohiturak aldatu zituztela erasoen beldur zire-lako. Baliteke horrek adieraztea emakumeek nahiago izaten dutela banakako

estrategietara jo indarkeria jasateko arriskuari aurre egiteko, erakundeei erantzukizuna exijitu beharrean. Hau da, indarkeriaren arazoa gero eta gehiago nabarmentzen eta salatzen ari den arren, modu pribatuan egiten zaio aurre, eta egun gizartearen babes faltagatik, emakume bakoitzak bere konponbideak bilatzen ditu egiturazkoa eta sistemikoa den arazo bati aurre egiteko.

21. TAULA JASANDAKO ZUZENENKO INDARKERIAK (FISIKOAK-PSIKOLOGIKOAK). GARRAIO-MOTAREN ARABERA.


	OINEZ NOA		GARRAIO PUBLIKOA		AUTOMOBILA	
	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA
Gauetz, kalean bakarrik ibiltzean segurtasun falta nabaritu duzu*	%60,6	%13,8	%79,7	%27,3	%63,6	%30,7
Gauetz, kalean bakarrik ibiltzean benetako beldurra izan duzu*	%59,3	%10,4	%71,8	%11,4	%47,0	%14,9
Kalean erasoren bat izateko beldurragatik zure ohiturak aldatu dituzu*	%28,7	%4,3	%40,5	%11,7	%32,2	%9,4
Zure fisikoari, sexu-orientazioari eta abarri buruzko nolabaiteko oharrak entzun dituzu kalean*	%28,4	%12,4	%39,9	%15,2	%31,8	%12,5
Kalean eraso fisikoren bat jasan duzu	%10,5	%9,1	%9,6	%9,3	%7,0	%7,3
Oinarria	139	57	69	35	78	83

*Diferentziak estatistikoki garrantzitsuak.

Erasoak jasateko arriskuari eta kalean erasoak jasako beldurrari buruz azaldu ditugun emaitzez haraindi, azpimarratzekoa da lekualdaketek gizabanakoen osasun fisiko eta mentalean dituzten eraginetan (estresa, nekea, etab.) ia ez dagoela desberdintasunik emakumeen eta gizonen artean, ezta mugitzeko baliabide desberdinen emaitzak aztertuz ere. Are gehiago, ondorengo grafikoan ikus daitekeen bezala, akidura fisikoa edo estresa jasaten dutela dioten emakumeen eta gizonen arteko aldea oso-oso txikia da.

Baliteke horrek islatzea erabilitako garraiobideaz gain badaudela indarkeria psikologikoa eta fisikoa izatea edo ez izatea eragiten ari diren beste faktore batzuk. Egia esan, agiri honetan aipatu dugun bezala, faktore askok dute eragina garraioan, hiriaren osaketatik hasita. Gainera, garraioa normalean gehiago identifikatzen da hirigintzarekin eta zerbitzuen sektorearekin, eta ez kontsumitzen diren produktuekin.

22. GRAFIKOA MUGIKORTASUNEN INDARKERIA FISIKOAK (ASKO + NAHIKO) (%)



*Diferentziak estatistikoki ez dira garrantzitsuak



4

Ondorioak

1 | ONDORIOAK ESPARRUKA



ETXEA

ELIKADURA ETA ETXeko PRODUKTUAK

Produktu hauek erosteko erabakiak eta erosketa emakumeen erantzukizuna dira. Gizonek oro har ez dute lan honen inguruko ardurarik, eta betebeharrak hauek gizonek gauzatzen dituztenean, “lankidetzan” egiten dute. Bildu ditugun datuak ikusita planteatu beharko litzateke ea zer den “eginbeharren banaketa” emakumeentzat eta gizonentzat; izan ere, gizon gehienek uste dute erdibana arduratzen direla, baina emakumeek ez dute gauza bera pentsatzen.

Elikagaien eta etxeko produktuen kontsumoan egiturazko indarkeria handia dago, lanaren banaketa sexualak sustatuta. Etxea emakumeen eremua da, eta, oro har, “ez du baliorik”. Gainera, bereziki publizitatearen eraikuntzatik, askotariko indarkeriak daude, eta emakumeei egiten duten edozertan “onak izateko” presioa ezartzen zaie: emakume “onak” izatea, ama “onak” izatea, bikotekide “onak” izatea, langile “onak” izatea, etab. Laburbilduz: superwoman izateko presioa.

Etxearen esparruan, indarkeria sinbolikoaren analisi orokorra eginez ikusten dugu emakumeen gaineko presioak handiagoak direla etxearen ardura-dun nagusiak direnean: emakumeen % 32,6k jasaten dute indarkeria sinboliko handia, eta gizonen % 16,4 daude egoera horretan.

Indarkeria psikologikoan, berriz, ez dago estatistikoki garrantzitsua den diferentziarik emakumeen eta gizonen artean etxearen arloan, eta beraz, ezin da esan emakume izateak era honetako indarkeria handiagoa edo txikiagoa jasatea esan nahi duenik. Hala ere, etxeko eginbeharrez gehienbat arduratzen diren pertsonak kontuan hartuz, aldeak daude gizonen eta emakumeen artean; hain zuzen ere, emakumeen ehuneko handiagoak jasaten dituzte indarkeriaren aldaera hauek: gehiago kezkatzea etxeko gainerako kideak zaintzeagatik beren burua zaintzeagatik baino, estresa, nekea, etab.

Garbitzeko produktuak erabiltzearen ondoriozko indarkeria fisikoei dagokie-nez, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun handienak toxizitate arazoetan ikusten dira. Alde horiek ere handiagoak dira garbiketa-lanen ardura-

dun nagusien kasuan, horien artean emakume inkestatuen % 10ek eta gizonen % 6k jasan baitute horrelako indarkeria.



ESPARRU PERTSONALA ESTETIKA (KOSMETIKA, ARROPA, TRATAMENDUAK...)

Genero-rolak eta emakumeen menderakuntza-sistema betikotu egiten dira (estetikoki erakargarria izatea gizonen gustukoa izateko). Kontsumoak kanon estetiko lortezin bat sustatzen du eta horrela emakumeen eta haien gorputzen gaineko kontrola sustatzen da, horren aliaturik handiena da ezarritako eredu estetikoa lortzea agintzen duten produktu eta aukera kosmetikoen sorta.

Kontsumo kapitalistaren logikan, emakumeak ez dira beren gorputzaren jabe, beren gorputza aldatu egin nahi dutelako eta kanon bakar batera moldatu nahi dutelako, eta, gainera, kanon horrek ez du ahalbidetzen aniztasuna eta dibertsitatea gauza natural bat bezala onartzea. Horrek guztiak emakumeen menderakuntza sustatzen du, gorputz perfektua izateko, desiragarri mantentzeko eta ez zahartzeko presioa finkatzen eta indartzen duten mekanismoen bitartez, besteak beste.

Are gehiago, azterlanak erakusten du irudiak eta fisikoak garrantzi handiagoa duela emakumeen artean gizonen artean baino. Adinak aurrera egin ahal norbere fisikoa gehiago onartzen da, baina gogobetetasun falta ez da gizonen artean beste murrizten emakumeen artean, eta haiekiko aldea areagotu egiten da adin altuagoko tartetean.

Datuek argi islatzen dute: kosmetikako eta estetikako produktuen mundua emakumeei zuzenduta dago batik bat; hain zuzen ere, gutxi gorabehera % 60k erabiltzen dituzte maila ertainean/altuan horrelako produktuak, eta gizonen % 8 dira produktu horien erabiltzaile. Emakumeen kasuan, zenbat eta zaharrragoak izan, orduan eta handiagoa da produktu kosmetikoen erabilpena, bereziki denboraren eraginak ezkutatzeko edo adinaren eraginak geldiarazteko direnenak (hori ez da hain garrantzitsua gizonentzat).

Halaber, kontsumitutako produktu estetikoak emakumeen artean gizartean eta autoestimurako abantailak lortzeko baliabide moduan aurkezten dira, norbere buruarekin hobeto sentitzeko eta segurtasun handiagoa izateko balio baitute.

Emakumeek eta gizonek beren irudia hobetzeko erabiltzen dituzten tresnen artean desberdintasunak daude: emakumeek aldaketak agintzen dituzten produktu estetikoak erabiltzen dituzte, baina beren eraginkortasuna azalekoa eta aldi batekoa bakarrik da. Gizonezkoek, berriz, kirolera jotzen dute batik bat: kirolean aritzeak ez du nahitaez esan nahi gastu ekonomiko bat egin behar denik, eta kirolaren eraginak sakonagoak dira, ez dira unean uneko onura izateko bakarrik.

Indarkeria sinbolikoaren inguruko adierazleen emaitzek adierazten dute gizonen % 63,7k diotela ez dutela inolako indarkeriarik jasaten, eta emakumeen artean ehuneko hori % 48,8ra murrizten dela. Gainera, emakumeen % 31,6k jasaten dute indarkeria sinboliko ertaina edo handia, eta gizonen % 18,4 daude egoera horretan.

Bestalde, zenbat eta produktu estetiko gehiago erabili, orduan eta presio handiagoa jasaten dute emakumeek beren irudiagatik: produktu estetikoaren erabilera ertaina/handia egiten duten emakumeen % 23,2 daude indarkeria sinboliko handiaren menpe, eta produktu horiek gutxi erabiltzen dituzten emakumeen % 9,1.

Emakumerik gazteenak dira estetikaren esparruko generoen kliseak betetzeko presio handiena jasaten dutenak; hain zuzen ere, 18 eta 35 urte arteko emakumeen % 50ek jasaten dute presio hori.

Indarkeria sinbolikoak argiagoak dira emakumeen artean alderdi hauei dagokienez:

- ➔ Irudi ona izatea: presio nagusia da. 10 emakumeren arteko 4k jasaten dute, eta 10 gizonen arteko 3k.
- ➔ Egungo edertasun-estandarrekin bat datorren irudi bat izatea: emakumeen laurden batek jasaten du gorputz perfektua izateko eta feminitate-estandar jakin bat betetzeko presioa.
- ➔ Gazte mantentzea: indarkeria honek eragin bikoitza du emakumeen artean gizonen artean baino.

Era berean, indarkeria sinbolikoaren eta indarkeria psikologikoaren artean kausa-eragin egoera bat sortzen da, frustrazioekin, antsietatearekin, haserrearekin... Bada, beren irudiagatik presio-maila altua jasaten duten emakumeen % 47k jasaten dute indarkeria psikologiko handia.

Indarkeria psikologikoak indarkeria sinbolikoak baino eragin txikiagoa du, baina hala ere, emakumeen eta gizonen arteko diferentziak argiak dira: emakumeen % 42k jasaten dute indarkeria psikologikoa, handiagoa edo txikiagoa, eta gizonen % 28 daude egoera horretan. Gainera, indarkeria sinbolikoarekin gertatzen den bezala, indarkeria psikologikoa gogorragoa da emakumerik gazteenen artean: % 28k maila ertaina/handia jasaten dute, hain zuzen, 36 eta 50 urte artekoen % 20,5ek eta adin horretatik aurrerakoen % 14,7k.

Produktu estetikoaren erabiltzaile nagusiak emakumeak direnez, emakumeek jasaten dituzte gehiago produktu horien ondoriozko indarkeria fisikoak. Emakumeen erdiak jasan du nolabaiteko indarkeria fisikoa, eta gizonen laurden batek jasan du gauza bera. Ehuneko hori are altuagoa da emakume gazteenen artean.



ESPARRU PUBLIKOA HERRIETAKO MUGIKORTASUNA

Hiriak eta mugikortasuna ikuspuntu androzentriko batetik osatu dira. Beste-
la esanda, mugikortasuna, hiriaren osaketa bezala, ekoizpen-lanaren berezko
lekualdaketa-beharrei erantzuteko antolatu da, ez familiaz arduratu eta zain-
tzeko lanari erantzuteko. Zehazkiago, espazioa maskulinizaturik dagoen per-
tzeptzioa areagotzen duten eta garraioaren banaketa sexuala mantentzen du-
ten sinbolo eta balio kulturalak daude.

Horren ondorioz, emakumeek gizonen baino eragin psikologiko eta fisiko
handiagoa jasan dezakete arrazoi hauengatik: aisialdirako eta jarduera per-
sonaletarako denbora gutxiago dute (denbora gehiago lekualdaketetarako);
babesgabetasun sententzioa eta erasoak jasateko beldurra dituzte; eta, azkenik,
errudun sentitzen dira indarkeriaren biktima izanez gero.

Datu kuantitatiboek honakoa adierazten dute:

- Gizonen % 87,8k dute gidabaimena, eta emakumeen % 70ek. Adinak au-
rrera egin ahala alde hori handiagoa da.
- Emakumeen % 38,6k autoa bikotekidearekin banatzen dute, eta gizonen
% 29,4k egiten dute gauza bera.
- Etxetik lan egin nahiz ez, emakumeek (% 33,7) gizonen (% 60,7) baino
askoz gutxiago erabiltzen dute autoa.
- Emakumeek, gainera, gizonen baino gehiago egiten dituzte lekualdake-
tak oinez (% 39,1 eta % 19,1, hurrenez hurren), baita garraio publikoare-
kin ere (% 21,8 eta % 7,7, hurrenez hurren).

Bestalde, alde argiak daude herrietan oinez lekualdatzearen ondoriozko in-
darkeria psikologikoei dagokienez. Hirietako gunek beltzek emakumeei segur-
tasun falta eta benetako beldurra eragiten dizkiete (emakumeen % 66,4 eta
% 59,4, hurrenez hurren). Heren batek erasoak jasan dituzte (zehazki, kalean
gauzak esan dizkiete) eta beren mugikortasun-ohiturak aldatu dituzte kalean
erasoren bat jasateko beldurragatik. Halaber, emakumeen % 18,3ren eremu
fisikoa urratu dute garraibide publikoetan.

Lekualdaketa guztiek beren osasun fisiko eta mentalean dituzten eraginetan
ia ez dago desberdintasunik emakumeen eta gizonen artean, ezta emaitzak
erabiltzen diren garraibideen arabera aztertuz ere. Hori ikusita ondoriozta
daiteke erabilitako garraibideaz gain badaudela indarkeria psikologikoa eta
fisikoa izatea edo ez izatea eragiten duten diren beste faktore batzuk.

2 | ONDORIO OROKORRAK

Sistema patriarkala erabakigarria da kontsumo kapitalistan indarkeria matxistak finkatzeko, eta sistema kapitalistak sistema patriarkalaren balioak betikotzen ditu. Elkar elikatzen eta behar duten bi sistema dira.

Sistema kapitalistak ahalik eta irabazirik handiena lortzen du pertsonak eta ingurumenaren baliabideak ustiatuz, eta sistema patriarkala bere aliatua da bere egiturako genero-desberdinkeriak justifikatu eta legitimatzeko. Emakumeen menpekotasun-posizioa mantenduz eta betikotuz, onura garrantzitsuak lortzen ditu:

- Etxeaz eta besteak zaintzeaz arduratzeko lana emakumeek egiten dute, dohainik: eginkizun horiek ikusezin mantentzen dira, ez dira baloratzen eta emakumeen berezko betebehartzat jotzen dira, eta horrek guztiak sistema kapitalista mantentzea bermatzen du.
- Emakumeak gauza gisa tratatzeak, haien segurtasun faltak, maitasun erromantikoak (familiarekiko eta bikotekidearekiko) eta abarrek manipulagarriago egiten ditu, eta errazagoa da produktuak erostea segurtasuna, maitasuna, bikotekidea, edertasuna, etab. lortzeko modutzat jo dezatela lortzea.

Indarkeria matxistak sustatzeak (bereziki publizitatearen bitartez) sistema kapitalistari ahalbidetzen dio sistemak bizirik irautea bermatzen duten balioak mantentzea: bere etorkizuna ziurtatzen du. Halaber, balio hauek desberdinkeria naturalizatzea eta indarkeriarik egiturazkoenak eta sinbolikoenak justifikatzea sustatzen dute, eta sistema hori betikotzeko testuinguru ideala sortzen dute.

Horrela, indarkeria matxistak, kontsumo kapitalistan, sistema patriarkal eta kapitalistak emakumeen gaineko kontrola izateko dauzkaten tresnak dira. Indarkeriak isilpeko hertsatze-sistemak dira; izan ere, dimentsio sinboliko eta kulturaletan oinarritzen dira, batik bat, eta horregatik da zaila indarkeria horiek detektatzea: naturalizatuta eta barneratuta daude eta normaltzat jotzen dira.

Feminismoen lorpenak gorabehera, azken urteotan krisiaren ondorioz inboluzio prozesu bat egon dela ikusten da (gizonen lana lehenesten da, emakumeentzako lanaldi murriztuak bultzatzen dira, etab.), eta horrek hainbat fenomeno azaleratzea ekarri du, hala nola neo-matxismoak, sektore batzuetan borroka feminista estigmatizatzea...

Analisi kualitatiboaren emaitzek adierazten dute, zailtasun argia dagoela analizatu ditugun lau esparruetan indarkeria matxistak ikusteko, ikusezin egin direlako eta naturalizatuta daudelako. Hitz egin ahala, naturaltasunez azaltzen dira.

Hala ere, esan dezakegu etxeko kontsumo-esparruaren, kontsumo-esparru pertsonalaren eta publikoaren inguruko indarkeria matxistak egon badaudela, neurri handiagoan edo txikiagoan, eta emakumeen eta gizonen datuak alderatuz, are argiago ikusten da.

Emaitza kualitatiboek adierazten dutenez, indarkeria-adierazpenak egiturazkoak eta sinbolikoak direnean errazago ikusten badira ere, lausotu egiten dira emakumeen osasunean duten zuzeneko eragina zehazten saiatzen garenean. Kasu honetan, zaila izan da zehaztea.

Horrenbestez, kasu askotan emaitzekin ateratzen diren ondorioak ez dira agerikoak hasieran, indarkeriaren aldagaien, moten eta abarren arteko harremanetan bilatu behar dira. Hala ere, indarkeria matxistak egon badaude kontsumo kapitalistan, eta askotariko adierazpenen bitartez gauzatzen dira.



ETXEA

ELIKADURA ETA ETXeko PRODUKTUAK

EMAITZA KUALITATIBOAK:



EGITURAZKO INDARKERIA

- > Genero-rolak eta lanaren banaketa **sexuala** betikotu egiten dira (publizitatean **emakumea** erosketaren eta etxeko garbiketaren arduradun moduan irudikatzen da).
- > Emakumeek **erosahalmen txikiagoa** dutenez kalitate handiagoko jakiak eta etxerako produktuak eskuratzeko aukera mugatuagoak dituzte.
- > **Heteronormatiboak ez diren ereduak**: ikusezin bihurtzen ditu.



INDARKERIA SINBOLIKOA

- > Lanaren banaketa **sexuala errepikatzen duten** (emakumea etxearen eta elikaduraren arduraduna, horretaz arduratzen da baina ez da jakintsua) eta **emakume "menperatua"ren eta objektu sexualaren irudia errepikatzen duten sinboloak**.
- > **Elikadura tresna estetiko moduan**. "Superwoman" izatearekin erlazionatutako sinboloak, baina lana errazten saiatzen direnean juzgatu egiten dituzte.
- > Etxeko lanari eta zaintzeari balioa kentzen dieten sinboloak.



ZUZENeko INDARKERIA

- > Indarkeria **psikologikoa**: estresa, ondoeza, etab. guztia egiteko eta betebeharrak betetze-ko gauza ez izateagatik eta aintzatespen faltagatik.
- > Emakumeek **substantzia toxikoen** eragin handiagoa jasaten dute, **produktu kimikoak erabiltzen dituztelako**, baita arrisku fisiko handiagoa ere (laprast egitea, eskailera batera igotzea, etab.).
- > Kalitate okerragoko elikaduraren ondoriozko **kalte fisikoak**.

EMAITZA KUANTITATIBOAK:



EGITURAZKO INDARKERIA

- > Emakumeek **beren burua jotzen dute etxeko produktuen eta janaria erostearen arduraduntzat**. Gizonak ardurak erdibana dituztelakoan daude.
- > **Ekonomiaren eta etxeko betebeharren administrazioa** emakumeen % 60ren ardura dira, eta gizonezkoen % 35,5ena.
- > Emakumeek eginkizun **bikoitza** dute:
 - i) etxeko eginkizunen arduradun bakarra;
 - ii) ikuskatzailea eginkizunak bikotearekin gauzatzen direnean.



INDARKERIA SINBOLIKOA

- > Emakume **gehienek eginkizun horiek gauzatzearen arduraduntzat** dute beren burua (beren buruari ezarritako presioa). Gizonek, berriz, beren bikotekideak presio egiten dietela sentitzen dute.
- > Emakumeek **presio handiagoa dute etxearen arduradun nagusiak direnean**: emakumeen % 32,6, eta gizonen % 16,4.
- > **Zaila da beren rola zein izan behar duen zehazten duten presioen errudunak bilatzea**. Etxeko eginkizunak konpartitzen dituzten pertsonen kasuan, gizonak erantzukizuna elkarbanatzeko joera dute, eta emakumeek ez.



ZUZENEKO INDARKERIA

- > Emakumeak **gehiago kezkatzen dira etxeko gainerako kideak zaintzeagatik** beren burua zaintzeagatik baino: estresa, nekea eta frustrazioa (ikusezintasuna).
- > Etxeko erreferentziazko gizonen % 38,1ek adierazten dute errudun sentitzen direla etxeko eta familiaren inguruko eginkizunen harira espero dena betetzen ez dutenean, eta emakumeen % 24,4k sentitzen dute gauza bera.
- > Garbiketa-produktuak erabiltzearen ondoriozko **indarkeria fisikoen** harira, alderik handienak **toxizitate-arazoetan** ikusten dira (% 8,4: emakumeen % 10 eta gizonen % 6).



ESPARRU PERTSONALA

ESTETIKA (KOSMETIKA, ARROPA, TRATAMENDUAK...)

EMAITZA KUALITATIBOAK:



EGITURAZKO INDARKERIA

- > Genero-rolak eta emakumeen menderakuntza-sistema betikotu egiten dira (estetikoki erakargarria izatea gizonen gustukoa izateko).
- > Edertasun-kanon "zuriak" ezartzen dira, baita beste eremu geografiko batzuetan ere.
- > Eredu ez-heteronormatiboak: ikusezin eginak.



INDARKERIA SINBOLIKOA

- > Emakumeen desbalorizazioa: emakumeen ikuspegi irreala ematen duten sinboloak, eta "moldagarri" gisa erakusten dituztenak (exijentzia estetikoak neurri handi batean daude merkatuak adierazten duenaren menpe), emakumeak kaskarinak, nortasunik gabeak eta objektu sexualak balira bezala aurkeztuz.



ZUZENEKO INDARKERIA

- > Norbere burua ez onartzearen eta existitzen ez den emakume-eredu bat lortzea ezinezkoa izatearen ondoriozko indarkeria psikologikoa.
- > Osagarri eta arropa kaltegarriak erabiltzearen (takoiak, arropa estua, etab.) eta ezinezko edertasun-ideal bat lortzearen ondoriozko gaixotasun fisikoak (bulimia, anorexia, etab.). Baita kirurgia estetikoarekin, laser tratamenduekin eta abarrekin erlazionatutako kalte fisikoak ere.

EMAITZA KUANTITATIBOAK:



EGITURAZKO INDARKERIA

- > 10 emakumeren arteko 3k adierazten dute beren fisikoa aldatu edo hobetu nahi dutela (10 gizonen arteko 2k).
- > Adinak aurrera egin ahala norbere fisikoa gehiago onartzen da, baina gizonezkoek ez hainbeste, eta haiekiko aldea areagotu egiten da adin altuagoko tartetan.
- > Emakumeen % 60k erabiltzen dituzte asko/nahiko horrelako produktuak (gizonen % 8k).



EGITURAZKO INDARKERIA

- > Produktu estetikoak norbere buruarekin hobeto eta seguruago sentitzeko baliabide bat dira, baita lan hobea eta bikotekidea aurkitzeko aukera gehiago izateko ere.
- > Urteak betetzeak nolabait presio estetikoaren eragin txikiagoa jasatea esan nahi du, gazte mantentzeari dagokionez izan ezik.
- > Produktu estetikoaren erabilera ertaina/handia egiten duten emakumeen % 23,2 daude indarkeria sinboliko handiaren menpe, eta produktu horiek gutxi erabiltzen dituzten emakumeen % 9,1.



ZUZENEKO INDARKERIA

- > Beren irudiagatik presio-maila altua jasaten duten emakumeen % 47k jasaten dute indarkeria psikologiko handia.
- > Emakumeen % 42k jasaten dute indarkeria psikologikoa, handiagoa edo txikiagoa, eta gizonen % 28 daude egoera horretan.
- > Indarkeria psikologikoa gogorragoa da emakumerik gazteenen artean. Emakumeen erdiak jasan du nolabaiteko indarkeria fisikoa, eta gizonen laurden batek jasan du gauza bera. Ehuneko hori are altuagoa da emakume gazteenen artean.



ESPARRU PUBLIKOA

HERRIETAKO MUGIKORTASUNA

EMAITZA KUALITATIBOAK:



EGITURAZKO INDARKERIA

- > Espazioaren osaketa androzentrikoarekin sortua: mugikortasuna lan ordaindurako diseinatuta dago, ez familiaz arduratu eta zaintzeko.
- > Hiri-eremuak pribatizatu egiten dira "doako" harremanak ez errazteko.
- > Segurtasun falta eta beldurra emakumeentzat (argi gutxiko kaleak, eremu bereziki arriskutsuak).



INDARKERIA SINBOLIKOA

- > Espazioa maskulinizaturik dagoen pertzepzioa.
- > Garraioaren banaketa sexuala.



ZUZENEKO INDARKERIA

- > Honakoak eragindako indarkeria fisikoa eta psikologikoa: aisialdirako eta jarduera pertsonaletarako denbora gutxiago (denbora gehiago lekualdaketetarako); babesgabetasun sentzazioa eta erasoak jasateko beldurra; erruduntasuna indarkeriaren biktima izanez gero.

EMAITZA KUANTITATIBOAK:



EGITURAZKO INDARKERIA

- > Emakumeen garraibide nagusia oinez joatea da; gizonek, aldiz, autoa erabiltzen dute batik bat.
- > Etxetik kanpo lan egin nahiz ez, **emakumeek gizonek baino askoz gutxiago erabiltzen dute autoa.**
- > Adinez nagusiagoak diren emakumeen ehuneko txikiago batek du gidabaimena emakume gazteek baino.



ZUZENEKO INDARKERIA

- > Hirietako gunek beltzek emakumeei segurtasun falta eta benetako beldurra eragiten dizkiete (**emakumeen % 66,4 eta % 59,4, hurrenez hurren**).
- > **Heren batek erasoak jasan ditu (zehazki, kalean gauzak esan dizkiete) eta beren mugikortasun-ohiturak aldatu dituzte** kalean erasoren bat jasateko beldurragatik.



5

Erreferentziazko baliabide batzuk

- ✓ Almirón Prujel, Elodia (2009). “Sobre las violencia cotidiana: entre mitos y experiencias” hemen: Vera Salerno, Raquel Andrea (comp.). *Violencia de género. Problema antiguo. Nuevos abordajes en el Paraguay*. Asunción: CDE, 83-110 orr.
- ✓ Alonso, Luis Enrique. *La producción social de la necesidad*. Madril: Economía Zientzien Fakultatea, Universidad Autónoma de Madrid.
- ✓ Altés, Elvira (2012). *La publicidad o la venta del imaginario oculto-¿Existe violencia sexista en los anuncios?* Bartzelona: Universidad Autónoma de Barcelona.



3. TAULA KONTSUMOAN IKUSPEGI KRITIKO BATETIK SAKONTZEKO BALIABIDEAK

KONTSUMOAN BEGIRADA KRITIKO FEMINISTA BATETIK SAKONTZEKO BALIABIDE BATZUK (DESHAZKUNTZA ETA ELIKADURA-SUBIRANOTA-SUNA):

- > Borrás Catalá, Vicente (2007). Las desigualdades en el consumo a través del género. *Revista Española de Sociología*, 8. zk., 139-156. orr.
- > Mugarik Gabe (2013). *Soberanía Alimentaria con Equidad de Género. Una apuesta de Mugarik Gabe*.
- > Piñeiro, Concepción (2013). “Una mirada Feminista al consumo consciente y transformador” hemen: Marcha Mundial de las Mujeres (2013). *Tejiendo alianzas para una vida sostenible. Consumo crítico, feminismo y soberanía alimentaria*, 93-106. orr.
- > Piñeiro, Concepción (Altekio S.Coop.) eta Ballesteros, Carlos (2011). *Zergatik kontsumitzen dugu? Kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzailearen gaineko orientabide didaktikoak Euskadin, genero ikuspegiaren abiapuntutik*. SETEM
- > Rebollo, María Ángeles et alli (2010). *Género en la educación para el desarrollo. Abriendo la mirada: interculturalidad, pueblos indígenas, soberanía alimentaria, educación para la paz*. Bilbo: Hegoa.
- > Red ZarenSare-EnRedando (2014). *Izansare manifestua. Deshaztera bideratutako garapen orekatu, barne-hartzaile eta feminista (DGOBF) BATERA bideratutako kontsumo eredu baten aldeko udalerrri etikoen “Zarensare” sarea*.
- > Tudela Torres, Marta (2008). *Feminismo y decrecimiento: puntos en común, posibilidades de encuentro*.

- ✓ Amnistia Internazionala (2015). Espainia. *Informe al comité sobre la eliminación de la discriminación contra la mujer de las Naciones Unidas*. 61. saioak, 2015eko uztailek 6-24.
- ✓ AWID (2004). “Interseccionalidad: una herramienta para la justicia de género y la justicia económica” hemen: *Revista Derechos de las mujeres y cambio económico*, 9. zkia.
- ✓ Bernárdez, Asun (2000). “Cuerpos imaginarios: ¿exhibición o encubrimiento de las mujeres en la publicidad?” hemen: *Cuadernos de Información y Comunicación*, 005 zk., 67-77. orr. Madril: Universidad Complutense de Madrid.
- ✓ Bonino, Luis (2004ko azaroa). “Los micromachismos” hemen: *Revista Cibeles*, 2 zk., Madril: Madrileko Udala.
- ✓ Borrás Catalá, Vicente (2007). *Las desigualdades en el consumo a través del género*. Revista Española de Sociología, 8 zk., 139-156 orr.
- ✓ Calderón Concha, Percy (2009). *La teoría del conflicto de Johan Galtung*. Revista Paz y Conflictos, 2. zk.
- ✓ Carballido González, Paula Carolina (2010). *El proceso de construcción de la violencia contra las mujeres: medios de comunicación y movimiento feminista. Una aproximación a la teoría del Framing*. Filosofía eta Soziologia Departamentua. Universitat Jaume I. Castellón de la Plana.
- ✓ Carrasco, Cristina (2009). “Mujeres, sostenibilidad y deuda social” hemen: Revista de Educación ale berezia. Madril: Hezkuntza Ministerioa, 169-191. orr.
- ✓ Casado Caballero, Vanesa (2012). “La violencia de género en la era de Internet” hemen: *Nuevas perspectivas para la detección temprana de la Violencia de Género* (mahai-ingurua).
- ✓ Ioé kolektiboa (2011). *Actitudes de la población ante la violencia de género en España*. Madril.
- ✓ Corporación para la vida Mujeres que Crean y Corporación Vamos Mujer (2015). *Informe: las mujeres en los medios: estereotipo y cosificación*. Kolonbia.
- ✓ Indarkeria matxistari, Gipuzkoako Foru Aldundian erabilitako terminologiari eta horren oinarria den azterketari buruzko agiria. Donostia.
- ✓ Emakumeen Nazioarteko Ibilaldia (2013). *Tejiendo alianzas para una vida sostenible. Consumo crítico, feminismo y soberanía alimentaria*.

- ✓ Eusko Jaurlaritzak (2012). *Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEen: pertzepzioa, eragina eta segurtasuna*.
- ✓ FeministAlde (2015). *Debate Intrafeminista sobre Violencia sexista en los medios de comunicación*.
- ✓ FUHEM Ecosocial (2014). *Entrevista a Silvia Federici: La construcción del patriarcado capitalista*. Boletín Ecos. Madril: FUHEM
- ✓ Gámez Fuentes, María José y Núñez, Sonia (2013). *Medios, ética y violencia de género: más allá de la victimización*. Asparkia, 24, 145-160. orr.
- ✓ Genero Indarkeriaren Gobernu Ordezkaritzak. *Encuesta sobre percepción social de la violencia de género*.
- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundia (2014). *Documento sobre la violencia machista, la terminología utilizada por la diputación foral de Guipúzcoa y el análisis que la sustenta*". Donostia.
- ✓ Gipuzkoako Foru Aldundia (2012). *II Plan Foral para la Igualdad entre Mujeres y Hombres 2012-2020*. Gipuzkoa.
- ✓ Lipovetsky, Gilles eta Serroy, Jean (2015). *La estetización del mundo. Vivir en la época del capitalismo artístico*. Anagrama.
- ✓ Luna Montaña, Iris (2001). *Mujeres, belleza y psicopatología*. Revista Colombiana de Psiquiatría.
- ✓ Magallón Portolés, Carmen (2005). *Epistemología y violencia. Aproximación a una visión integral sobre la violencia hacia las mujeres*. Zaragoza: Fundación Seminario de Investigación para la Paz de Zaragoza.
- ✓ Martín Turiño, María Soledad. (2009). *La mujer imaginaria, otra forma de violencia*. Genero-indarkeriari eta Osasunari buruzko I. Biltzar Nazionala. Santiago de Compostela.
- ✓ Marugán Pintos, Begoña eta Vega Solís, Cristina (2002). *"Gobernar la violencia: apuntes para un análisis de la rearticulación del patriarcado"*. Política y Sociedad, 39 lib., 2. zk., 415-435. orr.
- ✓ Médicos Mundi (2013). *Violencia bella. El cuerpo Adolescente como territorio de control*.
- ✓ Menéndez Menéndez, María Isabel (2013). *Biopoder y postfeminismo: la cirugía estética en la prensa de masas*. Universidad de Burgos.

- ✓ Mindell, Arnold (2014). *La democracia profunda de los foros abiertos. Pasos prácticos para la prevención y resolución de conflictos familiares, laborales y mundiales*. Ed. Deep Democracy Exchange.
- ✓ Mugarik Gabe (2013). *Soberanía Alimentaria con Equidad de Género. Una apuesta de Mugarik Gabe*.
- ✓ Mugarik Gabe (2012a). *Jornadas violencias machistas y estrategias para enfrentarlas*.
- ✓ Mugarik Gabe (2012b). *Una vida sin violencias machistas. Una apuesta de Mugarik Gabe*.
- ✓ Muñoz Cabrera, Patricia (2011). *Violencias Interseccionales. Debates Feministas y Marcos Teóricos en el tema de Pobreza y Violencia contra las Mujeres en Latinoamérica*. Central America Women's Network (CAWN).
- ✓ Orellana Gazaga, Maite (2007). *La economía solidaria como forma de organización económica alternativa al sistema capitalista global*. Bartzelona: Máster Globalización, Desarrollo y Cooperación. Observatori Solidaritat Universitat de Barcelona.
- ✓ Pérez Orozco, Amaia (2014). *Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital y vida*. Madril: Traficantes de Sueños.
- ✓ Piñeiro, Concepción (2013). "Una mirada Feminista al consumo consciente y trasformador" hemen: Marcha Mundial de las Mujeres (2013). *Tejiendo alianzas para una vida sostenible. Consumo crítico, feminismo y soberanía alimentaria*, 93-106. orr.)
- ✓ Piñeiro, Concepción. *Comunicación ambiental para la transformación social*. Doktorego Tesia. Madril: Ekologia Departamentua. Ingurumen Hezkuntzako Unibertsitate arteko Doktoregoa (UAM).
- ✓ Piñeiro, Concepción (Altekio S.Coop.) eta Ballesteros, Carlos (2012). *¿Por qué consumimos? orientaciones didácticas sobre el consumo consciente, responsable y transformador en Euskadi desde una perspectiva de género*. SETEM
- ✓ Rebollo, María Angeles et alli (2010). *Género en la educación para el desarrollo. Abriendo la mirada: interculturalidad, pueblos indígenas, soberanía alimentaria, educación para la paz*. Bilbo: Hegoa.
- ✓ Rodríguez Luna, Ricardo eta Bodelón, Encarna (coords.) (2011). *Las violencias machistas contra las mujeres. Grupo Antígona*. Universidad Autónoma de Barcelona. (UAB)

- ✓ Soley-Beltrán, Patricia (2008). “Erotismo, cuerpo y consumo” hemen: Juan Rey (ed.) *Publicidad y Sociedad. Un viaje de ida y vuelta*. Sevilla: Comunicación Social Ediciones y Publicaciones, 83-108. orr.
- ✓ Soley-Beltrán, Patricia (2007). “Una introducción a la sociología del cuerpo” hemen: Meri Torras (koord.). *Cuerpo e identidad. Estudios de Género y Sexualidad I*. Bartzelona: Edicions Universitat Autònoma de Barcelona, 247-263. orr.
- ✓ Tudela Torres, Marta (2008). *Feminismo y decrecimiento: puntos en común, posibilidades de encuentro*.
- ✓ Vives, Carmen (2011). *Un modelo ecológico integrado para comprender la violencia contra las mujeres*.
- ✓ ZarenSare-EnRedando Sarea (2015). *2015eko urtarrileko topaketaren ostean ZarenSare-EnRedando sarearen helburuen, funtzionamenduaren eta ekin-tza-planaren agiriaren laburpena*.
- ✓ ZarenSare-EnRedando Sarea (2014). *Izansare manifestua. Deshaztera bideratutako garapen orekatu, barne-hartzaile eta feminista (DGOBF) BATERA bideratutako kontsumo eredu baten aldeko udalerrri etikoen “Zarensare” sarea*.
- ✓ Zubero, Imanol (2015). *¿Superpoblación o sobreconsumo? Malthusianismo práctico, exclusión global y población sobrante*. Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea.

Setem

www.setem.org/euskadi

 SetemHegoHaizea

 @SetemHegoHaizea